

# EGĀN



4-6

1970

1-6

1971

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País  
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

# SUMARIO

Págs.

<b>PIERRE TOPET-ETXAUN (1786-1862):</b> Yon Etxaide .....	3
<b>BERGARA, ERRI BILDU (1268-1968):</b> Manuel Lecuona .....	19
<b>AXULAR</b> ren "GERO": Karmelo Ajuria .....	32
<b>PEKATU AITORTUA:</b> Giovanni Guareschi. Trad. R. Bozas-Urrutia .....	42
<b>INGLES MAKINA:</b> D. Peillen ...	45
<b>"AZI ONAREN KARRIKA ESTUA":</b> Raissa Maritain. Trad. Julene de Azpeitia .....	48
<b>OSABA LUIS:</b> Xabier Quintana	51
<b>MAKILLA:</b> Etxeberria, P.S.I. ....	56
<b>MARIBEL ITSU:</b> Etxeberria, P.S.I. ....	57
<b>ADABAKIAK:</b> M.B.A., Juan San Martín .....	59
<b>KANTUZ ETA ITXAROPENEZ:</b> Markue .....	66
<b>OLERKIAK:</b> Harzabal .....	70
<b>JAN EDANAK:</b> A. A. ....	72
<b>KONTU KONTARI:</b> Bitaño ....	77
<b>"50 AÑOS DE PINTURA VASCA"</b> (1885 - 1935): Juan San Martín .....	79
<b>EUSKAL ERTILARIAK:</b> Ozerinjauregui .....	81
<b>EUSKAL HERRIKO LIBURUTEGIA:</b> Joseba Intxausti .....	84
<b>LIBURUAK:</b> J. San Martín .....	87
<b>LURRUNPEAN (Jarraimena):</b> A. Zubikaray .....	90
<b>BIBLIOGRAFIA:</b> J. San Martín .....	110

**DIRECCION Y REDACCION:**

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

---

Números 4-6      Julio-Diciembre 1970

Números 1-6      Enero-Diciembre 1971

# EGAN

EGAN is a collection of 12 short stories, each a masterpiece of suspense and mystery. The stories are set in a variety of locations, from a small town in the Midwest to a remote island in the Pacific. The characters are complex and well-developed, and the plots are intricate and surprising. Egan's writing is clear, concise, and powerful, and his stories are a testament to his skill as a storyteller.

EGAN is a collection of 12 short stories, each a masterpiece of suspense and mystery. The stories are set in a variety of locations, from a small town in the Midwest to a remote island in the Pacific. The characters are complex and well-developed, and the plots are intricate and surprising. Egan's writing is clear, concise, and powerful, and his stories are a testament to his skill as a storyteller.

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excm. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.

CONSEJO DE REDACCION: Angel Irigaray, Antonio Arrue y Luis Michelena.

DEPOSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958

---

Impreso en Gráficas Colón, - P.º Colón, 4, S. S. - Junio, 1972



# EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN  
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOGIA VASCA  
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

---

II Epoca

Vol. XXXI

Julio 1970-Dic. 1971

---

## Pierre Topet-Etxaun (1786-1862)

(Barkoxe'ko koblariaren bizitza laburki)

Pierre Lafitte-Ithurralde'k Haritzelhar'en liburutik egin laburpena, Yon Etxaide'k gipuzkera osotuan emana. Oharrak, itzultzailearenak.

Jean Haritzelhar'ek Etxahun'ez argitaratu duen liburu zoragarriak (Le poète souletin Pierre Topet-Etxahun (1786-1862), Baiona, 1969), Xuberotar bertsolariaren bizia estaltzen zuten lanbro eta gandurik gehienak (denak ez esatearren) urratu dizkigu eta haren orain arteko erdi misteriozko bizitza garden-garden agertu zaigu, ez noski guk nahi gendukean idealismuz apaindurik, errealismu garratz batez igurtzirik baizik.

Haritzelhar jaunaren estudio sakon eta neketsuaz laburpen bat egiteko asmotan nintzelarik, horra nun aurrea hartu didan Aita Lafitte euskal-langille porrokatuak, frantsesetik Lapurdi-Benaparroa'ko euskerara labur-labur aldatuz Etxahun'en bizitza Haritzelhar'en arabera. Aita Lafitte'ri eskerrik beroenak eman nahi dizkiot, zeren ikaragarrizko zama kendu baitit gaiñetik eta hain zuzen ifoiz ez bezala betarik gabe eta adoregabeturik arkitzen naizen nere bizitzako krisi handienetako batean. Beraz, ene lana hutsaren urrengoa izan da, alegia, Pierre Lafitte'n laburpena Gipuzkoa'ko euskera osotu'a aldatzea. Lapurtar jaun apez jakintsuari eskerrak, Bidaso'z honuzko euskaldunei zor nien Etxahun'en kondaira ia nekerik gabe eskefiri ahal dizalekegu EGAN'en irakurleei (Ikus: Pierre Lafitte, "Pierre Topet-Etxahun" (1786-1862), Editions "Herria", 1970).

## GAZTE DENBORA

Pierre Topet 1786'an sortu zen eta itxura denez Iraillaren 27'an, Barkoxe'ko Etxahunia'n. Aita, Jean Topet, Barkoxe-Topetia'ko seme zen; ama, Engrace Sieur, Etxahunia'ko oiñordekoa (prima). Oitura hala baitzen, etxearen izena ematen zieten etxekoei. Beraz, Etxahunia'koei Etxahun.

Pierre, noizpait poeta izango zena, etzen, noski, familiako haur bakarra: ba-zituen hiru arreba (Marie-Anne, Catherine eta Marguerite), baita hiru anaia ere (Joseph, Jean eta Jean-Pierre). Bera senidetan bigarrena zen; zaharrena, Mari-Ana.

Mutiko horren lehen urteak nolakoak izan ziran? Ez daiteke deus ere jakin, haren kantuek salatzen diguten bidez baizik eta aitor dezagun ez zaizkigula beti sinist-errezak. Berak diogunez, bai haurtzarora, bai gaztaroa, zorigaitz handian igaro zituen: gurasoek ez omen zuten sortzean onartu, aitaren tankerarik etzuelako; sasikumetzat omen zeukaten etxeko guziek, amodiorik gabe, bere ardurarik gabe, janari onik gabe; aldizka mespreziatzen zuten, jotzen, hil zedin ere desiratuz. Eskolan ere gauza bera: lagunen zitalkeriak burutu behar eta iñor ere ez bere alde.

Hamar urtekin, osasunez erdi-ipurdi ibilliarren, lanera joan behar: aurrena iraintzen dute eta gaizki tratatzen. Bertsuetan dion bezala, etzituen etxean hiru pertsona baizik aurkitu urrikaldu zitzaizkionak: amoña, 1803'an hil zena; morroi bat, hura hezteko (hezitzeko) agindua izanagatik, poliki eskolatzen zuena; eta Maria Arrozpide izeneko neskamea. Hau Larrañe'koa zen eta bi gazteek alkar maitatu zuten. Geroxeago, neskatilla pobrearen amodioa aipatuko duelarik Etxahun'ek, Mari Arrozpide izanen du gogoan, nahiz haren izenik iñun ere ez salatu.

Gauza batek artegatzen gaitu. Pierre'ek, bere kantuetan bere gurasoak ezin-gehiagoan zikintzen ditu: aita, gorrotoa gidari, auzilari zikoitz bihotz gabetzat dauka; amaz, honela dio makurki «amak idor bihotza bai eta thitia». Hala ere Pierre dute biek oiñordekotzat aukeratu eta ez Mari-Ana, adiñez zaharrena izanarren. Gure iritzian ba-da hor zerbait zuzen ez dabillena.

## AMODIOA ALA OIÑORDEKOTZA

Topetia'ko osaba, Pierre'en aita-pontekoa (aitajauna, aitausia), franko aberatsa zen. Haurrik etzuelako, 1804'ean testamentu egitean,



here ontasunak Etxahunia'ko nagusiari utzi zizkion, hots, Jean Topet bere anaiari. Hiru etxaldeok baitik-bat: *Topetia*, *Xanpaña* eta *Arbizpe*. Amaren dotea zuen *Bedekaratzia*'rekin, heldu beharrak ziztaizkion *Etxahunia*'ren oiñordekoari. Horrela ezagutzen ditugu koletan aipatzen diren «bost etxalde» famatuak.

Baiñan, oiñordeko-gaiak Mari Arrozpide'rekin zeukan amodioa aurrera-xamarturik zen: 1805'eko Otsaillaren 27'an Jean Arrozpide txipi bat (1) sortu baitzen Etxahunia'n.

Pierre pozik ezkonduko zen neskamearekin. Etxekoek ziotenez, ordea, etzen holakorik behar, deschore izango baitzen; aukera zezala maitetia ala oiñordekotza.

Hamahiru hillabetez ez adituarena egin zuen, ustez, denborarekin bazterrak baretuko zirela. Bai, zera! Horra nun mehatxuka hasten zaizkioten: 1806'ko Apirillaren 16'an aita-pontekuak bere lehendabiziko hilburukoa (testamentua) ezeztatzen du eta bere ondorengo bakartzat Joseph Topet izendatzen, Jean Topet-Etxahun'en hirugarren semea (2).

---

(1) Ama zuen Arrozpide eta aita Etxahun, baiñan aitona etzion aitaren deiturarik aitortu nahi izan. Haritxelhar'ek dio: "C'est un garçon qui naît le 9 ventose an XIII (27 février 1805) à Etchahunia et Jean Topet, le maître de maison, vient lui-même faire la déclaration de naissance à la mairie de Barcus!", "disant que —dio bataio-agiriak— Marie Rospide de la commune de Larraun a accouché le jour d'hier neuf du courant vers les deux heures du matin et dans la dite maison d'Etchehon d'un enfant mâle DONT LE PERE EST INCONNU". (Ikus xehetasun gehiago Haritxelhar'en liburuaren 57'gn. horrialdean.)

(2) Haritxelhar'ek dio: "En avril 1806 (il y a treize mois au moins que l'enfant est né) Pierre Topet (osaba) se rend comte que son filleul ne rompt pas ses relations avec Marie Rospide. Il a donc pris définitivement sa résolution: rien de ce qu'il possède ne doit revenir, PAS MEME PAR L'INTERMEDIAIRE DU PERE QUI EST JUSQU'A PRESENT L'EXECUTEUR TESTAMENTAIRE ET L'HERITIER UNIVERSEL, au jeune Pierre Topet-Etxahun coupable de désobéissance à la volonté paternelle et aux désirs du parrain" eta Maule'ko notario batengana joanik testamentu berria egiten du Joseph Topet'en alde: "il laisse et lègue à Joseph Topet fils troisième né de Jean Topet de Etchahun, son neveu de Barcus, tous et chacun des biens en propriété sous les déductions et charges plus haut exprimées, à cet effect il l'institue pour son héritier universel et le nomme son exécuteur testamentaire."

Haritxelhar jaunak, gaurdañoko traziñoaren kontra aditzera ematen du etzuela osabak bultza aita gure koblakaria "desprimützerà", alderantziz baizik, aita izan zela osabari hortara eragin ziona. Egia, Aita Lhande'k jasotako "Bi berset dolorusik" poeman diola: "Entzün nianian egüzaitak aita bildü ziala bere hiru etxaltez ene desprimützerà", baiñan Haritxelhar'ek beste aldakizun bat jaso du honela diona: "Entzün nianian EGUZAITA AITAK bildü zeitela bere hiru etxaltez ene desprimützerà". Ikusi dugu gorago aipatutako hiru etxaldeak osabarenak zirela eta aldakizun honen esanarekin bat egiiñik dator Haritxelhar'ek aurkitu berri duen "Etxahun'en bizitziaaren khantoria" delako poema, honek baitio "Hirur etxalte beinin galdü aitagati". Beraz, ezta dudarik aita izan zela semea desprimützeko interesik handiena izan zuena. (Ikus xehetasunak 61-62 horrialdetan).

Aldi hontan bertsolari gaztea ohartzen da ez duela gauza onik: ez ba'ditu Etxahunia eta Bedekaratzia ere galdu nahi, beste hiru etxaldeak bezala, amore eman behar du. Bihotza erdiraturik, Mari Arrozpide eta euren haurra uztea erabakitzen du. Gaitz erdi, mentu txar huntan Etxahun'ek bere buruaz beste egin etzuenan!

Garaitu hartan ondu zituen noski «Urtx'aphala»-ren kantak, bi amoranteen bereizte etsigarri samina aipatzen baitute. Haren lehen bertsuak izan bide dira.

## EZKONTZA ETA ETXEKO TIRA-BIRA

Etxekoek «neskatila pobrea» baztertu-eta, ez dute Pierre hortan utziko: Engrâce Pelento'rekin ezkontzera behartuko dute. Andereño hori-gizon-gaia baiño bi urtez zaharragoa zen, eta Etxahun'entzat amodio gutxi ba'zekarren ere, haren dotea poliki estimatua zen: orduko 3.415 libera (franko), hots, oraingo 12.977 libera berri gutxi-gora-behera. Elizaz, 1808'ko Iraillaren 27'an ezkondu ziren Barkoxe'n. Handik hemeretzi urte barru Etxahun'ek kantatuko du:

*Hogei eta bi urthik bethe egünin,  
Emazte bat hartü nin ene zorigaitzin:  
Erraiten ahal beitiüt zereki zeitan jin,  
Ene iürkha bülhürra gorderik altzopin,*

Ez dirudi familiako tira-birak eta zorigaitz handiak lehen-lehenetik sortuak zirela. Gauzak, emeki-emeki nahasi, okertu eta gaizpideratu ziren noski. Dena-dela, Barkoxe'ko Udaletxean diren paperek erakusten dute ezkontza hontatik sei haur sortu zirela 1808'tik 1821 arte: Engrâce (1809), Marie (1811), Joseph (1813), Catherine (1816), François (1819), Pierre (1821). Engrâce bi hillabetekin hil zen eta Catherine bi urtekin.

Baiñan itzul gaitezen egiñetara.

1809'an Topetia'n hil da aita-ponteko aberats hura, eta haren ondorengo Joseph Topet'ek, 1813'an soldadu joan aurretik (3), eskuzko testamentu bat egiten du, bere ontasan guztiak Pierre bere anaiari utziz. Poetaren atsegiña! Baiñan hilburukoak ez du baliorik izango; Joseph ez baita Napoleon'en gerletatik itzuliko, baiñan ezin probatuko dute hilla dela. Zeren, legez, testamentu batek ezpaitu deus balio, haren egillea ofizialki hil ez baldin ba'da.

(3) Aldi hartan Napoleon jendez oso beharturik zegoen Espainiarako eta Rusia'rako eta orduan gerlaratu zuten noski Joseph. Ikus xehetasunak 72-73 horrialdetan.



Bestalde, aita-pontekuaren hilburukoa ez dute ontzat hartzen honen anai-arrebek.

Pierre txit asarre da. Haren iritzian aitak ez ditu etxeko interesak behar zukean arduraz zaitzen. Eta noiz-nahi familian diru-asarreak pizten dira. Azkenean, alkarren arteko errietak neurriz gora egiten dute eta 1817'an poetaren aita, ama ta senideak, Etxahunia utzirik, Topetia'ra joaten dira igesi, aita-pontekoaren alarguntsaren (alargunaren) ondora. Etxahunia'n senar-emazte gazteak geldituko dira.

Urrengo urtean Topetia'n hilko da Etxahun'en ama, bere etxetik kanpo. Heriotza horrek zati-eraziko du Etxahunia'ko ontasuna, poetari ez baitzaizkio geldituko lurretatik erdiak baiño gehixeago baizik.

Azak ontzeko, 1819'ko apirilaren 16'an, Donapaleu'ko tribunalak, huts txipi batengatik, ezeztatzen du aita-pontekuaren testamentua, Joseph'ena ere ondorioz desbaliotzen duelarik.

Orain arte aipatu ditugun urtetan Etxahun'ek bertsu asko ondu ote zuen? Haritxelhar jaunak erakutsi du *Eihartze eta Miñau* kanta parre-egingarria 1813'ko dibortzio faltsu bat dela-ta sortu zela. Baiñan noizkoak diren ezin asma ditzakegun beste kanta batzuek, ba'di-teke urte-aldi berekoak izatea.

## BOST URTE PRESO

1820-1821 tarte hortan, itxura duenez, gure Etxahun'ek ez zukean kantatzeko gogo handirik.

Asarrekor zegoen izugarri, idurikor eta erasokor.

Jean bere anaiganako gorrotoak zirakion: honek, 1806'ko hilburukoa ezeztatu bezain laister, osaba-izeben parteak erosi baitzituen Topetia'z jabetzeko.

Gorroto zuen emaztea: hau, diru-istillutan ezpaitzen bere alde agertzen. Baiñan, ba-zen besterik ere serio hartzekoa: Engrâce ibillera txarretan murgildu zen Jean Hegiaphal auzokoarekin. Senarrak nahi izan zuen andrea «gonbertitu» (ez dakigu nola). Hau mendekatu zitzaion, ordea, gonbertitzaillea bi hillabete preso eduki-eraziz. Egia esan, Etxahun'en kantuek baizik ez dute preso-aldi hori aipatzen. Orain arte ez da iñun agertu horren probarik.

Gorroto zuen (bixtan da), emaztea lapurtu zion Hegiaphal.

Gorroto halaber, arrazoi edo aitzeki askoz, aunitz jende. Bai, gorroto, eta (zoritxarrez) indarraz, beroaldiz eta borrokaz baliaturik.

Azkenean galernak nundik edo handik lertu behar.

1821'eko Urriaren 26'an, Eskiula'ko Benoit Goihenetxe Xope



delako batekin asteme tratu batez hasten da alkar-hizketa; eta bero-bero egiñik, ez ahal dio da aizkorakada bat ematen bularrean? Zauria zarrapo bat baiño gehiago da: ebaki gaiztoa. Etxahun preso hartzen dute eta Donapaleu'ko presondegira eramaten, Pierre, familiako azken haurra sortu baiño zenbait egun lehenago, hain zuzen. Hil asmoz gaiñera, lapurretaz eta urrezko txanpon faltsu bat korri-erazi nahiaz salatu zuten (4).

1822'an «morroillopetik» haren ihes egitea ezar ditzke, nahiz-ta zeatz ez jakin noiz eskapatu zen, ez-eta zenbat denhora egon zen presondegitik kanpo. Ez da paperik argi gaitzakenik. Jendeak, gure iritzian, irudimenez aunitz jantzi dute eskapu-hixtori hori.

Berriz arrapatu-eta, ba-du itxura garrakzi erabilli zutela zain-tzailleek, bere bertsuetan saminki arranguratzen (kekatzen) den bezala.

1823'ko Abenduaren 30'ean Pabe'ko Auzitegian kondenatzen dute: lehenik bi urte beharko du preso egon, eta gero beste bi urtez poli-ziaren begipean. Dei egiten du, baiñan probetxu gabe: kastigua bere-hartan gelditzen da eta presua Lot-et-Garonne Eysses'etako «Centrale» delakoan sartua. Presondegiko paperek ez dute aipatzen ez haren eraso-miñik, ez ihes-saiorik, ez beste deus ere jakingarririk.

1826'ko Otsaillaren 11'an, Eysses'etik Etxahun ateratzen dute, baiñan ez libratzen. Giltzapean daukate aurrena Pabe'n, gero Donapaleu'n; hemendik joaten utziko dute 1827'aren hasiaran, ezin baitutze egiztatu haren gain cgotzitako erruak.

Eduki ere, bi urteren ordeaz, bost urte eduki baitute preso; ez da bada harritzekorik, barne guzia kedar, kirats eta minkatz, sekula baiño minberago egotea.

Bere kantuetan ixilik dauka Goihenetxe'kiko ezbeharra. Egonarri exkaxa (5) aipatzen du, sesio-jartzailleen lana ere bai; baiñan oroz gaiñetik batzutan aita, beste batzutan emaztea salatzen du, haren preso-aldia luza-erazirik. Esan dezagun testigutza izpirik ez dela aurkitu horien alde. Etxahun, bere zoria ezin ulertuz, uste-musteka ari zen noski bakar-bakarrik bere buruarekin. Eta nork daki? Beharbada federik onenaz.

## XOKOT 'EKO ZUBIA

Pierre Topet etxean ez izanez, haren emaztea, ongi egin ustez

---

(4) Txanpon falsuaren hixtori bitxi hau irakurleak ikus dezake Haritxelhar jaunaren liburuko 88-89/112-113 horrialdetan.

(5) Eztakit Lafitte jaunaren asmoa "egonarri urria" ala "egonarri falta" den, bitara izan baititeke.

eta lege-gizonek aholkaturik, lur trukutzen eta saltzen ari izan zen. Senarrak derizkio tratu txarrak izan direla, etxe-galgarriak (6); bestalde, Engrâce'k ezto auzokoarekin hautsi eta gizonak salatzen du haur bat behintzat ezkontzaz kanpo sortzea emanik duela.

Jardun horiekin gaitzurik (molestaturik), Engrâce Pelento'k uzten du senarra eta ihes-leku bat aurkitzen bere aizpa baten etxean, Barkoxe'n bertan. Bi haur eramaiten ditu berarekin.

Bertsolaria Etxahunia'n gelditzen da beste bi haurrekin, etxe zati batean Ibar baserritar-maizterrak bizi direlarik (7).

Etxahun erdi erotua bizi da: oihu hemendik eta mehatxu handik, bazterrak oro izutuz.

Gauzak hola, 1827'ko Maiatzaren lehenean gertakizun ikaragarri batek dardara-azten du Barkoxe guztia: arratseko hamarrak inguruan, Olorue'ko ferietatik itzultzean, Domiku (Dominique) Etxegoihen, Xokot'eko zubian, hurbil-hurbilleik apuntatutako txispa (eskopeta) tiro batez zaurituta erortzen da.

Ez dakite nork bota duen tirua.

Baiñan famak, berandu gabe, Etxahun dela dio: gaizki ikusia baitago, Hegiaphal mendekuz hil nahiean, adiskide errugabea akabatu du noski.

Etxahun'ek, burua galdu beharrez, ihesari emaiten dio eta ahal duen tokian ezkututzen da.

Ondorengo Urriaren 23'tik 24'erako gauean suak iresten du Hegiaphalia'ko saletxe bat, aldamenean duen belartegi batekin.

Berriz ere jendeari errezelua jartzen zaio Etxahun'en eskua hortan ari izana ote den. Hontan koblariak, hille beraren azken egunetan, Larrañe'ko artzaiñei bertso ernegarri bat kantatzen die; bertsu hortan, hain zuzen, bi lerro hauek adi ditezke Hegiaphal'i buruz:

*Bestek eraman derik hik behar kolpia,  
Bena kübera dirok oriano hartzia.*

(Beste batek eraman dik hik hartu behar huen kolpia, baiñan kobra dezakek oraindik hirea.)

Denen iritzian, bi lerro horiek salatzen dute tiro-emaillea.

Justiziak ere, esakizun horregatik, erabakitzen du Etxahun preso

---

(6) Alegia, emazteak egiñiko lur-tratuak ondatu zutela etxea.

(7) Barthélémy Ibar, Etxahun'en etsairik gaiztoenetako bat izan zen. Salaketarik beltzenak egin zituen haren kontra legearen aintzinean, hala nola hogeitabost ezkuta (escudos) agindu zizkiola bere eskuz hilzen ba'zuen Hegiaphal. Ikus Haritxelhar'en liburuan 115'gn. horrialdea eta hirugarren kapitulua: "Le crime de Barcus".



hartzea. Lehentxeago haren erasotik libre gelditu zen, auzi hartan zeri heldu ez jakinez.

Berehala kontrako lekukoak (testiguak) sortzen zaizkio xixak bezala; zuhaitz eroriaren inguruan haizkolariak egur-aukera (8); aldi batetik bestera, juezen beren iritzian, akusatzailleek gehiegixko hantpatzen dituzte beren salaketak. Alegia, ba-dirudi askok ez dutela gogoan Etxahun lertu-azteko gogoia baizik.

Sei hillabete egoiten da preso eta orduan Deffis jaunaren ohoretan osatzen du bertso bat; izan ere, haren gandik itxaropenezko hitz goxo batzuek izan baitzituen.

Eta hona, 1828'ko Agorrillaren (abuztuaren) 18'an eta 19'an Auzitegi-jardunak.

Jendetza handia auzi hori aditzeko.

Etxahun'ek ba-daki zer duen beregain: Fiskalak haren kontra eskatuko du hiltzea ala galeretako kondena bizi guziko. Ez da jolasik. Baiñan bere buruaren jabe da osoki. Galdezka, arrazoiak emanaz, irriabarrez edo asarre-jarioz, lekuko etsaiak (testigutza egiten duten etsaiak, alegia) asaldaturik eta asnas gabe uzten ditu, batzuek besteen ondotik. Juezei buru egiñik, adierazten die zenbait zitalek eta gezurtik alkar berotu dutela bera galtzeko. Hontan, norbaitek eskutitz bat dakar, hogeit bat Barkoxtarrek izenpetua, alegia Etxahun gizon peligrasua izanik, herri guzia haren bildur dela. Honegatik, arren, juezek ez ba'dute ere hura kondenatzeko biderik aurkitzen, bakearengatik bederen, ez dezatela libra.

Juezek azkenean erabakitzen dute ez duela errurik.

Haritxelhar jaunaren liburuak auzi hau zeatz-meatz kontaktzen du, paper ofizialak lekuko: 35 horrialde luze horiek ez dute gatz faltarik, irakurtzen hasita segituan bururatu (bukatu) gabe ezin utz...

## BEITIK GORA

1828'ko Agorrillaren (Abuztuaren) 20'an Etxahun libre uzten dute. Barkoxe'n ez dira denak pozik. Herrira itzulita, herritarrek ez diote egiten «hunki jin» (ongi etorri). Gehienek bizkar ematen diote. Urdiñarbe'ra joaten da han ez duelakoan hainbat etsaigo eta bertan ontzen du 1829'an *Kantoren kantatzeko*. Bertsu horietan musikan jartzen du Omize-gaiñe'ko ezkontza bitxi (arraru) bat, orduan hizpide asko eman zuena noski. Han egon zitekean oraindik 1830'ean *Belhaudi'ko borthian* kantorea egin zuelarik, artzain batzuen axolabekeria hain poliki zirikatuz.

(8) Alegia, "nahi beste egur".

Bitartean saiatzen da eginkizun zahar batzuek onez-onean antolatzten, bere etxondoa berriz osatzeko eta aberasteko asmoz.

Aita, 1831'ko Iraillaren 28'an hil zitzaion. Handik laister erabaki zuen Erroma'ra joanen zela pelegrin; preso zelarik egin zuen hoto bat nahi zuen kunplitu. *Bi berset dolorusik* kanta hunkigarria ordukoa da. Bertsolariari berak egindako hutsen erosta (ogenen deitora) dario eta aholku onak ematen ditu; bihozki barkatzen du eta bere haur eta ontasunak Alkat deituradun Barkoxe'ko alkate jaunari gomendatzen: fedezko eta bakezko kantorea, halakorik baldin ba'da.

Sei hillabete iraun zuen erromesaldi horrek, 1832'ko Apirillaren (Jorraillaren) 26'an Etxahun Zubero'ra itzulia baitzen. Gauza gutxi dakigu Erromaldi hortaz. Paperak (9) galdurik, maiz arrestatua (10) izan omen zen arlote gixa. Izan ere berak 55 presondegi aipatzen ditu. Ez ote gehiegixko? Nimes hiria, ospitalean, hiltzer (11) egon omen zen. Dena dela, presaka itzuli zen bere haurren eta ontasunen ardurak eraginda.

Erroma'ra joaterakoan erakutsi zituen sentimentu ederrak urtu ote zitzaizkion etxera etortzerakoan? 1832'ko Agorrillaren (Abuztuaren) lehenean Clérise fiskalari kartaz eskatzen zion, inñolaz ere bere emaztea giltzapean sar zezatela hobe-beharrez (12).

Behin bitartean, Urriaren azkenetan Etxahunia'ra joaten da etxe-koekin bizitzeko eta batez ere eskubidez bereak bezala estimatzen dituen ontasunen jabetzeari ekiteko.

Haritxelhar jaunak bere liburuan ematen digu Etxahun'en tratujokoen berri: nola ari zen gaur goxoki, biharamonean garrazki; behin anaia bat laguntzat hartuz besteak garaitzeko (menderatzeko), gero laguna aldatuz hala komeni baldin ba'zitzaion; batzutan gauzak bizibizi eramanaz, besteei anasa hartzeko eperik utzi gabe; bestetan luza ta luza abagune onaren zain. Ez gera gu hemen sartuko auzilari setosuaren iruzur bihurrietan. Aitor dezagun ongi atera zela kostiak kostak: hamar urteren buruan, billatzen zituen ontasun gehientsuenak eskuetaratu zituen, Jean'ek bereganatu zuen Topetia izan ezik.

Dirudienez, urte horietan Etxahun'en fama txuritutzea zen. Jende handi hainitzek atsegin dute harekin mintzatzea, hala nola Deffis presidenteak edo Clérise fiskalak. Egin-erazten diote bere «Bizitzea-

---

(9) Alegia, "nor-agiriak".

(10) Detenitua.

(11) Hiltzeko zorian.

(12) Hots, "trabarik egin ez zezan". Lafitte'k "poxolutik" hitza darabil eta beronek dionez "laburpen bat da". Erran nahi du "ez dezan poxolurik (trabarik) egin". "Bakea gatik" itzul ditekeala gipuzkerara esaten zidan, baiñan neri jatorrago iruditu zait (hemen behintzat) "hobe beharrez".



ren kantorea», 49 bertsutan (13); «Mundian malerusik» berriarazten, «Desertüko ihizik» bihurtzen baita; bertso polit batzuek eskatzen dizkiete Ernest Legouvé Paris'ko idazle sonatuarentzat.

1832'an, «Gaztalondo'ko prima» ateratzen du, dena izpiritu zorrotz eta mendeku-jario.

1841'ean, Udoi'en auziak eraginda, Donapaleu'ko jauntxoak laudorioz loreztatzen ditu.

Urte bereko Ekainaren (Garagarrillaren) 21'ean Sohüta'ra deitua da, «de Rouillan»'en ezteietara, ezkontza kanta polit bat emateko: «Sohüta'ko ezteietan».

## ERORTZE PENAGARRIA

Behetik gora iritxita gero, zertarako behar zuen Etxahun'ek huts izugarri batean erori?

1941'eko uztailaren 20'an, Nabarrenkoxe'ko notari baten etxera agertzen da, Joanes Ihitsar izeneko lagun batekin: honek dio Jean Topet dela, Etxahun'en anaia. Onez-onean konponketa bat firmatzen dute bi itxurazko senideek, alegia, Jean'ek Pierre bere anaia zaharrenari uzten dizkiola Topetia'ko hamasei partetatik hamahiru (14).

Zer uste zuen dohakabeak? Anaia arrunt txoroa zela, ala bera biziko zela hura baiño luzaroago? Auskalo!

---

(13) Uste dugu laister argitara emanen digula Haritxelhar jaunak poema zirrarakor hau oso-osorik. Bitartean, beronen zatiak eta frantsesez egindako azalpena irakurleak ikus dezake "Le Poète souletin Pierre Topet-Etchaun" liburu mamitsuari, 303'gn, horrialdean "Le poète de la haine et de la révolte" deitu kapituluari. Hemen dio poetak sinistu eziñeko garrazkeriaz: "Amak idor bihotza, bai eta thitia" eta gaiñeratzen du seaskan goseak marrakaz ari zen bitartean, amak etzuela bere negarraren ardurarik, Jainkoak beregana eramatea nahi zuelarik. Ez ote gehieg'txo esatea?

(14) Haritxelhar'ek honela dio bere liburuaren 212'gn, horrialdean: "Dans la matinée du 20 juillet 1841, Pierre Topet et Joannes Ihitsar charpentier, né à Barcus, domicilié à Mauleon, se sont présentés devant M<sup>s</sup> Labourdette, notaire à Navarrenx. Le premier déclare à cet officier ministériel qu'il se rend devant lui avec son frère Jean Topet troisième né, "pour terminer par une transaction leurs discussions judiciaires venues au sujet d'une demande en nullité de testament olographe d'un sieur Joseph Topet dit Etchahun leur oncle". M<sup>s</sup> Labourdette, après s'être fait représenter les pièces relatives à cette transaction projetée, établit un acte dans lequel le supposé Jean Topet reconnaît que la succession de feu Topet oncle appartiendra dans la proportion des treize seizièmes à son frère Pierre Topet aîné, et trois seizièmes à lui, Topet dernier né. L'acte est signé en présence de témoins. Par ce faux en écriture publique, Etchahun devient le maître de Topetia; il recouvre les cinq maisons dont il était né héritier. Combien Joannes Ihitsar a-t-il été payé pour se prêter à une telle escroquerie? Comment Etchahun l'a-t-il circonvenu?"



Ametsak amets, urrengo urtean Topetia'ko Jean'ek jakin zuen gertatutakoaren berri eta naia juezetara eraman.

Koblariak ba-zekien egoera txarrean zela; anka egin zuen bere sorlekutik eta Españiara ihes. Orduan joan bide zen Santiago Konpostelakora erromes; baiñan ibillaldi hontaz ez da oraindik aurkitu oroigarrik.

1843'ko maiatzean, Pabe'ko Auzitegiak erabaki zuen Nabarren-koxe'ko itxuskeriaren gora-behera: bi errudunak, ez baitziren agertu, hamarna urtetako galeretara kondenatu zituzten.

Lenen ondorena: kondenatuen ontasunak bahitzen dituzte. Etxahunia subastan emana da. Beharrik, Joseph Topet'ek 1945'eko otsaillean aitaren etxea berrerosi zuen (15).

Handik laister, Etxahun bihurtzen da berak aukeratutako desterrutik, bi urte baiño gehiago Españian egonik nekatur, edo (nortaki?) Frantzia'n ahaztua izanen dutela ustez.

Baiñan ez dute ahaztua. Jendarmeek arrapatzen dute eta 1845'eko Agorrillaren (Abuztuaren) 11'an, Pabe'ko gartzelan da.

Zazpi egunen buruan Auzitegiak du aldi. Juezen aurrera heldu da aspaldiko erromesen ezaugarri bitxiak soñean dituela: otar-txapela, manta-laburra, bastoia, kalabaza (16), txirla, errosario luzea... ez du deusen faltarik.

Auzi aldian zozoaren egiten du, bere ezinbeste ta penak tarra-pataka (17) kintatzen, oihu hemendik eta jestu handik; aditzailleak farrez, baiñan burutik jota dagoelakoan, urrikalduak.

Azkenean, hiru urteko presondegia botatzen diote juezek. Urrun da honezkero hamar urteko galeretatik!

Baiñan Etxahun'i iruditzen zaio oraindik hobeki atera ditekela. Goi-Auzitegira («Supremo»'ra) jotzen du. Zorionez, huts bat billatzen dute Pabe'n egindako auzi-paperetan: firma baten ahaztea. Eta horra auzia Mont-de-Marsan'eko Auzitegira bidali, han berriz juzga dezaten. Hazillaren (Azaroaren) 7'an Etxahun'ek Pabe'ko komedia ematen du berriz ere, ahal zuena puzturik. Ez du denbora galdu: oraingoan juezek bi urtetara laburtzen diote kastigua.

Behin hasita, zergatik ez saiatu bigarren dei bat egiten? Oraingoan ez dute hutsik arkitzen. Bi urteak (18) finkatuak gelditzen dira Abenduaren 20'an.

---

(15) Ikus birjabetze honen xehetasunak Haritxelhar'en liburuan 219'gn. horrialdetik 221'era.

(16) Testuan "kulubitxo". Hitz hau ezta-karte hiztegiek, baiñan bai "kukubitxo".

(17) Con precipitación.

(18) Testuan, hutsegitez (Lafitte'k berak aitortu zidanez), "bi ilabeteak".

1846'ko Otsaillaren 24'an Etxahun Eysses'ko presondegian sartzen dute, handik atera zela hogeitau urte igaro ta gero! Bi urte eramannen ditu hor, kontagarririk gabe.

Etxean, bitartean, batasuna ari zaio gero ta gehiago desegiten. 1847'ko Hazillaren 3'an, emazteak, norbere ontasunak salbatu nahirik, bi senar-emazteen ukantzak (ogasunak, ontasunak) legez berezirik izan ditezela lortzen du.

Abenduaren 20'an, bere kastigua azkeneraifio sufritu ondoren, Etxahun presondegitik behin betiko ateratzen da.

## HERRIZ-HERRI

Hontaz aurrera, Etxahun, erreka jota, desohoratua, erdi eskale biziko da, tristura handian.

Garindaifne'n anaia bat (Jean-Pierre) zuen baserritar, eta honek berekin hartu zuen 1848'an. Zorigaitzez, 1850'eko udara egun batez, bi anaiek asarre gorria izan zuten alkarren artean eta baserritarrek poeta kanpora bialdu zuen.

Etxahun'ek herri hartan bertan aurkitu zuen aterpe, mandio txoko bat alkilatuz. Gau batez norbait etorri omen zitzaion eraso-beharrez lapurretan egitera, eta bertsolari zaharrak begi bat galdu zuen borrokan (19). Harek zionez, Jean-Pierre'n semea, Pierre bere seme-pontekoa zen eraso ziona. Juezetara eraman zuen.

1851'ko Otsaillaren 28'an, Pabe'ko Auzitegiak ez dio Pierre izeneko illobari errurik leporatuko: osabaren fama ez doa noski onduz.

Baiñan, hain auzilari setatsua izanez, tribunaletako paperek darakuste, Etxahun maiz ibiltzen zela juezetan, bere seme-alabengandik gero ta zahartzaro-sari (20) haziagoak (ugariagoak) beharrez. Paper horiei esker jakin diteke, nola zebillen herriz-herri alderrai (21). Esate baterako, Mendikota'n, Santa-Grazi'n eta Eskiula'n aurkitzen dute, Azken leku hontara 1856'ko Abenduan heldu zen. Pierre bere seme gazteenarekin dozena erdi bat urte igaro baitzituen; ba-dirudi, horratik, lehenago etzuela bere semetzat aitortu nahi izan (22).

---

(19) Eraso honen gora-beherak xeheki emanak irakurleak ikus ditzake Haritxelhar'en liburuko 244'garren horrialdean eta gerokoetan, "Etxahun, begi bakho-txa" izeneko kapitulu zoragarrian.

(20) Pensión.

(21) Errante.

(22) Etxahun'ek dio bere "Bizitziaren khantoria"-n: "Emaztik egin zeitan jaunareki bastart". Hontaz dio Haritxelhar'ek: "N'est-il pas loisible de penser qu'Etchahun a considéré que le dernier enfant, Pierre, n'était pas de lui, qu'il était le fruit du commerce adultère d'Engrâce Pelento et de Jean Hégo-buru?"



Orain, irakurle, jakin nahiko duzu noski, Zubero'ra itzuliz gero, ea koblaka berriz hasi zenentz (23) Topet-Etxahun.

1848'an berean ondu zuen «Ahaide delezius huntan», bere bizitzaz egin duen kanturik hunkigarriena: nahigabe igaro berrien ondotik, gogo-bihotzak goratzen eta ezitzen zaizkio; halatsu gertatu zitzaion Etxegoihen'en auzia amaitu bezain laister, «Bi berset dolorusik» idatzi zuenean. Ez du horrek harriztekorik, bi abestiok alkarren antza baitute.

Gure koblaria, bizitzeko, zenbait bertso saltzen saiatuko da. Besteak beste:

— 1848'an *Hegiluz* senar-emazteen heriotzaz.

— 1849'an *Xaho* diputadu-gaiaren alde.

— 1850'ean *Renaud* diputaduaaren omenez.

— 1852'an, noski, *Idarroki olha*, artzain batzuei eskerrak emateko; *Leille*, ixtorio arrunt-xamarra.

— 1853'an Abbadie'ren sariketarako *Montebidorat joaileak* igortzen du; saria jaso etzuelako, latzak botatzen ditu *Bi bertseten egitez* (edo *Bi berset oriez*) deitu poeman.

— 1854'an *Amodio gatik* idazten du, Etxandi hiltzailleaz mendekatuz.

— 1855'ean Mgr. Lacroix, *Gure jaun apezkupia*, loreztatzen du.

— 1859'an *Barkoxeko eliza* bertso-kantan herriko erretoreari erasotzen dio, jaunen aukitiek meza-denboran atera-erazi duelako.

Comme l'enfant était né alors qu'il était en prison, le poète a pu ensuite utiliser ce fait pour accuser plus fermement sa femme avec qui il vivait en mauvaise intelligence. A partir du moment où il refusait cet enfant, Etchahun était en droit de porter cette accusation, à moins que Engrâce Pelento n'ait réellement mis au monde pendant les années où son mari était absent.

"Tout laisse croire cependant qu'aucun enfant en dehors de Pierre (le 3 novembre 1821) n'est né pendant les années 1821-1827. Nous n'en voulons pour preuve que la relation faite par le juge d'instruction devant la Chambre du Conseil du tribunal de Saint-Palais, de la période précédant le crime du 1 mai 1827. "Il paraît que durant son absence, sa femme avait eu des liaisons coupables avec Jean Hégoburu, plus particulièrement connu sous le nom de Héguiaphal. Le bruit, du moins, en était généralement répandu et Topet se retira dans ses foyers avec connaissance de ce fait et l'idée qu'il en était résulté un enfant adultérin". Le juge d'instruction ne se serait pas exprimé ainsi si un enfant adultérin né du commerce coupable d'Engrâce Pelento et de Jean Hégoburu était effectivement né pendant l'absence d'Etchahun. Il marque bien, au contraire, que le poète en était persuadé, qu'il s'était mis cette idée en tête, idée qu'il a développée dans ces poèmes et en particulier dans *Mündian malerusik*". Irakurleak ikus ditzake gai hontaz xehetasun gehiago 104-105 horrialdetan.

(23) Ote zen., hots, hasi zen ala ez.

— 1860'an *Musde Tiraz* Eskiula'ko erretoreak dizu txanda, konfesatu nahi izan eztuelako.

Emakumeak jorratuz hamar bat bertso-sail ba-dira, baiñan iñolaz ezin antzeman noiz egiñak zituen.

Haritxelhar jaunak hurbilletik eta sakon aztertu ditu Etxahun'en bertsoak, mintzairaren aldetik, musikaren aldetik, koblak ontzeko tankeraren aldetik, gaien aldetik eta abar, bertsolari xuberotarra zertan den usadioari jarraiki eta zertan norbere jario bereixiari, aditzera emanaz. Ba-da hor zer ikasi.

Hala ere, puntu batzuek gelditzen zaizkigu zalantzan. Eztakigu Etxahun nola hasi zen bertsoan: ea Barkoxe'ko zahar batzuek eskolatu ote zuten (eta zeinik), ala bere gixa hasi zen ezagunak ziren kantuei jarraituz, haien arabera bereak moldatzeko. Ez jakin ere, bat-bateko bertsolaria zenentz, aurretik deus prestatu gabe ari zitekeana, ala geldiro, astiro ari ote zen bere bertsuak lantzen eta ontzen, jendeari kantatu baiño lehen. Ba-dirudi bigarren modu hau zela harena. Bere koiñataren etxean bazkari txarra egiñik, bertsuak ez zizkion etxeoandreaki berbertan adierazi. Berak bertso batean dio, etxerakoan txakur batek ozk-egin ziola eta:

*Etxera hel eta kolpia sueñatü nian,  
Gero aldiz hoiek kopiatü nütian;  
Ohiala juran,  
Logale benintzan,  
Jaiki argi azkorrian,  
Hoién khantatzera, arrebari bortha aitzinian.*

(Etxera heldu eta zauria sendatu nuen, gero berriz, horiek kopiatu nituen, ohera joan, logale bainintzan, jaiki egun sentian, bertsuok kantatzera arrebari ate-aurrean.)

Astiro prestatu, ez da harrigarri haren bertsuak hain bildu, tinko eta beteak izatea; alperrikako hitz gutxi, luzagarri gutxiago; eta ateraldia tiroa bezala heltzen bere jo-burura.

Denek nahi izango genduke segurki, etxe-txokoetan aurki ahal ba'itez oraindik Etxahun'en hainitz eta hainitz kantagai, Haritxelhar jaunak bildutako berrogeitabiak ugaltzeko.

## AZKEN HITZ

Orain buka dezagun Etxahun'en istoria.

Pierre haren semea 1861'ean hil-eta, bertsolari zaharra Eskiula'tik joan zen eta Etxahunia'n Joseph'ek hartu zuen, azken egunak etxon-



doan pasa zitzan. 1862'ko Urtarrillaren (Ilbeltzaren) 17'an kristauki hil zen 76 urtekin (24).

Ametsetan ere etzuen pentsatzen noski, egun batez bere bertsuei eskerrak gorespen handienak izanen zituela: hasteko, 107 urteren buruan, J. Haritxelhar jaunak Unibersidadean sar-erazi du, eta Bar-koxtarrek ezin ederkiago berritu diote hillobia. Hillobiko losak Etxahun'en bertso hau dakar:

*Khantore hoiak huntü nütin Unhürritzeko olhetan,  
Erruma'rat juiten nizala erraiten beitüt' hoeitan.  
Maleruski ni hil ba'nendi bidaje lazgarri hortan.  
Ziberuan khanta-itzazie, ene orhitzapenetan.*

## ERASKIÑA HARITXELHAR'ENETIK

Etxahun'en bitzta nahasian ziñez miresgarri egiten zaigun alderdi bat aztertu nahi genduke eraskin hontan. Alegia, gure koblaria alderrai eta nora- ezean zebillelarik, haurrak eskolatuz egin zuen lan txalogarria.

Haritxelhar jaunak zuzen dion bezala, Aita Lhande'k salatu zigun Etxahun'en alderdi hau «Gure Herria»'n (25): «Nous le trouvons successivement, d'après la tradition, à Garaiby dans la maison Irigoyen, au quartier Arraltia d'Alçay dans la maison Salaberrigaña, où il compose la chanson *San Sebastianerik Alzarirat goraintzi*, enfin à Sainte-Engrâce où des vieillards se souviennent de l'avoir vu souvent, assis sur les tombes du cimetière et chantant ses vers au milieu de groupes d'enfants.»

Constantin jaun medikuak —dio Heritxelhar'ek—, beste jakin-garri batzuek utzi dizkigu hauen osagarri, Etxahun'en Santa Grazi'ko

(24) Lehendik ba-genekien Etxahun alargun zela hil zenian, baiñan Haritxelhar'ek zenbait xehetasun ematen dizkigu Engrazia Pelento'ren heriotzaz. Hորra: "1855 est l'année de l'épidémie de choléra dans le Pays Basque. Toutes les communes son frappées durement et chacune des familles paie un lourd tribut à cette terrible maladie. Les morts sont nombreux à Barcus. Le 19 mai 1855, ont lieu les obsèques de Alexis Oholéguy, le gendre du poète qui laisse une veuve et cinq enfants dont le dernier n'a même pas de deux ans. Le 2 juillet de la même année, on amène à sa dernière demeure Engrâce Pelento, dame d'Etchahun, la femme du poète". Eta geroxeago: "Il est probable qu'Etchahun est revenu à Bacus pour les enterrements de son gendre et de sa femme. Bien que séparé de celle-ci, c'est un nouveau lieu qui se relâche, c'est un pas de plus vers la solitude totale". Eta gure galdera larria da: onezkoak egin ote zituzten senar-emazteok, andrea hil-urreen zetzala? Iñork ez jakin eta mundu hontan nekez jakingo den gauza da hauxe. (259/260 horrialdeak.)

(25) 1923, 537-38 hor-aldk.



egonaldiaz, alegia. Harek, bere aittonaren abotik jaso zituen noski, hiri hortakoxe maixu baitzen aspaldi zaharrear. Bera mintzo zaigu Udaletxeari emana izan zitzaion *Dolainti* auzoko etxe batez, hark han eskolamaixu bat jartzekotan. Noiz izan zen ez adi-erazi arren, maixu bat heldu zen, Etxahun berbera. «Ez, segür gizun ederra, arropaz ere arrünxko; bena bazian eskola hein bat, aski Jesusian ariazteko eta haurrer üskaraz irakurten eta muxi bat iskribatzen erakasteko.» Etxahun eskolamaixu? Zergatik ez, irakurtzen eta idazten baldin ba'zekien? Uste izatekoa da haren erakuspidea etzitekeala irakurgaiaz goitikoa izan eta bera oso pozik geldituko zen noski haurrek beren izena firmatzen ikasten zutenean. Constantin medikuaren azalpenak Aita Lhande'narekin bat egiten du, Etxahun haur pilla batez inguratuturik, bertso kantari agertzen digunean: «Diala hogeita hamar bat urthe, bizi ziren orano zahar eli bat ohart beintzien Santa Grazin Etxahun errejent ikhususirik. Astegunez ari zen bere ofiziuari, franko arraheinki eta, igantez usuz horra zen gañeko elizalat. Etzen, hanbat, jente gehietieki khurutxatzen; meza bezperen artian, ardurenin baratzen zen, haur saldo baten erdian, Ibarrondoko erreka bazterrian, berak huntü bertset khantatzen zeien» (26).

Penagarria litzake Etxahun'en bizitzako xehetasun polit eta bihotz hungigarri hau azaldu gabe uztea, baitipat Ziberuako üskara xarmangarriaz apaindua doalarik eta gure koblakaria bere bertsoak haur txipien bitartez geroari uzten nola saiatzen zen erakusten digularik. Etxahun'ek ez ote zeraman bere baitan hillezkortasunaren egarri bizi bat? Hala ba'zen, bere gogoak aurkitu du asegarri.

Gehigarritxo honekin amaitutzat jotzen dugu Aita Lafitte'k hain iaioi laburtu digun Barkoxtar koblari sonatuaren bizitza.

Yon Etxaide.

(26) Ikus, Haritzelhar'en liburuan 260/261 horrialdeak.



# BERGARA, ERRI BILDU (1268-1968)<sup>(1)</sup>

Zazpireun urte dira aurtan, Bergara «Erri Bildu» egin zala.

Errege batek egin zuan: Gaztela'ko Errege batek, Alfonso X, ezizenez «Alfontso jakintsu» zeritzanak.

Gertakari onek galdera batzuek egiñerazten dizkigu guztioi:

a) Zer da «Erri Bildu»?

b) Nola Gaztela'ko Errege batek sortu zezakean orduan «Erri Bildu» bat Gipuzkoa'n?

Bi galdera oieci erantzunaz, itz-aspertu bat egin nai det gaur zuekin, bergarar zintzo oiekin.

## ERRI ZABAL ETA ERRI BILDU

Ikustagun ortarako lenengo zer zan Bergara, gertakari ori baño leenago, «Erri Bildu» izan baño leenago. Bai al-zan artean Bergara'rik? Uste bait-lezake norbaitek, Bergara Errege ark sortu zuala; eta, sortu ere, orduan sortu gañera... Leenago etzala Bergara'rik.

Bergara ez da iñungo Erregek sortua, Bergara Erria leendik, oso leendik —millaka urte leendik— ba'zan. Erri «banatu» zala ezik, Erri «zabal». Erregek Erri zabal orren erdian —erdi-erdian— Erri Bildu bat egin zuan. Orixe izan zan guztia.

—Zertarako, ordea?

Ori gero ikusiko degu. Erria ba'zala, eta oso aspaldidanik izan ere, *prehistoriatik*, millaka urte leenagotik, bego ori, ondo-ondo oñarriturik guztion gogoan.

## ARTZAI-ERRI, NEKAZARI-ERRI, INDUSTRI-ERRI

Zer erri-era zan, ordea, Bergara «banatu», zabal ura?

Lendabiziko millaka urte aietan ARTZAI-ERRI zan; gerotxuago, NEKAZARI-ERRI (tarte ortan egin bait-zan Erri Bildu); gaur, berri, INDUSTRI-ERRI degu batez ere; nekazaritza ta artzantza apur

---

(1) Bergara'n emandako itzaldia.

bat naastean. «Errien eboluzioa» esaten zaio ibillera orri. Eta erri guztiak izan dute «eboluzio» ori. Munduko erri guztiak, asiera-asieran, eiztari izan ondoren, gero artzai izan dira; eta gero nekazari, eta bitarte ortan industri-zale. Eta eboluzio-malla oietako bakoitzak, millaka urte iraun izan du errien bizitzan. Euskaldunok ere malla oiek ibilli izan ditugu gure bizi luzean.

«Bizi luzean» esan det; eta alaxe da, izan ere. Prehistori-zaleak diotenez, euskaldunok amabiren-bat milla urte ta geiago, daramakigu, gure lur ontan. Orain amabi milla urte ba'ziran, beraz, lur ontan euskaldunak, ba'ziran bergararrak. Ez dago emendikan urruti, Gara-gartza'ko «Leze txiki» deritzan kobea. Koba artan, oraindik-orain aztertu dira eta arkitu, orain amabi milla urteko gizonaren aztarrenak eta ondakiñak; eta, ain zuzen, an arkitu diran buru-egurretatik aterata dakigu. orduko emengo gizona, oraingoaren egitura berekoa zana. Euskalduna, beraz.

Bañan gauzak zeaztu, detallatu ditzagun apur bat. Asieran, euskaldun ura, eiztaria izan zan —etzuan artean ez abererik ezi, ez lurrikan landu, ez oialik sortu—; eta urte askotan eiztari izan ondoren, gero artzai biurtu zan —basa-abereak ezi zituan—; eta artzai iraun zuan Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n, ia orain milla urte arte; eta orain milla urte gutxi-gora-beera biurtu zan nekazari —erriberak eta landuaz— bañan oraindik askok eta askok artzai jarraitzen zutela.

Beraz, orain zazpireun urte, Bergara Erri Bildu egin zanean, Bergara artzai-erri zan; eta apur bat nekazari, nekazari egin-berri.

## NUN ETA NOLA

Bizibidez ori.

Bañan, nun eta nola egiten zuten orduko euskaldunak beren bizibide ori?

Au ere gauza jakingarria da; eta, ain zuzen, *erri bildu* ta *erri zabal* izate orrekin zer-ikusia aundia duan gauza: nun eta nola egiten zuten bizibide ori: nun eta nola bizi izaten ziran?

Nekazaritza sortu zanean, sortu zan, gizona erriberatan bizi izateko oitura. moda. Artean, gizona artzai zanean, gizonaren bizi-lekua, mendia zan. «Artzaia, mendian» Eta ori da, ain zuzen, «erri zabala» esaten degunean, esan nai deguna.

Erriberatan bizi izatea, gero etorri zan; nekazaritzarekin etorri ere. Alfontso X'ak Bergara «Erri Bildu» egin zuanean, artean nekazaritza gutxi izango zan oraindik, orain Bergara dagon leku ontan. Erribera guzti ontan, San Prudentzio'tik asi eta Plaentzia arteko inguru oietan, nekazaritza ba'zan, bañan oraindikan asi-berri; erribe-



ran etxeren batzuek izango ziran, bañan mendi-egaletan geiago, mendi-egaletan geienak, artzantzari dagozkion leku goretan.

«Etxeak» esan det; *Kortak* obeto, artzai-etxeak: Euskalerriko beste balladatan «Saletxeak», eta «Bordak», eta «Saroiak» esan oi-diranak, alegia: Bizkai-aldean, emen, *Kortak*. Erriberak oraindikan gutxi egongo ziran luberrituak; baso ta sastraka izango ziran erribera asko ta asko. Nola-nai ere, etxe banatuak, erri banatua: erderaz *tierra llana* ta *tierras esparsas* esan oi-ziranak.

## KORTAK, ERMITAK, KALTZADAK, GOIETAN

Artzai aien bizi-lekuak, «kortak» edo «saletxe» ta «borda» ta «saroiak» aipatu dizkitzet: mendietan bizi-lekuak, alegia. Bañan ez. bizi-lekuak bakarrik; baita beren gizartze-bizitzarako ta Jaungoikoa gurtzeko zituzten Elizak ere: mendietan bait-zituzten, leku goretan... orain Ermitak dauden leku goi oietan. Erriberatan etzeukaten olakorik. Dana leku goretan.

Gogoratu besterik ez daukazute, gai ontaz zuen Bergara'rentzat Historiak diotena: Alfontso X'ak Erri Bildu au sortu baño leenago, Bergararrak beren Eliza —eta beren Batzarrak egiteko Elizpea ere— mendi gore batean zutela, artzai-leku gore batean: ARITZETA'n.

Askotan pentsakizun izaten da guretzat, nola antziñako gizon aiek beren Elizak leku goietan egiten zituzten. Eta izan da gure histori-zale bat —Iturrizta— gauza orren explikagarri, Noe'ren denborako ugeldetzarra, dilubioa, aipatzen duana: ugelde-aldian urak estali ez litzazken lekuetan egiten zituztela, alegia, beren Elizak, gaur edo bigar berriz ere ugeldetzarren batean galdu etzitezzen. Explikagarri orren bearrikan gabe ederkitxo konprenditzen da Elizen egoe-ra ori, artzaiak izanik Eliza oiek egin zituztenak. Artzaiak, goian beti. Gure Ermitak goietan daude, ez dilubio-bildurrez, artzaien Elizak ziralako baizik.

Artzaiak goietan bizi ziran; eta goietan zituzten, ez beren etxe ta Elizak bakarrik; baita beren Batzar-lekuak ere. Batzar-leku oiek, ain zuzen, Ermitetako elizpeak izan oi-ziran. Eta gauza onen testigu asko ditugu baztarretan: Durango-inguruko Gerediaga —Gerediagako Ermita— Bizkaya'n, eta Azkoiti-inguruko Basarte —Basarte'ko Ermita— Gipuzkoan.

Artzai aiek goietan zituzten baita beren kirol-lekuak —deporte-lekuak ere—. Oyartzun'go mendietan, Zaldin-inguruan, antxe baitdago «Pillota-soro» deritzan leku lau ta zabala; eta berdin baita Aralar'en «Balenka-leku» deritzan beste zabaldi eder hat ere.

Eta zer-esanik ez, orduan ta beti giza-artean garrantzi aundiko dan beste zer batentzat: bideak, kaltzadak. Kaltzadak berak ere or-

duan goietan ziran, gañez-gain. Oraingo bideak —kamiñuak— erriberaz-erribera ditugu, ibaiari jarraituaz. Orduan erriberak, ixtinga ta zingira ez baziran, sastraka naasi ziran. Bideak, kaltzadak, gañez-gain.

«Kaltzada zaar aiek, goietan zear ibilli oi-zirala» diot; ez, orain bezela, ibaiari jarraituaz, dala Deba-ibaia, dala Antzuola-erreka. Bergara-inguruan bi aldetatik ziran kaltzada zaar oietakoak: bata Elgeta-aldetik, eta bestea Elosu-aldetik. Elosu-aldekoa, Keixeta-menditik zetorrena; eta Bergara eskui utzita, Deskarga'n zear Legazpia-ko mendietara zijoana, andik San Adrian'a igarotzeko; eta Elgeta-aldekoa, Eibar'tik, Intxortan zear, Bergara esker utzita Aramayo-aldera zijoana.

Bi kaltzada zuzen oien artean, ordea, beste zearkako kaltzada lokarri bat zegon, Keixeta'tik Uzarraga'n zear Bergara-lurrera jetsi, eta Ariznoa-puntua ta Deba ibaia gurutzaturik, berriro Elgeta'ra igotzen zana. Ain zuzen, zearkako kaltzada au Ariznoa'ko puntuan igarotzen zalako, aukeratu zuten orduko bergararrak Erregearekin, Ariznoa ori beren Erri Bilduarentzako leku.

Nola-nai dala, kaltzada berriro ere goietara.

Ikusten dezuten bezela, orduan dana goietan zan; goietan eta dana banatuan.

## NEKAZARITZA

Bañan ez orduan —artzai-garaian bakarrik—; baita nekazaritza sortu zanean ere. Nekazarien baserriak berak ere banatuan egin ziran: «baserri» edo «basetxe» izena bera dago esaten.

Nekazariak, Gipuzkoa'n eta Bizkai'an, beren bizi-lekuak, beren egoitzak, beren etxeak, berak landu bear dituzten soro-bazterrean egin izan dituzte beti; Gaztela-aldean ez bezela, Gaztela-aldean, dakizuten bezela, etxeak ez bait-daude, bakoitza bere soroaren bazterrean; danak moltsatuak baizik, bakoitzak lantzen duan sorotik askotan uruti. Eta berdin, baita, Araba'n eta Napar-erriberan ere. Bañan Gipuzkoan eta Bizkaia'n, ez. Gure nekazariak, beren etxeak bakoitzak bere baztarraren ondoan egin izan dituzte —orregatik esaten bait-zaio soroari «baztarra» euskeraz—. Eta orrela ditugu gure baserriak zabalduak, banatuak, mendiko artzaien kortak eta saletxeak bezela-bezelaxe.

Bildu dezagun orain gure esankizuna bere arira. Orixe da erri bat «erri banatu», «erri zabal» izatea: *baserri* izatea.

Bergara ere olaxe zan orduan... arik-eta, orain zazpireun urte Alfontso ark, «erri zabal» orren erdian, baserri orren erdi-erdian, Ariznoa zeritzan lekuan, gaurko «erri bildu», gaurko *Villa* egin edo egiñerazi zuan arte.



Baiñan ez dezagun aaztu —berriz eta berriz esanda ere— artean eta oso aspaldidanik, «erria» ba zala. Kalerik eta plazarik gabe, ezik. Orixe da guztia. Eta Errege ark aginduta egin zirala, gaur dituzuten Kale eta Plazak; eta —au ere esan bear da-ta— oiekin batean asi ziñatela, gaiñera, artean etzenituzten Lege berri batzuek izaten —*fueroak* esaten zitzaien Lege berri batzuek izaten.

## FUEROAK

*Fueroak* aipatu dizkitzudet, *foruak*. Zer fuero ziran fuero oiek?

Askotan entzuten bait-degu *fuero* izen au. Baiñan fueroak, era askotakoak dira. Guk emen aipatu ditugunak, *fueros municipales* esan oi-zaienak dira: *fueros municipales*, Erregeak, Erri Bilduren bat sortzen zutenean, erriari ematen zizkietenak, alegia.

Bai bait-da beste *Fuero* bat, *Lengo Lege Zaarra* esaten dioguna. Au, «Fuero» zan, bat bezela; aiek, «Fueroak», asko bezela.

«Fueroa», Lege Zaarra izatea, Erria bere buruaren jabe izatea da: erria *sui juris* izatea, alegia; *fuero municipalak*, ordea, erri ba-koitzak izan oi-zituan bereizkuntzak, privilegioak ziran: Erregeak emandako bereizkuntzak, bentajak... Erri bati, olako ta olako bentajak; eta beste bati, olako ta olakoak.

*Fuero municipalak*, Erregeak eman oi-zituzten. Lege Zaarraren Fueroa, ordea, Euskalerrriak iñork eman gabe, berez zuan. Iñori zor izan gabe, bere izatez, bere buruaren jabe zalako, gero ikusiko degun bezela...

*Fuero municipalak* Erregeak eman oi-zizkien, berak sortutako erri berriai; zergatik uste dezute? zertarako? Berak egindako erri berri aietara jendea crakartzeko, etorrierazteko. Bentajak eskeiñi, aalik geienak etorri zitezen, pozik etorri zitezen. Jendeak orduan ez bait-zuten berez Erri Bilduetara etorri nai izaten. Artzai-jendeak, batez ere, eta nekazariak ere berdin, etzuten etorri nai izaten. Erri bilduetan bizi ziranai, *villanos* (billanak?) esaten zitzaien orduan. Eta urrutietatik etorri oi-ziran, Erri Bildu aietara, an bizi izatera; urrutietatik; inguruetatik ez; askotan Frantzi-aldetik; orregatik esaten bait-zitzaien *frankuak*, eta aien bereizkuntza ta bentajai, berriz, *frankiziak*. Izan ere, ori esan nai du berez, adibidez, *Villafranca* izenak: «bentajadun erria»... ferriak egiteko, ganaduak eta gauzak petxarrikan pagatzen ez duten erria, alegia... Dana dala, *Fueros Municipales* ziralako oiek, ori zekarten beren artikuladorik geienean: olako ta olako bentajak, bereizkuntzak, exentzioak... Esan dizutet zertarako: jende geiago Erri Bildura erakartzeko.

Orain, beraz, ba'dakizute, zertarako eman zizkion Alfontso X'ak, zuen Bergara sortu- berriari Gazteiz'ko Fueroak.

Beste zerbait ere esan genezake, Gazteiz'ko Fuero aieri buruz. Fuero aiek, Naparroa'ko Santxo «Jakintsuk» eman zizkiola Gazteitz'i, Erri Bildu au sortu zuanean, 1181'gn. urtean, alegia; eta eman ere, ez berak sortuta, Logroño'tik artuta baizik; Logroño'k, berriz, Gaztela'ko Alfontso VI'ak emanda zeuzkala; noiz emanda uste dezute? eun urte leenago: 1095'gn. urtean; urte artan erabaki bait-zuan Gaztela'ko Errege ark, «Cid Campeador» zeritzanak, bengadizoz ondatutako Logroño ura berriro eraikitzea... Kontu zaarrak, ikusten dezutenez... 1095'gn. urtean lenengo aldiz Alfontso VI'ak Logroño'ri; andik eun urtera Naparroa'ko Santxo «Jakintsuk» Gazteitz'eri; eta andik eun urtera, Gaztela'ko Alfontso «Jakintsuk» Ber-gara'ri.

Guzti ori Erri Bilduen legediari dagokionez.

Ikustagun orain, leengo ariari jarraituaz, Erri Bilduen egiturari dagokiona.

## ERRIAK BABESTU

Erriaren egiturari dagokionez, orixe da «erri bildu» izateak dakarren izaera: Eliza baten inguruan Plaza ta Kaleak izatea; eta guzti orren inguruan ta biran, arrizko orma lodiak, nuncan-nuncan errian sartzeko ate arkudunekin, gaur oraindikan Mondrago'en dauden, eta leen «sartzaierak» esaten zitzaaien-en antzeko ate arkudunak; eta sartzaiera edo portale oien ondoan «portalondo» esaten zitzaaien torreak, arreseak, arrizko etxeak, etxarriak... erriaren defentsarako, erriaren babeserako.

Eta orrekin oraintxe erantzun diogu, lentxuago egin degun galdera arri: zertarako egiten zituzten Erregeak erri bilduak? zertarako ta zergatik? Errietako bizitza paketsuaren babeserako, defentsarako.

Gaztelerrian —eta Napar-erriberan, eta Araba'n bertan ere— erriak moltsatuak izaten dirala esan dizutet: etxeak elkarfen ondoan —dala tartean karkabakin, dala elkarri itsaasiak—. Zergatik uste dezute? Galdera au askotan egin izan diote etnologo euskaldunak beren buruari: zergatik an moltsatuak, eta emen banatuak, zaba!duak?

Eta Gaztelerriko moltsadurarentzat explikazio bezela, gerra eman oi-dute. Gerraren bildurrak moltsatzen dituala, alegia, etxeak elkarren babesera, elkarren berora. Eta ez dirudi, dana gezurra danik. Izan ere, gure mendi-arte otan ez bait-dago olako gerra-bildurrik... mendiak berak babesten gaituzte gu.

Bañan, dana-dala, utzi dezagun orain auzi au alde batera, eta jarrai dezaigun berriz ere gure ariari: «erri bilduen» gure arteko eginkizunari: erriak etsaien kontra babestea bait-zan eginkizun ori, errien pakea babestea.



Emen kanpoko etsaiengandik, mendiak babesten ginduzten; bañan kanpoko etsaiez-beste-etsairik ere sortu bait-liteke errian bertan... Eta arraixku ori izan zitekean gure artean; eta izatera ere iritxi giñan iñoiz, eta ez nola-naiko neurrian iritxi ere... Batzuek *oñeztar* eta besteak *ganboar*, erdibitu giñaneko garaiari nagoiko orain; erdibitze ark, etsaiak etxean bertan sortu bait-zizkigun guri. Eta nolako etsaiak, gañera! nolako etsai-egoera! «Txanton Piperrri» Operak ederkitxo dion bezela:

*Gizonak il-da, etxeak erre;  
gauza segururikan ez;  
alde danetan mixeriya, ta  
alde danetan negarrez...*

Oñeztar ta ganboarren arteko alako burruka batean su-emanda erre baitzuten Mondragoe'ko erri guztia —Bergaratikan ez urruti—, leentxuago Otxandiano osorik erre zuten bezela... Ez bait-zan giro-izango antxe!

Errian bertako etsai bildurgarri aien kontra babestu bearra zegon orduan erria, erri jatorra.

Jakiña da guztiontzat, «jauntxoak», «aundikiak», *Parientes Mayores* zeritzaten «aundikiak» zirala olako burruka-zaleak: elkarrekin «nor-geiagoka» beti ari-bearreko, gizon-iltzalle ta etxe —ta erri-erretzalleak.

## AHAIDE NAGUSIAK

*Parientes Mayores* zeritzaten jauntxo aiek, errietan indar-aundidun familiak ziran. Erri xumea, erri zeia, zurezko, egurrezko etxeetan bizi izaten zialarik, jauntxoak arrizko etxeetan bizi oi-ziran: «arreseetan» berak orduan esan oi-zuten bezela: arrese, arretxe, etxarrietan; edo-ta erderaz esaten zan bezela *Torre. Casa-Torreetan*. Torre goreak. Base-riak etxe zabalkoteak ziran bezela, Torreak beti ere etxe goreak izaten ziran: arrizko eskallera aldamenean; beeko ganadu ikulluaz gorago, sukalde eta gizategia, eta gorago etxekoen gelak; eta goren-gorenean almenadun koroe-moduko petrilla...

Olakoxeak ziran gizon aien etxeak. Etxe arroak. Eta olakoxea, baita gizon aien biziera ere. Biziera arroa, jende arroak. Eta arroak ziranez, elkarrekin etsaitzen errezak. Eta beren etsaigoa indartzeko, etxe batzuek besteakin elkar artzen zutenak, partidutan, alderditan alkartzen ziranak: batzuek oñeztar eta besteak ganboar... Ain zuzen ere, Euskalerrri guztiko ganboarren Nagusia bergararra bait-zan: Olaso Torreko Nagusia...



Orain bada: gorroto gogorra artu zien jauntxo-jende ark Erri Bildaui. Berai gogor-egiteko sortu oi-bait-zituzten, izan ere, Erregeak «Erri Bilduak».

Azkotia, gorroto oien testigu: Azkoitian 1456'gn. urtean gertatu zana. Gipuzkoa'ko ta Bizkaya'ko jauntxorik aundienak —aien artean, Martin Ruiz de Ganboa, bergararra, Olaso-Torreko nagusiak— desapio egin zien —eta desapioa Azkoitia'ko sartaierako atean iltzez ezarri— desapio, Gipuzkoa'ko Erri Bilduai —Erri Bildurik aundienai: Azkoitia, Azpeitia, Deba, Getaria, Motriko, Segura, Tolosa ta Villafranca'ri—: gauza baziran, bidali zituztela beren gizonik bikañenak, armaen bitartez, elkarrekin zituzten auziak odoletan garbitzeko... zerzala-ta?

Leentxuago, urte berean, Erri Bilduen arteko Hermandadearen aginduz eta Enrique IV'aren babesean, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n jauntxo aien Torre goreen goi arroak eratxiak, moztuak izan ziralako: almenak kendu, eta egurrezko telatu apalak ipiñi, alegia... Eunka ta eunka izango bait-ziran, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n, 1456'gn. urteko mozketa artan almenazko gandorrikan gabe gelditu ziran Torre gore arroak. —Ez dakigu, nola-ta-nola-ez, Bergara'ko Olaso Torrea gelditu zan, ain zuzen, moztu gabe; eta berdin baita Eibar'ko Untzeta Torrea; Olasotarrena urrengo urtean, Erregearen aginduz moztua izan zan arren...

Jauntxo aien iritziz —eta arazoi ere ba'zuten— Erri Bilduak artu zuten indarrari zor zitzaion batez ere, beren Torreen mozketa lotsagarri ura. Egiazki Erri Bilduak izan ziran, jauntxo aiei sortu zitzaizkien etsarik ermoenak eta indartsuenak, eta poliki-poliki lurjoerazi zietenak.

## ARANTZAZU

Askotan entzungo zenduten, *Patientes Mayores* oien arteko burrukak eta ixkanbillak, Arantzazu'ko Ama agertu zanean bukatu zirana: guzti ori Ama Birjiñak Gipuzkoa'ri egindako mesede aundi bat izan zala, alegia.

Bañan ezin esan ditek, urte artan ain zuzen zearo bukatu ziranik oñeztar eta gamboarren arteko ixkanbilla aiek; bañan bai, nola-nai, asko ta asko otxandu eta apaldu zirana.

## II ZATIA

### ERREGEAK

Goazen orain, nere itz-aldi onen bigarren zatira: asieran egindako bigarren galdera arri erantzutera: «Nola Gaztela'ko Errege batek sor-

tu zitzazkean Erri Bilduak Gipuzkoa'n?» Zer zuten zer-ikusi Gaztela'ko Erregeak Gipuzkoa'rekin, gauza oietarako. Gipuzkoa ez al-zan bere buruaren jabe, gauza oiek egiteko, Gaztela'ko Erregeak gauza oietan sartu gabe?

Galdera garrantzi aundi-aundikoa auxe, erantzunikan gabe uzteko.

Gipuzkoak etzuan izan iñoiz ere «bere» Erregerik. Bear zuanean eta bear zuan artarako, berak autatzen zuan, berak nai zuana: zala Naparroa'koa, zala Gaztela'koa. Berak nai zuana, berari konbeni zitzaicna; bañan konbenentzi ori, berak neurtuta, eta ez beste iñork.

«Bear zuanean, eta bear zuan artarako» esan det. Bañan, noiz ta zertarako bear du Erri batek Errege bat? noiz ta zertarako sortzen zituzten Erriak beren Erregeak? Nik gauzak asiera-asieran nola ziran esango dizutet: gauzak beren izaten nola ziran...

Nobela-antza da; bañan gure Opera «Zigor»en onela erantzun diogu guk galdera oni: gerrak beartuta erabaki zutela, alegia, naparrak beren lenengo Erregea sortzea, autatzea. Gerrak beartuta. Berdin gertatu bait-zan Ixrael'en ere.

Pakean, edo erdi-pakean bizi ziran arte, gerraren gora-beera errex egiten zan. Naikoa zan gerra suertatzen zanean —moroak an mugetan azaltzen ziranean-eta— nunean-nunean ziran Buruzagiren baten mendean «aitarren- seme» danok alkar artzea etsaiaren kontra joateko. Nunean-nuneango Buruzagiren baten mendean. Bañan etsaiak ugaritu ziranean —Tudela-aldeetik moroak bezela, Bayona-aldeetik normandarrak asi ziranean— naita-naiezkoa izan zuten naparrak, Buruzagi aietako bat, beste egiteko gabe, gerrarako autatzea. Eta uraxe izan zan Naparroa'n lenengo Errege. Ixrael'en Saul izan zan, eta gero Dabid; Naparroa'n, Santxo Gartzeiz, edo Santxo Abarka... Bi ondorio aterako ditugu guzti ontatik:

a) Asiera-asieran gerrak sortu zuala Erregean bearra baztarretan; gerrak sortuak ditugula, beraz, Erregeak. Ez dirala errege beren izatez.

b) Erregeak ez dirala zerutik etorritako izaki berezi batzuek; beren jatorriz, beste edozein batzuek bezelakoak ziralta: Saul eta Dabid bezela: artzai edo nekazari, Erriak Erregetarako autatuak, aukeratuak. Antziñako Obanos'ko Etxeko Jaunak Naparroa'ko Erregeri esan ziotena: *Nos, que cada uno somos tanto que Vos, e todos juntos más que Vos...*

## ERREGEAK, KONDEAK, JAUNAK

Bañan, dana-dala —leen ere esan dizutet-eta— Gipuzkoa'k —eta berdin baita Bizkaiak ere, eta Araba'k— etzuan iñoiz «bere» Errege-



rik izan. Eta orregatik gerrak-eta beartzen ginduztenean, gipuzkoarrok Errege-billa auzora joaten giñan, zala Naparroa'ra, zala Gaztela'ra. Bizkaitarrak beren aldetik, Rioja'ko Haro'ra jotzen zuten geienean, bañan ba'zekiten Burgos-aldean Lara'ra joaten ere, aizkenik berak ere Gaztelara bildu ziran arte. Arabarrak, zenbait Konde Jaunekin —Gaztela'ko Konde Fernán Gontzalez'ekin-da— ibilli izan ziran asieran; gero aiek ere, berak ala nairik, Gaztela'ko Erregeagana jo zuten arte... Bañan, nolanaizala, geurok ala nai-ta egiten genituan aukeratze ta autatze oiek: ortan geuron buruaren jaun ta jabe giñan.

Gauza bat jakin naiko dezute orain: nola zan, gipuzkoarrok Erregeetara jotzea, eta bizkaitar eta arabarrak, ez: arabarrak Konderen batengana. eta bizkaitarrak Haro'ko edo obeto Kameroetako Jaunarengana?

Galdera onen erantzuna, orain puntuan esan degunetik ateratzen da: Erregeak eta Kondeak eta Jaunak, gerrarako bear izaten genituan, gure lurra etsaiengandikan babesteko; eta gerrarako berdin zan Erregea nola Kondea; gerrarako indarra bear zan: indarraren bidez gure lurra babestuko zuan gizon bat billatzen genduan, gerra-egiteko opizioa zuan gizon bat; opizioa eta indarra, guda-mutillak, alegia, erderaz *hueste* esaten zitzaiona. Eta orduan artean, Jaun asko ta asko izaten zan baztarretan, opizio ortatik, gerratik bizi izaten zanik; asko ta asko, *caudillos* esaten zitzaienak, euskeraz *buruzagi*. Eta, jakiña! ortarako erri-alde bakoitzak buruzagirik indartsuena aukeratzen zuan, indartsuena eta erosoena: zala Haro'ko Jauna, zala Konde Fernán González, zala Naparroa'ko Errege Jauna.

## ERREGEAREN DOTEA

Orain beste kontu bat: buruzagi-aukeratze ori, kontratu bat izaten zala, *contrato bilateral*, bi aldetako kontratua: Ixrael'en bezela: *pugna praeliato nostrum, eta ultro serviemus tibi*: «zuk, gu gerran babestu, gidatu; eta guk, zu ondotoxo serbitu, ondotoxo pagatu».

Ain zuzen, kontratu au —bi aldedun kontratu au— ederki asko ageri da, Bizkaia'ko lenengo Jaunaren —Jaun Zuria'ren— aukeramenean. Lope Garzia de Salazar'ek dakarki ederkitxo, aukeramen au bere *Bienandanzas e fortunas* izeneko liburu galantean:

«E, tornados los vizcainos...a Guernika, oviendo su consejo...a este Don Zuria...—pues que los había ayudado, fasiendo grandes fechos darmas en esta batalla (de Padura)...—...tomáronlo por Señor, E PARTIERON CON EL los montes e los seles (*kortak*)...e diéronle heredades de las mejores...porque se sirviese dellos...e ciertos derechos de las venas que sacasen...E diéronle la justicia civil e cri-



minal...que juzgasen e executasen, e recaudasen sus derechos a costa suya...»

Troxua luze-xamarra izan da; bañan gauzak merezi zuan; ederkitxo erakusten bait-digu, nola ta zergatik izan zan Jauna-aukeratzea gerragatik, alegia, eta gerra eratzen jarraitzeko; *pues que los había ayudado, haciendo grandes fechos darmas en esta batalla* (de Padura)—; eta nola izan oi-zan Erriak Erregeri gerra-sari ematen zion pagua: *los montes e los seles*, artzantzarako mendiak eta kortak; eta berdin baita *heredades de las mejores*, nekazaritzako soloak; eta ortaz gañera, *ciertos derechos de las venas que sacasen*, Bizkaia'ko minetaitikan bizkaitarrak ateratzen zuten mineralaren *laka*, «arroako onenbestekoa», alegia.

Jaunaren dotea, Erregeren dotea izan oi-zan ori asieran; gero Errege bera, Jauna bera haliatuko zan —eta ederki asko baliatu ere— dote ori ugaritzeko; ez bait-zeukan ortarako bide txarra bere esku: gerra...

## ERREGEAK GERRA-MORROI

Gauza guzti ontan, beti ere au ikusten degu: Erregeak asiera artan etzirala, gero uste izan zuten bezela, Errien jaun ta jabe, Erriaren serbitzari baizik, Erriaren morroi baizik; eta morroi ere, gauza jakin-jakin baterako: gerrarako. Orregatik etzuan gezur aundirik esan, Bizkaia'ko Jaunarentzat arako esaunda ura esan zuanak: «Bizkaia'ko Jaunak, etziran *Bizkaiaren* jaun». Eta Bizkaia'ko Jaunak bezela berdin baita geroko Erregeak ere: jaun ez, mutil baizik, morroi serbitzari. Erriaren jaun ta jabe, Erria bera zan, Erria bera. Erregea, gaur *Ministro de la Guerra* esango gendukeana zan; besterik ez.

Bañan, bere Ministerio ortan Erregeak beren gain artzen zuten gerrari buruz ere beste zerbaite esan bearrrik ba'degu:

1. Gerra ura etzala izaten *guerra de conquista* esan oi-dana, *guerra defensiva* baizik, gure lurraren defentsarako bestetarako etzan gerra Gipuzkoa etsaiengandik babesteko, Etzala, beraz, ez Flandeta'ra, ez morerira joateko. Iñoiz morcrra joan bañan ere, etzala izan Erriak aginduta, joan nai zuan nor-berak naita baizik. Aspaldi batean joan bait-giñan Fernando Santuarekin Sevilla'ko gerrara; baita Naparroa'ko Santxo Sendorekin *Navas de Tolosa* diralakoetara ere; eta berdin baita gero ta gero, Tarifa'ra, eta Algezirasa'era, eta Baeza'ra ere; bañan beti ere nork-berak nai-ta, *volontario*, irabazian, sari-zurri.

2. Ala berean, baita, *guerra defensiva* aietan, Gipuzkoa babestera etzala etortzen Erregea, bera bakarrik bere mutillakin, here tro-paekin; an joaten giñala gu ere, erri guztietatik, «aitarren seme» esan

oi-zan bezela, danok, amasei urtetik asita irurogei urte arte, nai-ta-ez, bear zan añean.

3. Eta aizkenik, gerra-noiz-egin, etzuala Erregek erabakitzen; Erriak berak baikik; Erregerekin itz-eginda, ori bai.

Bañan jarrai dezagun aurrera. Eta ikusi dezagun beste gauza bat.

## ERREGEAK JUSTIZI-EGILLE

Bizkaia'ko lenengo Jaunaren aukera egin zaneko ipui artan esaten da beste gauzatxo bat ere, garrantzi aundi-aundikoa: «*E diéronle la justicia civil e criminal...*». Orixe izan bait-zan Erregeri gure Erriak eman zion beste egitekoa, gerraz gañera: *justicia*. —Eta, gerrarekin batean, orrek eman zien, ain zuzen, Erregeai, Erri bilduak sortzeko bide ta eskubidea.

Justizia Euskalerrian beti ere Alkatearen eskuetan egon izan zan: Euskalerriko Lege ta Oitura Zaarrean, erri bakoitzean erriko Alkatea izan da Juez. Orregatik esaten zitzaien leen Alkateari ta Erriko Agintariai, izen au: «Justizikoak».

Bañan ori, lenengo mallako justizia bait-zan. Bigarren ta irugarren mallakoa —justizi gaitza, justizi zalla, justizi aundia— Erregeren esku utzi genduan... gerra bezelaxe. Gerra ta justizia: bi gauza zail ta gorrotagarriak; orregatik Erregeren esku utziak.

## ERRI BILDUAK ZERTARAKO?

Gaztela'ko Erregeak ba'zeuzkan ortarako bere Auzitegi Nagusiak, bere Tribunal aundiak; bat beintzat *Real Consejo* zeritzana, bere inguruan —Obispoz eta Lege-gizonez osatua—; bañan batez ere Valladolid'en ots aundiko *Real Chancillería de Valladolid* zeritzana —euskaldun asko ta askok osatzen bait-zuten Auzitegi sonatu ura—; berdin bait-zeukan baita Naparroa'ko Errege Jaunak ere Iruña'n. Guzti ori, ordea, goren-goreneko justiziarako. Bañan beste edozein apelaziotarako, Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n ipiñirik zeuzkan Korregidorearen Auzitegiak, zala Bilbao'n, zala Donostia'n zala Tolosa'n, zala Azepeitian, zala Azkoitia'n.

Justiziaren eratzeak, berriz, ba'dakizute zer eskatzen duan: gutxien-gutxienez, Auzi-etxea, pleituak erabakitzeko; eta kartzelak, gaizkilleak atxillotzeko; eta Prebosteak, erabakia betetzeko; eta «amabiak» lapurrak zigortzeko... Eta guzti ori ondo egingo bada, erri seguruak bear, erri bilduak, beren arreseakin, beren Auzi-etxeakin, beren kartzelakin. Guzti ori baserri-baserrian ezin bait-liteke egin, ezin bait-zitekean egin orduan. Baserria orduan gaizkilleen beraen esku bait-zegon: aundikien esku, alegia...



Gauza berdin-berdiña esan liteke, baita gerraren aldetik ere. Gerrak, nunean-nunean —muga-inguruetan batez ere— gazteluak-eta bear ditu: gazteluak, eta bastidak, eta guardi-lekuak, guarnizioak... itz batean, Erri Bilduak.

Bi bide oiek izan ziran, beraz. Erregeai Erri Bilduak —zuen Bergara au bezelako— Erri Bilduak egiteko eskubidea eskuratu zienak. Eta orrenbestez, erantzuna dago, asieran egin degun bigarren galdera ura: «Nola Gatela'ko Errege batek izan zezakean, Gipuzkoa'n Erri Bilduak sortzeko eskubidea?» Guk berari bere esku utzitako gerraren eta justiziaren bidez.

## ERRIA JAUN-DA-JABE

Eta ontan bukatu zitekean gure itz-aspertu au, oraindik beste zerbait esan bearrik ez bagendu, Erriaren Nagusitasunari buruz, Gipuzkoa'ren bere buruaren jabetasunari buruz.

Gipuzkoa bere buruaren jabe zan —esan degu—; Erregea, morroi.

Baïan zertan ageri zan Gipuzkoa'ren Nagusitasun ori? Gipuzkoa'k nola erabiltzen zuan bere buruaren jabetasun ori?

Erantzuna errexa da, eta itz bitan esango degu: Batzar Nagusien bitartez. «Batzar Nagusiak», euskeraz; *Cortes* edo *Juntas Generales*, erderaz. Ez, ordea, edozein *Corte*: *Cortes Soberanas*, baizik; gero ta gero ere Erregeari *Se obedece, pero no se cumple* esateko eskubidea zuten Batzar Nagusiak; edo-ta Obanos'ko Etxeko Jaunak esan ziotena: *Nos, que cada uno somos tanto que Vos, y todos juntos más que Vos...*

Gipuzkoa'n —eta berdin Bizkaia'n— Batzar Nagusiak urteoro-urteoro egiten ziran: Bizkaia'n Gernika'n, eta Gipuzkoa'n —amaika egunez— urte batean erri batean, eta bestean beste batean: amabi bat erritan erreskadan... Bergara bait-zan erreskadako erri oietan bat.

Erri guztiak izan oi-zuten beren Ordezkoa (*Procuradorea*) Batzar Nagusi aietan: erri bakoitzak berak aukeratua.

Zenbait lekutan (Gatzela'n, eta Naparroa'n bertan ere bai) *Cortek* iru mallako Ordezkoz osatzen ziran: Andikiak alde batetik (la Nobleza), eta Eliz-gizonak bestetik, eta Erri xumea bestetik... Gipuzkoa'ko eta Bizkaia'ko Batzarretan, etzan izaten Erri xumea besterik, demokraziarik ederrenean...

Orixe zan, bukatzeko esan bear nizutena.

Eta orrenbestez bukatu det nere esatekoa.

Manuel LECUONA.



## AXULAR ren

# “GERO”

### ADJETIBU POSESIBOEN AZTERKETA

#### HITZ-AURREA

Agur. Gure Axular haundiaren «Gero» liburuko adjetibu posesiboak aztertzeraz nator. Axularrek gai hau nola darabilen jakin nahirik urreratu naxako. Zertan esan ere ez hontan ere Axular maixu dela.

Gai hau arakatzeko ez dut liburu osoa irakurri eta aztertu; berrogetamar orri aukeratu ditut, hain zuzen ere XII, XIII, XIV garren kapituloak. Eta honekin Axularren adjetibu posesiboak nahikoa izango dudala deritxot.

Euskerari buruz lantxo hontan euskera bateratua erabiltzen aleginduko naiz, batasun hau eginda dagon neurrian onartuaz; hortik kanpo bizkaierari elduko diot. Gramatika erei dagokionez, Axularrek bere idazkeran idatzi zuen, eta horregatik haren hitzak erabiltzeko orduan, berak bezala erabiliko ditut; beste guzian batasun bidetik joaten saiatuko naiz.

#### SARRERA

Baina, nor da Axular? Axular ezagutzen ez duen euskaldun jatorrik ez dago. Euskal literaturaren gailurrenean dadukagu euskaldunok Axular, haren liburua «Gero» delarik (berak «Guero» idatzi zuen). Urdax-en jaioa 1556 an; Urdax beste aldeko mugan dago, baina Espaini aldetik. Axular gizon honen jaioterriko baserri-etxearen izena da; haren benetako izena Pedro Daguerre eta Azpilkueta zen. Lehenengo ikasketak nun egin zituen ez dakigu; baliteke bere herriko praileekin; dena dela, geroago Salamankako Unibertsitatean aurkitu daikegu. Iruinan apaiz eginda, Donibanen igaro zituen bost bat urte; eta epaia erabagi eta argitu ondoren, Sara-ko erretore izan

zen bere eriotz ordura arte (1644). Bere garaikoen artean izen haundiko gizona zela ba dakigu.

Honen liburua danok ezagutzen dugu: «Gero», literatura aldetik euskaldun gizonik ospetsuenak goraipatu duten liburua; euskera ederra eta erakutsi bikainak, maixu-liburua benetan, eta Axular euskaldunon Ciceron. Liburu honek bost edizio izan ditu; lehenengoa Bordelen (1643) eta azkenengoa Bartzelonan (1964).

Bestalde «Gero» euskal liburuetatik zaharrenetakoa dugu. Eta penitentzi egitea geroagorako uzten dutenei buruz idatzita dago; hortik datorkio izena: «Gero» (Geroko Gero).

Lehen esan bezala, Axularren liburua maixu-lana da euskaldun guzientzat; eta honelakoak guretzat eredu bihurtzen dira. «Gero»k ere hortarako behar diren baldintasunak oso ondo betetzen ditu, bai aspalditasun aldetik eta bai originaltasun aldetik, batzuk ez dela originala esan arren Mami baliotsua du, literario forma ederra eta hizkuntza jatorra.

Bai, «Gero» maixu-lana dugu, eta gure gai hontan ere bai, adjetibu posesiboetan, alegia. Eta beharrezkoa ere ba genuen holako maixu bat, izan ere euskal idazleen artean izugarritzko nahaspila izan da gai honi buuz. Eta hola, Gipuzkoan adjetibu hauen era normala erabiltzen den bitartean, Bizkaian ia beti intensibu era erabiltzen dugu. Baina euskaldun jatorrak bi era hauek bereizten ba dakitela esan behar. Jo daigun ba Axularrengana, haren euskera oso jatorra baita.

## AZTERKETA

Plana:

NERE - NEURE  
HIRE - HEURE  
HAREN - BERE  
GURE - GEURE  
ZURE - ZEURE  
ZUEN - ZEUEN  
HAIEN - BEREN

Legea:

Orain jarritako adjetiboak adierazten duten pertsona, aditzean sartzen denean, bigarren lerrokoak erabili behar dira; sartzen ez bada, lehenengo lerrokoak. Lehenengo lerroko adjetiboak normalak baitdi-



ra; eta bigarrenekoak intensiboak, indar geiago emateko erabiltzen direnak.

Guzi hau adibideekin ikusiko dugu, pertsona bakoitzeko erak jarri eta adibideekin argituaz. Pertsona bakoitzari dagozkion adibideak bildu ditut.

## I. NERE - NEURE

«Nere» era normala dugu eta «neure» intensiboa. Axularrek «nere» eraren ordeztu «ene» darabil beti era normal bezala. Guretzako «nere» eta «nire» berdin da, eta ez ditugu bereizten.

### *Legea:*

«Nere» (nire) adjetiboak adierazten duen pertsona fraseko aditzean sartzen bada era intensiboa («neure») erabili beharko da; pertsona hori aditzean sartzen ez bada, era normala erabili behar da («nere»).

Beraz, bi gauza arakatu behar dira: posesiboak esan nahi duen pertsona, hau da, posesiboari dagokion pertsona eta aditza. Hortik atera behar zer era erabili.

### *Adibideak:*

«Ene seme, begira ezazu...» (101), or. 216.

«Ai ene urrikalkizuna...» (116), or. 240.

Bigarren adibide hontan ez dugu aditza jarri; eta alan da guziz ere, adibiderako balio duela uste dugu, izan ere hemen beste lege bat onartu behar da. Hauxe da legea; hala dio Larresorok gai hontaz mintzatzen denean: «Hildo beretik eta gutunen hasieran, jatorrago da "ene" edo "nire" adjetiboa erabiltzea, "neure" baino.» Horra hor zergatik Axularrek bi era hauetan «ene» darabilen eta ez «neure». Izan ere bi adibide hauetan, adjetiboak ez daduka zer-ikusirik aditzarekin, eta gainera ez litzake legea beteko. Jarrai daigun aurrera etsenploekin:

«Deitu zuen ene kontra denbora» (109), or. 228.

«Goiz ontzen diren fikoak, desiratzen zituen ene arimak» (115/or. 239).

Ulerbide bi hauek era normala darabilte, eta ondo erabili ere, ez batetan ez bestean «ni» ez baitda aditzean sartzen «zuen» eta «zituen». Ikus daigun orain era intensiboak nola darabilzan Axularrek:

«Ez *nazala dei neure* egunen erdian» (127/or. 258).

«Orduan *neure* hitzak *edukikuitut*, promes guztiak» (130/266).

Ondo erabilita dago oraingoan «ni» aditzean sartzen delako: edukikuitut (edukiko ditut). Eta ni eta ditut era berdinekoak dira. Bestean, «ez *nazala (ni) dei neure* egunen...».

Beste adibiderik ez dut, baina honekin argi ikusi daikegu Axularrek oso ondo darabilila «nere (ene) - neure» era.

## II. HIRE - HEURE

Era hontako adibiderik ez dut aurkitu Axularrengan, izan ere berak bigarren pertsona adierazteko «zu»ra jotzen du; beraz singularreko bigarren pertsona nola darabilen jakiteko «zure-zeure» aztertu beharko da. Haren garaian ikusiko dugu.

## III. HAREN - BERE

*Etsenploak:*

«Eta hark, frogatuak bezela, erranen deratzo baietz ezertan edukitzekoa dela, baliosa dela, *eztuela* munduan *bere* parekorik» (104/or. 222).

(Hark-*eztuela-bere*): ondo.

«Baldin merkatari batek *eman baliatz bere* semeari diru suma bat *bere* eskuko... Eta halatan tratua ikhusirik. berak *bere* buruz zerbait *irabaz lezan*» (110/or. 230).

(Merkatari batek —*baliazo*— *bere* semeari): ondo.

(Merkatari batek —*baliazo*— *bere* eskuko): ondo.

Kontestutik atera daikegunez, *bere* eskuko horrek semearen eskuko esan nahi du, eta alan da ere ondo dago, semea (sujetoa izan ez arren) aditzean (*baliazo*: balio) sartzen delako.

(Berak *bere* buruz zerbait *irabaz lezan*): ondo.

«Ordea baldin seme hark, *bere* aitaren eman hek guztiak iokoa,



ian edanean eta arloterian *gasta balitza...* ez *liazon bere* aitak aitzinarat gehiago eman eta ez fida» (110/or. 230).

(Seme hark —*bere* aitaren— *gasta balitza*): ondo.

(*Ez liazon - bere* aitak): ondo.

«Hala erraiten da ardiak ere, arratsaldean, fitetzago ianez, *bere* goizeko guti iana *erdiezten duela*» (114/or. 236).

«Beraz, gizonak ere, Iainkoak berak *bere* imajinara eta idurira hain ederki *egina denaz* gero...» (116/or. 239).

(Kasu hontan aditzaren laguntzailea bakarrik kontutan izanik eta frasea zuzen zuzen harturik esan geinke «*bere*» hori txarto dagola, izan ere gizona Iainkoak *egina* da. Bere honek Iainkoa adierazi nahi du eta Iainkoa ez da aditzean sartzen gizona *egina* da.) Baina hola hartzen badugu esaera hau, erderak eraginda egiten dugu; erderismo bat izango litzake. Bestalde, sentidu aldetik begiratuta «*bere*» behar du eta ez «*haren*»; bestela sentidurik ez luke izango; eta kristau dotrina aldetik begiratuta ere hala behar du. Izan ere euskera aldetik esaera jatorra da eta sujetoa Iainkoa izango litzake; erderaz kasu hau pasiboa da; baina euskeraz holako kasu pasiborik ez dadukagu; beraz «...*Iainkoak egina denaz* (da: *denez*) *bere* imajinara...». Oso ondo eta jatorra erabat.

«Baiña ez denbora, hura *gurea da*.» (109/or. 228): ondo.

«Denbora *prestatzen deraku* geure Jaungoikoak, utzten *deraku geure eskuko*.» (109/or. 228).

«Eta alabaiña haur *da gure* erhokeria edo itsutasuna, uste *baitugu geure* lehenekoa gaizki enplegatu...» (110/or. 229).

Pluraleko lehenengo pertsona aztertzeko oso egoki datorkigu esatera hau, izan ere esaera hontan adjetibu honen bi erak aurkitu daikeguz: «*hau da gure erhokeria*»: Gure adjetiboak gu izenordea adierazten du eta gu ez da aditzean sartzen, singularreko hirugarren pertsonan baitdago aditza. «*Uste baitugu geure lehenekoa*»: orain ere geure ageri da esaeran eta adjetibu honek gu izenordea daroa; baina oraingo hontan «*gu*» sartzen da ditzean (guk «*uste baitugu*») eta sartzen delako behar du intensiboa «*geure*», eta hala dino Axularrek. Baina ikus daiguzan oraindikan beste adibide batzuk:

«Arrazoinekin izanen gara gu ere beldur edeki *diazagun geure* Jaungoikoak ethorkizuneko denbora.» (110/or. 230).

«Guk ere *geure* denbora behar *dugu* koberatu eta erdietsi.» (114/or. 236).

«Bada haur beror egin behar *dugu* guk ere orai arratsaldean, zahartzean, *geure* egunen akhabatzean.» (114/or. 236).

«Eta halatan *da gure* Iainkoa.» (115/or. 239).

«Eta adimendura edo endelegamendura heltzen garen puntu beretik (Iainkoak) *gure* obren primizia eta lehena dasta *dezan*.» (116/or. 240).

«Bada haur beror erran ahal *dezake gure* Iaungoikoak ere. Zeren *gure* gartzetasuna bertzek ioaiten *du*.» (116/or. 241).

«Ai *gure* urrikalkizunak, galdu gara, egin *du gureak*.»

«Ai *gure* urrikalkizunak...» Hemen singularreko lehenengo pertsona aztertzerakoan esandakoa esan behar da, gutunen hasieran era normala jartzea jatorrago dela, alegia.

«...gizonak ere... iduria eman dioenari behar dio behatu, haren serbitzuan behar du bere ahala enplegatu» (116/or. 239-240).

(Gizonak —haren (iduria eman dioenaren)— behar du): ondo.

(Gizonak —bere (gizonaren)— behar du): ondo.

«...(zahartzeraiño bekhatutan egon gogo duena) ...*bere* adinik hoberenean *hil badadi*» (118/or. 244): ondo.

«Eztut uste presuna zaharrak, probetxu anhitz izanen duela *bere* zahartzean onhest, modest, pausatu eta sosegatu *izaiteaz*» (119/or. 245-246).

«Iainkoak *prometatzen dio bere* bekhatuen barkamendua noiz nahi den, zahartzean ere penitentzia egiten duenari» (121/248).

(Dio —bere (penitentzia egiten duenaren): ondo.

«*Berak du bere* buruarekin eta *bere* burua sostengantzen egiteko-rik asko... Finean zaharrak *bere* zahartasuneko eritasunekin eta arrazadurekin penitentziatzko obrarik ezin *daidike*.»

«Elefantak *bere* gazte denboran belhaunak eta gainerako bertze iunturak *zalhuitu*... *Bere* naturalezak berak hala *erakutsirik*... zutik dagoenela. *bere* loa ere *egiten du*.» (122/or. 250).

«Nahi duzu zuk har *dezan* Iainkoak *bere bestale*.» (124/or. 253).



Bere konpainian eta lorian errezibi dezan.» (124/or. 253).

«Egunak berak *du bere* buruarekin egitekorik asko... Eta adin hark *bere* denboran *egiten dituen* falten...» (124/or. 254).

«Zahartzea, sentontzea, urthe anhitzez bizitzea *bere* egitez on *da.*» (125/or. 258).

«Berak *baitu bere* dina.» (128/or. 262).

«Egun batez permititu zuen Iainkoak desegin *zezaten bere* etsaiek.» (129/or. 262).

«*Bere* likitskeriak eta lizuntasunak *zitu*en oiñetan eta *bere* finaz ere *etzen orhoitu.*» (129/or. 264).

«Hala da gizona ere *bere* gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iragan ez gero...» (129/or. 264).

Hirugarren pertsona hau aztertzeko ulerbide asko jarri dugu, baina nere lan honen ezutasunak eraginda askotan frase osoa amaitu gabe utzi behar izan dut, izan ere egokiena liburuan bertan irakurtzea da, batez ere pertsona honi dagozkion adjetiboetan uts egitea erreza data, aditzean sartzen den pertsona beste batekin nahastuaz. Dena dela, etsenplokiri argi geldituko zelakotan nago; lehenengo adibideetan azterketa txiki bat ezarri diet argitasun bezala; lehenengoak argitu ondoren ez dut geiago azterketarik jarri.

#### IV. GURE - GEURE

Ikus daigun orain Axularrek nola darabilen pluraleko lehen-pertsonari dagokion adjetiboa: gure - geure. Esaterako:

«Iragana eta ethorkizuna *eztira gure*. Ioana ioan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa *da gure.*» (102/or. 218).

(*Eztira* —gure; *da*— gure (eta ez geure)): ondo.

«Bertzea da geurok *geure* borondatez *hartzen duguna.*» (105/or. 223).

(Geure ·dugu): ondo.

#### V. ZURE - ZEURE

Esan genuen lehen «hire-heure» esateko Axularrek «zure-zeure»

erabiltzen duela. Aztertu daigun ba nola darabilen pertsona honi dagokion adjetiboak:

«Zure gero honetan, ethorkizunean presta zaitezin.» (101/or. 216).

«...urte hunetan zure gero horretara hel arterainokoan galtzen duzun denbora.» (101/or. 216).

Harritzekoa da, baina hemen Axularrek lehen esandako legea ez du betetzen; izan ere bi esaera hauetan «zeure» behar luke, eta ez «zure», bietan adjetibu hori aditzean sartzen data: zaitezin eta duzun. Axularren errua? Baliteke, gizonona omen da erratzea. Gainera Axular benetako maixu izan arren beti beti ondo jartzea ere ezin diogu eskatu. Baina beste gauza bat ere pentsa geike: behar bada Axularrek ondo jarriko zuela, baina imprimategira eramateko orduan aldatu egin ziotela, alegia, ilobak, imprimatzaileek edo besten batzuek. Ez dinogu Axularri errua kentzearren, hemen bakarrik uts egitea harritzekoa delako baino. Gauza zehatzagorik ezin geinke atera; utzi daigun ba hortan; orain arte utsik egin ez arren guk batasun bidean emandako legea Axularrek ez duela betetzen esanik.

«Hartan *zeure* arima eta arimako on guziak eta komunzki gorputzekoak ere *galtzeintutzu*.» (107/or. 226).

«Egiten *duzu zeure* baithan barrena.» (108/or. 226).

«Erabiltzen *intuzu zeure* gogoan.» (108/or. 226).

«Zer erremedio *zeure* bidearen mugaz eta ilhundu gabe *erdiesteko?*» (114/or. 235). Duzu aditzaren laguntzailea ageri da aurreragotik; beraz Zeure.

«Orhoit *zaitezi zeure* Iaungoikoaz zeure gazte denboran.» (115/or. 238).

«Zeren zuk nahi *duzu* hemendik urthe baten buruan edo geiagoren, *zeure* zahartzean ondu.» (117/or. 242).

«*Zeure* gaztetasunean Iainko horren kontra *zabiltza*.» (117/or. 242).

«Plazerei emana zarenean, *zeure* burua *penatuko duzun*.» (121/or. 249).

«Anhitz ongi eta ontasun egiten *deratzu zeure* Iaungoikoak; ...*zeure* denboran ontasunak errezibitzen *ditutzunean*.» (123/or. 251).



«Zure alderakotzat franko *da...* nolatan bada zara zu hain eskas eta hertsia, *zeure* gartzetasuna, adinik hobereña sobera etsirik, gaixtoena... eman nahi *baitiozu?*» (123/or. 251).

«*Zeure* promesen eta hitz haundien ephean eta mugan *zara.*» (126/or. 257).

«Kumpli *ezazu* bada zuk ere *zeure* hitza.» (130/or. 266).

## VI. ZUEN - ZEUEN

Pertsona hontan bi ulerbide baino ez ditut aurkitu, eta izan ere Axularrek pertsona hori baino beste batzuk geiago darabiltz. Hona hemen nere adibide biak:

«Ezin baitaidikezue. Beraz ezinari esker eta ez *zuen* borondateari.» (119/or. 247).

Adibide hontan adjetibu posesiboa ondo erabilia dagoela esan behar; esaera hontan agiriko aditzik ez digu ematen Axularrek; baina izkutuko era bat pentsa geinke, esaerari dagokion era bat, alegia, «*da*» edo «*eztuzue* (egiten)». Azkenengo era hau onartzen badugu adjetiboak era intensiboa eskatuko luke, «*Zeuen*» eta ez «*zuen*». Baina Axularrek ez digu aditzik jarri eta utzi daigun aditzik gabe eta adjetiboa era normalean. Hau utzita, orain beste ulerbide bat ikusiko dugu eta bertan intensiboa oso ondo erabilia:

«Ikhusten *baituzue zeuen* azken eguna.» (127/or. 259).

## VII. HAIEN - BEREN

Guk batasun bidean «*beren*» onartu dugu adjetibu posesiboen pluraleko hirugarren pertsona adierazteko. Baina Axularrek ez darabil «*beren*», «*bere*» baizik. Baina «*bere*» erabilia nahaspila bat sortu daiteke, singularreko hirugarren pertsonakin nahaspila. Horregatik, egoki aukeratua dagoela deritxogu «*beren*» pertsona honen adjetibu bezala, «*haien*»-en era intensibu bezala.

«Eta hala badirudi ezen purgatorioetan daudenek, *eztutela* deusez ere hanbat damu eta atsekabe izanen nola ...*bere* buruen *bere* borondatez aphur bat badere ez penatuaz.» (106/or. 224).

(*Eztutela penatuaz - bere* buruen *bere* borondatez (purgatorioetan daudenek)): ondo.

«Gizon gaixto, odol isurle, gerlati, maliziati eta enganatiek ezti-  
tuzte bere egunak erdizkatuko.» (110/or. 231).

«Batzuek bere gazte denboran, odola bero dutenean, bizitzen di-  
ra.» (111/or. 231).

«Eta handik harat, hala bere buruei ohartuez gero, itzultzen dute.»  
(111/or. 231).

(*Bere buruei ohartuez gero, itzultzen dute*): ondo.

«Zeren gatzetasunekoak (obrak) bere egitez hobeco eta ederra-  
go baitira.» (115/or. 238).

«Bere eginbidea Iainkoari zor dioten serbitzua, geroko, zahartze-  
ko ordenatzen dute.» (117/or. 241).

«Batzuek nahi dute bere gazte denboran bizi bere gogora.»  
(119/or. 246).

«Ordenantza hobea begiratzen dute erleak bere artean.» (120/or.  
248).

«Eztira bere plazerera baizen handik ilkhitzen.» (120/or. 248).

«Munduak eta mundukoek beretzat on eztadukatena, bere artean  
ikhusi nahi ez tutenena.» (124/or. 253).

«Zeren obra onen egiten hasi baiño lehen akhabatzen baitzaie  
bere bizia.» (125/or. 256).

Pertsona honi dagokion beste adibiderik ez dut bildu; baina nik  
uste jarritakoekin nahiko argi geldituko zela. Dena dela, ohar bat,  
singularreko pertsonari buruz esandakoa: pertsona honi dagozkion  
adjetiboak aztertzerakoan, onena liburuan bertan irakurtzea dela,  
beste pertsona batekin nahastea errez delako eta hemen esaera osoak  
jarri ezin daiegunzalako.

## AMAIERA

Hona hemen Axularren «Gero»ren adjetibu posesiboen azterketa  
txiki bat. Azkenean, makinatxo bat aldiz esan duguna, behin da  
berriz esan daigun, Axular benetako maixu dugula eta danontzako  
izan ere. Euskera ikasi eta landu nahi duzutenok, jo Axularrengana.  
Nire lantxo hau puntu bat zertxobait aztertzeko izan da, eta Axular  
maixu bezala ikusi dugu. Axularrengan aurkitu ez ditudan akatsak  
nere lanean izango dira. Axularrek barka daidala bere lana hain  
kanpotik aztertzea. Baina hemen bakoitzak ahal duena egiten du.  
Agur!

Karmelo AJURIA.



# PEKATU AITORTUA

(Peccato confessato)

R. Bozas-Urrutia

euskeratzaile

Giovanni Guareschi

“Mondo piccolo”

(Don Camillo)’ tik

Aoan illerik ez duten orietakoa zan D. Camilo. Eta aldi hartan, etxejabe zaharren eta neska gazte batzuen artean harako naspil zikin hura gertatu zanean, aoan illerik gabe mintzatu zan. Igande hartako mezatan, askotariko itzaldi dotore bat ematen asi zan; bañan, alako batean lctsa galdu aietako bat, ortxe, aurreneko lerroan eserita nabaitu zueneko, bere onetik atera zan osotoro. Eta, predikua etenik eta aldare Nagusiko Kristo’ren hurua, entzun ez zezan noski, zapi batez estalirik, ukabillak gerrian ipiñi zituen eta bere gisako bukaera bat eman zion sermoiari. Ain izugarriak ziran gizakotearen aotik irten-dako trumoiak, eta ain lodiak esaten zituenak, (non) dardar batean jarri (bait) zuen elizatzoko sapaia osoa.

Elekzione-egunak etorri ziran; eta, jakiña, argi ta garbi agertu zuen D. Kamilo’k, ezkertarren Burueri buruz buruan zeukan iritzia. Orregatik edo, Zorioneko illunabar batean, apeztegirako bidean zoalarik, kapa batean bildutako gizon aundi bat esi-artetik ageri ta atzealdetik urbildu zitzaion; eta, D. Kamilo, bizikletaz eta onen eldulekutik zintzilika zegoen pardeltxoaz (70 arraultz bait-zeramazkien bertan) tratatuta zegoela aprobetxaturik, makillada bat galanta ezarri zion bizkarrean. Gero, lurrak irentsita bezela, izkutatu egin zan.

Ez zion D. Kamilok gertaera hartaz ezer esan iñori. Apezteixera eldu, arrautzak beren lekuan jarri ta elizara joan zan Jesus’ekin bazarre egitera, zalantzaldi guzietan egin oi zuenez.

—Zer egin bear dut? galdetu zion.

—Ur-olio piska batekin bizkarra igurtzi eta ixillik egon, eran-tzun zion Jesus'ek aldare gainetik. Iraiñak barkatu bear dituk. Hau duk eginbidea.

—Bai egia Jauna, baiñan kasu ontan ez gera iraiñez ari, makil-kadaz baizik.

—Zer esan nai duk? —Jesus'ek eztiki— Gorputzari egindako iraiñak, izpirituari egindakoak baiño mingarriagoak ote dituk?

—Zuzen zaude Jauna; baiña, auxe da gogoan euki bear duzuna, alegia, zure ordezkari bat makillaz jotzen duena, zu zerori iraintzen zaituela; nigatik ez, zugatik asaldatzen naiz batez ere.

—Eta, ez ote nindukan ni, i aizen baiño Jainkoaren ordezkariago? Eta ez ote diat gurutzen josi nauena barkatu?

—Arrazoika egiterik ez dago zurekin. Beti azken itza zure. Egin bedi zure nai santua. Barkatu egingo dut bai. Baiñan, gogora zaitetz, baldin «horiek», nere ixiltasunaz arroxkoturik, nere kalabaza hau puskatzen ba didate, zure gainera eroriko dala errua, erantzukizuna. Testamentu Zaharreko zatitxo batzuk aipa nezazke nik...

—Don Kamilo...! nori ta neroneri etorriko atzaidak Testamentu Zaharraz mintzatzerá? Bestaldetik, datorrena datorrela, nere gain artzen dut. Baiñan, esan dezagun bien artean: ederki etorriko zaik astiñaldi hori, ea ikasten dukan nere etxean politikarik ez egiten.

Barkatu egin zuen D. Kamilok. Baiñan, zertxobait gelditu zitzaion eztarrían barrena, legatz-arantza bat bezela: bizkarra nork berotu zion jakin naia.

\* \* \*

Egunak igaro ziran. Eta, arrats batez, aitortegian zegoela, orra zer ikusten duen D. Kamilo'k: xare-zearretik: ezkertarren Buru zan Pepone'ren arpegia bera. Pepone aitortzera etorria! Nornai aboa zabal-zabalik uztekoa zan huraxe! Barrua poztu egin zitzaion D. Kamilo'ri.

—Jainkoa irekin, anaitxo! Haren bedeinkazio santuaren, iñor baiño premiagoan arkitzen aizen orrekin! Aspaldi duk aitortzen ez aizela?

—1918'tik.

—Batek zekik ba, zenbat eta zenbat pekatu egin ez ote ditukan, 28 urte auetan, buruan dauzkakén ideia polit horiek dirala kausa...

—Bai ba, mordoska bat —Peponek, suspirioka.

—Esate baterako? —Esate baterako, orain bi illebete makillatu egin zaitut.

—Larria duk hori gero! Jainkoaren ordezkari bat iraintzean, Jainkoa bera iraintzen da.



—Damaturik nago ordea! esan zuen Pepone'k —Gaiñera, zu makilkatzean, ez dizut egin ordezkaria zeralako, nere politiko-etsaia zeralako baizik. Aulaldi bat izan nuen, orratx.

—Orrezaz kanpo, eta ire partidu deabruzko hortakoa izateaz gaiñera, ba al duk beste pekatu larririk?

Zakua ustu egin zuen Pepone'k.

Trapu asko ez euki zaku hark, eta D. Kamilo'k laister biali zuen, ogeitxo bat Aitagure ta Agur Mari aginduta. Gero, Pepone petril aurrean makurtzera zoan bitartean, D. Kamilo Gurutze-azpi azpiko txokoa jarri zan belauniko.

—Jesus —esan zuen— barka nazazu, baiña zanpa-zanpa egin bear dut.

—Ezta pentsatu ere! Barkatu egian diat nik; ik ere barkatzea duk. Benetako gizon prestua duk hori.

—Jesus, ez fidatu gorriez! Guri adarra nundik joko ibiltzen dira horiek beti. Begira zaiozu haren arpegi maltzurriari.

—Beste guziena bezalakoa. D. Kamilo, bihotza mingoztuta daukak ik.

—Jesus, baldin ongi zerbitzatu ba-zaitut, egin zadazu mesede bat! Utzi zadazu kandelatxo hau haren bizkarrean austen! Zer da gero kandela bat, nere Jesus maite hori?

—Ez —erantzun zuen Jesus'ek—. Bedeinkatzeko dituk ik eskuak, ez jotzeko.

Hasperen egin zuen D. Kamilo'k. Makurtu ta txoko hartatik irten zan. Gero, aitaren egiteko aldareruntz biurtuta, bere otoitzetan murgildurik zegoen Pepone'ren atzean aurkitu zan.

—Ongi da —zinkuriñatu zuen, eskuak elkartuaz eta Jesus'i begiratu bat boteaz—; eskuak dira hedeinkatzekoak, ez ordea oiñak!

—Egia duk hori ere! esan zuen Jesus'ek aldare gaiñetik —baiñan... kontuz gero, D. Kamilo! Bat bakarrik!

Ostikoa tximista bezela atera zan. Begi-klisk bat ere egin gabe artu zuen Pepone'k. Zutitu zan gero, eta hasperen egin zuen, la-saiturik.

—Amar miñutu zan horrexen zai nengoela! esan zuen —Orain obetoxe sentitzen naiz.

—Baita ni're! —oju egin zuen D. Kamilo'k. Arin-ariñ zeukan biohotza, zerua bezin bare ta garbia.

Jesus'ek ez zuen deus ere esan. Baiñan ezagun zuen, bera ere pozik zegoela.

Madrillen, 1969-Abendua'k 25.

BOZAS-URRUTIA'TAR ERROI BA.

# INGLES MAKINA

Atzo, lantegira, olez inguratua, kartonez troxatua, haur bat bezala xatarrean ingeles mekanika heldu da. Denak bizkor eta pozik kamionean sartzen ikusi dugu, hilabete baino ez baitugu itxo egin. Frantses tramankulu baten zain etsituak giñen mota hortako baten gabez gure lana gelditzera zoan. Zaharrek zioten, urrundik tupina urrez, ondora baiko lurrez, ez ote dugu holako erosi. Tresna, tresna duzu... bainan mintza ahal baledi zer lioke: «Afrikako Mauritaniatik atera burdin-harria, Alemaniako Ruhr-etik ekarri ikatzarekin naastuz, nere altzeirua egin da. Altzeirua Bristol-eko burdin-oletan Ingeles herrian eginik izan da, bainan hurzaleak eta iyeleak italiako ziren eta me hazaleak, laminazaleak espāñol; ene gorputzaren moldazaleak Turkiako eta Alemanek egin medelean; azkenik nere motorra Ameriketarik etorriazi dute. Halere ingeles makina naiz». «Zertako ingeles zira, orduan?». «Marka ta dirua angleterrakoak baitira».

Ingeles askoren gisa makinak guti hitzegiten du, bainan lantegira ekarri digutenean itz frango esanerazi du. Nahiz paketean «Garaia», «Azpia», «Hautskor» markatua kamionean buruz beera kargatu zuten. Hamar, oihu egiten eta bost, lanean ari zirela, kakoetan txilintxan bultuaren iraitzen hasi ziren, kristala izan balitz bezala. Kartoinak eta zurrak kendurik makina berde bat agertu zitzaigun. Orain, makinak kolore hortakoak dira, ez baitute hala begia nekatzen. Forma ere pollita du, ez aintziñean bezala dena ezur iduri, bainan leun, borobil, gizonaren hainera egina. Markaren azpian «Made in England» irakurtzen da eta markaren alde gaineretik, leoin bat ageri da —ba al dakizute Zuberoako banderan ikusten den basa-eize hura bera— Marka hon makina horrentzat, gure, lantegia Zuberoako Maule hirian baitago. Marka hona naski bainan lenen poza joanik, muntatzeko zegola konturatu gira. Petri teknikoa mekanikaren planak bulegora bila joan da. Sudur apal, paper bat erakutsi digu, dena



inglesez dago eta ez billa hor milimetru, zentimetru, metru ta hola-  
korik, neurri guziak «inch», «square yard» ta «grain» dira.

—Petri, zerbait egin behar diagu?

—Ba... ba.

—Zer baba?... Goazen kolegiara. Han norbaitek ingleseztze-  
giten badakikek.

—Duela mende, ingeles izan omen gaituk, ez digute ondar asko utzi.

—Zer ondar utzi behar zuten, ingeles governor-ak euskaldunak  
ziren.

Mauleko kolegiara heltzean atezainari galdetzen diogu:

—Ingles irakasle bat ikusi liteke?

—Kolegioan *ingles* irakaslerik eztago bainan *inglesezko* bat, bai.

—Orduan ingleseztze irakasle bat ikusi genezake?

—Ez hemen ja, gaur, osteguna da eta etxean egongo da.

—Alo! makina horren gatik bazterretan kurrituz leheregintze behar  
dugu.

—Bururik eztenean hoinak eduki behar dira, bainan zer diozute  
mekanika horrekin...

—Deuse gure kontua da.

Atezaina arritua uzten dugula, profesorearen bila goaz. Haren  
etxera baiko, egoitza hartan inor ez; karrikan Xalbador Garmendia-  
rekin topa egin dugu; eta harek:

—Irakaslea, kolegioko hurrekin, Londres-era bidaietz joana da.

—Maule gainera joan baginte hirurak. Joanes han bizi da, Ame-  
riketan sortua dugu.

—Bai, Rosario-n; bainan berak kondatu didan legez, eskoletan  
denbora frange igaro du, bainan «xokoak» garbitzen, eta gainera  
espaniol Amerikan.

—Eta «Iñurri»?

Iñurri izengoitikoarekin ezagutzen dena Ameriketara egona, ipa-  
rraldean. Harek, han ingeles xixtema ez zutela erabiltzen kondatu digu.  
Egia ote? Orduan, Ixuregi-enean, liburutegian ingelera ikasteko libu-  
ruxka bat erosi dugu. Horrek hola dio:

—«Millimètre: 0,039 inch». Bainan Inch-ak zenbat milimetru  
egiten duen jakiteko zatiketak egiten hasi gira, bakoitzak emaitza  
berezia ediren dugu. Egun hartan, edo hobeki esan, gau hartan  
berandu arte kalkulatzeko egon ginen.

Biharamenean, langile guziak makinaren muntatzeko bildu genituen.

- Eta nola egin duzute?
- Geronek ingles neurriak kalkulatu.
- Biba zuek! bainan eskola daukazute?...
- Orain plana irakur dezagun!

- I. Burdin zotalen lotzea.
- II. Tornu ziriak nola sartu.
- III. Koipeztatzekoak (zuloak).
- IV. Motor saioak.
- V. Tornu saioak.

—Alajinkoa! lauetatik hamarrainoko planak non daude?

Ingleseri idatzi diegu, falta ziren planak eskatzeko eta amabost egun zain egon. Egun batean, makinaren jasotzea hilabete zuela, plan guziak eskuetaratu zitzaizkigun. Makina muntaturik, olioiz eta koipez igurtzirik, ibilerazi dugu. Hastapenean zarata berdintsua, gotorra zen, bainan tanpaz karraska handian gelditu zaigu. Ke karats batek lantegia betatzen zuelarik. Gauza askoren artean koipeari begiratu diogu «fancy» markatua zena eta hitztegiak faltsu esan nahi zuela zion. Beraz saltzen den lekuetan bitrinetan ikusten den olioizuna zen.

Handik hilabete Inglaterratik muntazale bat zortzi egunen igarotzera etorri zaiku, gelditzeak zer kausa zuen ezagutzeko; handik hilabete berriz beste bat, hautsi zatiaren ekartzeko ta makina ongi lotzeko. Artean makina frantsesa jaso dugu eta hainbeste ohoratu genuen inglesari eztiogu kasu geihago egin, gehiegi kostaturik muntatu baitugu. Gaixo ingles makina, erru gabea, hire egoera horrek gizonaren egitatea erakusten digu: «Biargin txarrandako, erremintxa onik ez», bereiziki muntatzen ez dakianean.

D. PEILLEN.





## "AZI ONAREN KARIKA ESTUA"

Sei urtetik amabi urte bitarterako neskatxoentzat zan, ikastola txiki au. Lau irakasle bakarrik zituan.

Gure aitak eraman eta jolastegian utzi ginduzenean, ze bakar-dadea! ze estutasuna! Une onetantxe, bat batean igerri nuan, lenengo aldiz, ni arrotz bat nintzala eta nerea ez zan erri batean nengoala.

Ala ere, irakasleak oso begi onez begiratzen ziguten. Gure eskola laguntxoak, danak geure inguruan ginduzen, arriturik gu, bi «errusitar, oi begira (nola zitekean errusitarra izatea?) frantzezez itzik ez geñikiun bi umeok, aiñ erraz, ikastolako ume txikienak ere itz egiten zuten izkera.

Nere aizpatxoa eta ni leku banatara eraman ginduzen, eta onek geitu zuan gure naigabe ta ezbearra.

Nere aizpatxoa, laugarren mallara eraman zuten, eta erraztasun aundiaz ikasi zuan frantzezez irakurten, beste laguntxoakin batera. Baña ni, zarragoa nintzalako, eta lendik frantzezez irakurten zerbait bai nekialako, bigarren mallara eraman ninduten. Amar urtedun nintzalarik, nere bizitza berriro aztera nijoan. Nun ziran nere Marioupol'eko ikastolan igarotako iru urte zoriontsu ayek! Nun ikas-tetxe eder aundi ura?, jolastoki maitagarri ayek?, izpillua bezela diz-diratzen zuan dantza ikastola ura?, «ikastola andre» liraiñ, aiñ apaiñ eta egoki jantziak!! Zeiñ urruti ziran nigandik gauza abek guztiak. Nik, umetxo arrotz onek, dana billatzen nuan arrotza, dana bakana; ikastola txikitxo ura, guraso antza zuten irakasle ayek, soñeko nabar eta mantal itxusidun ume ayek. Neure barruan, zearo beia jo nuala nabaitzen nuan, baña biotz miñ au, ez nuan luzaroan izan. Beriala

asi nintzan nere oraingo ikastola maitatzen, lengoa maitatu nuan bezela. Ainbeste errastasun, nere irakaslearen maitetasuna, umien niganako begiratu ona, eta nik uste ez nuan bezelako artu-eman, gauza abek zirala ta, kendu zitzaidan bildurra, ta nere barruan lasai aurkitu nintzan. Au laguntza aundia izan nuan, batez ere lenengo amabost egunetan, neretzat ain larriak izan ziran amabost egun aye-tan Nik alegiñak egiten nituan, ikasgayari jarraitu nai nioten, baiña eziñ nuan, ez nezakean izkeraren gau illuna argitu. Erruki aundia-ekin, nere irakasleak ez ziran amabost egun ayetako txartelik eman.

Ala ere illuntasun beltz onen barruan, lan sakon bat egin bear zuan nere gogoak. Adimenaren eskutapena! Nola sortzen da, baña, ezagunak eta ez ezagunak alkar ikutzea? Gogoaren zeñ basterrean, edo nungo sakonean, bizi dira izkerearen, elearen, berdintasunak? Umeak nola ikasi oi du izkera arrotz bat? Neure buruagaz ikusi ta ikasi detanetik auxe ateratzen det: Ez da ezaguera bati beste ezaguera bat geitzen diogulako, ez da ere itz berriak ikastea eta oroitzea (onela, ai ene bada! ari naiz gaur ingles elea ikasten) nere ustez, adimenaz iragarki berri bat artzen du, eta iragarki orretan daude izkerearen zerzelada guztiak sartuak, eskurrean areitza dagoan bezela. Aurrerantzean ez gaude ele arrotz baten aurrean, «geure elea» ikasten ari gera, Olerkariak olerkiaren doaia artu duan bezela, artu du umeak elearen doaia.

Neretzat, arreta sendoan igarotako amabost egun ayek, France'ko izkeraren iturri eskutua billatzea bezela izan ziran; izkera orren joskera, tankera ta gogoa ezagutu nituan. Andik aurrera beintzat, beste umeak bezin senidetasun aundia nuan izkera orrekiñ, itz berriak ez zitzaizkidan arrotzak iruditzen, eta elearen joskera ez eta ere beste umeai baño saillago edo gaitzagoa.

Bat batean eskutukio azaldu zitzaidan eta illunpea argitu. Iru-garren astetik aurrera, ikaskizunak ulertzeko aña jakintza bai nuan, baita ere nere lanak idazteko, ta ikastolako bigarren ikaslea izateko. Ez du nere oroimenak arrokeriz gorde oroipen au eta ez det arrokeriz esaten ere. Nere umearako zintzotasun eta arreta guztia lanean ipiñiak nituan, nere bizitzako neke ta gaitztasun abek garaitzeko asi nuan guda gogorrean.



Urrango illean, neu nintzan ikastolako lenengoa, urrengoan iru-  
garrena, urrengoan, lenengoa berriz ere eta andik aurrera nere ikas-  
tolan aurrena izan nintzan beti. Nere lagunen gañetik izateko bai  
nuan ordea, nik zegaitia; Errusia'n egin nituan ikastaroak. Onezaz  
gañera, umea nintzan arren, ondo nekian nere aita-amak nigaitik  
ta nere aitzatxoagaitik artu zituzten neke guztien berri; euren aberria  
utzi ta France'ra etortzea, aldi batean aita France'n eta ama Errusia'n  
egon bear izatea, nere guraso laztanak, euren guraso ta senide guz-  
tiak aĩn urruti utzitzea iñoiz-ez-iñoiz alkar ikusiko ez zutela jakiñen  
gañean; nik bai nezkian nere guraso gaxoak gugaitik igaro zituzten  
estualdiak, txirotasuna, ta erbestea, guri ikaskizunak ematearen, gu-  
retzat etorkizunaren ateak zabaltzeagaitik judeotarren gorrotorik ez  
zan erri batean. Neure erara nik ikastearren, ezer ere ez zitzayoten  
gaitz egiten, ezer ez zitzayoten asko iruditzen, ezeri ez zioten gogorra  
iristen. Neuk igerri ere baño len, bai zekiten eurak nere bizitza nun  
zegoan, nere zoriona zer izango zan. Auxegaitik, eta gañera zarrena  
nintzalako, txiki-txikitatik nai nioten ondo erantzun, eta ume umeta-  
tik nintzan, zintzo jokatzera beartua.

Raïssa MARITAIN (1).

«Les grandes Amitiés». Passage de la Bonne-Graine). Azpei-  
tia'tar Julene'k euskeratuta.

(1) Jacques Maritain, France'tar filosofo aundiaren emazte zana.



# OSABA LUIS

(ipuina edo)

Gerra iragan zenean Iturtzaetako baserria alemanen bonbek, erre zuten. Hainbeste mendetan zutik irauan zuen etxe sendo hura kiskalita zegoen oraingoan. Teilatua amildua zen eta hage erre beltz haiek penagarri erakusten ziren edonon.

Andre Patxika, bere gizona gerran hil zenez gero, Iturtzaetako jabea, trixterik zegoen lehen etxauntza haundi izandako hura honela ikustean. Ba ziren berekin bi seme, Patxi eta Betiri, zazpi eta zortzi urtetakoak, oso haur isil eta beldurtiak gerra etorri zenetik, eta baita aitona Jose zaharra ere.

Etxea deseginik txabola ilun batean gauero gordetzen ziren eta pena eta nigarra besterik ez ziren ezagutzen toki hartan, gose izugarriaz batera.

Egun batean, ordea, Peru eta Antton itzuli ziren gerratik, koartelean harmak utzita. Seme nagusiok lehen utziriko etxea erreta ikusi zutenean egiaz mindu ziren eta penatu, baina hogeitaz egun berriak direnean odolak ba du beroa eta ez du tristurak hozten bihotza.

—Peru —esan zion Anttonek—, baserria erre diaukuete eta etxerik gabe ezin bizi gaitezke; beste etxe berri bat eraiki beharko diagu.

—Eta nola, baina?

—Pentsatuta diat: Iturtzaetako etxauntza haundia duk eta behar baino hedadura zabalagoa dikek. Baso zati bat salduko diagu eta hortik jasoko ditugun diruekin etxe berria altxatuko diagu. Zer deritzak?

—Ederki baino ederkiago.



Amari eta aitonari esan zien. Amak pena zuen bere gizonaren lur zati bat saldu behar zelako, baina ba zekien ez zegoela beste erre-mediatorik etxea jasoko bazuten. Aitona Josek, ordea, muturra okertu zien. Bere hagin gabeko ahoz, gaizki aditzeko moduan, agiraka egin zien:

—Zuek, gazteok, asmo ederrez beteta zagozte, baina arinegi pentsatzen dituzue gauzak.

—Zergatik ba, aitona? —galdetu zion Anttonek.

—Esanen dauat, bai... zuek saldu nahi duzuen baso zati hori, soro hori, baliotsua dukek. Nik ba zekiat, hor, nonbait, kare harri gogorra dagoela eta hori probetxatu behar diagu aurretik. Izan lite-kek, ez nioak ukatzera, harri fin hori ateratzeko lan pixka bat egin beharra, baina merezi duk hala egitea.

—Eta nola dakizu zuk hori aitona? —galde egin zion Anttonek. Guk ez dizugu jakin ezer orain arte harri horretaz. Orain entzun dautzugu lehenbiziz honen berri.

—Noski, zuek gazteegi zarete eta ez dituzue oraino behar bezala soroak eta basoak aztertu; nik, ordea, urte gehiago diat eta guztiok ikusia nauk.

—Benetan dago kare harririk hor, aitona? —Peruk sinets ezinik.

—Bai, bai, ba diagok, nik ba zekiat non, eta ongi gainera.

—Eta non dago, zein tokitan?

—Zera... hori duk penagarriena... alemanek hainbeste bonba jaurtiki zeukutenean ez ziaten leku hura bakean eta... orain lurrez eta harri pilaz beteak diagok. Hala ere nik ba zekiat non dagoen.

Arratsalde hartan aitonak esandako tokira joan ziren. Ba zen han, agureak esan bezala, lur asko eta mendi erdi bat eroria eta urrundik ere ez zen kare harri famatu hura ikusten.

—Seguru ahal zagoz aitona?

—Bai, bai bertan diagok harria.

Antton, sinets gogor izanik, hirira joan zen biharamonean bere osaba batengana. Osaba hau oso jakituna zen eta mutilari hari galde egitea otu zitzaion. Seguru asko hark kontseilu onen bat emanen zikeon.

Osabak, bere aldetik, ba zekien, eta ondo jakin ere, bere Itur-tzaetako senideen berri. Herri osoak bala bala zerabiltzan haiekiko berriak eta hau egin behar dela eta hori egin behar lizatekeala eten gabe aipatzen ari ziren. Senide haien goseak eta teilaturik ezak biziki hunkitzen zituzten.

Antton, beraz, osabaren etxera sartu eta honela esan zion erres-peto osoaz:

—Egun on, osaba Luis. Premiak eta ez bestek ekarri narautzu

gaur zuri. Ba zekizut zuk asko dakizula eta kontseilari ona zarela, horregatik niatortzu zuregana.

Osaba Luisek begi onez eta belarri zuhurrez entzun zituen bere illoberen kontuak eta arratsaldean biak aipaturiko soro hartara abiatu ziren.

Toki hartara ailegatzean Peru arkitu zuten, pala eta haitzurra eskuan, bertan zulo handi bat egiten ziharduela.

—Arratsalde on —agurtu zituen—, ongi etorria duzuela. Zulo hau egiten ari naiz eta honetaz ohartu naiz, zera... aitonak arrazoaia zuela: ba dago kare harri bikain aztarren ugari toki honetan. Eta gainera... nik ez dakit seguru baina ikus ezazue hau, harri koxkor hauek urrea dirudite.

Eta halako urre zati ttiki ttiki batzuk erakutsi zizkien. Buztinaz eta lur zikinez lohitutako esku haietan urre zati haiek are ttikiago eta ezteusago agertzen ziren.

Osaba Luisek, hura ikustean, lur eta harri pila haiek begiratu zituen eta baita Peruk egindako putzu sakona ere eta gero esan zien:

—Bai, hori urrea duk, izan, baina baita ateratzeko lan galanta ere. Gainera ez zirudik balio handiko gauza denik eta onena saltzea lukek. Kare harria bera ere garestiegia izanen zaitzue hemendik atera behar baduzue etxea egiteko. Hobe lur hau saldu eta beste nonbait harria erosi etxe berria egin dezazuen.

—Baina osaba Luis —esan zion Peruk—, urrea diagozu, eta balio handikoa, ez duzu metal hau balio eskasekotzat hartu behar!

—Ene ustez bai, ba duk balio guttikoa eta gainera ez duk heri bakarrik... pentsa ezak etxe bat behar duzuela lehen bait lehen, aitona, ama eta beste bi anaiak gordetzeko. Lehenbizikoa etxea duk eta etxea erdiesteko lur hauek saldu behar dituzue agudo, dirua jasoko bada behintzat.

—Arrazoaia duzu osaba —esan zion Anttonek, beste anaiak, Peruri. Urre eta harri horiek sakonegi dagoz-ta.

—Nola jakin dezakegu sakon ala azalean dagoen ateratzen ez badugu?

—Denbora ez duk zertan galdu behar; pentsa ezak etxe gabe zagoztela eta hori lehenbiziko egitekoa dela. Bestalde, zer esanen luke jendeak baldin nik horko harria ateratzeko kontseilatu zaituedala baleki, deus onik atera ondoren? Ez pentsa erraza izanen denik hortik ezertxo ere ateratzea.

—Arrazoaia, bai horixe! —aipatu zuen Anttonek, osabari baietza emanaz.

—Hi, Antton —ziotson Peruk—, alfer xamarra haizela ezin uka. Agirian diagok ez duala zulgintzan astia emateko gogorik bat ere.



—Ez anafia, ez —zuzendu zion Anttonek Peruri—, ni osabarekin niagok; etxea egin behar diagu eta ez zulorik. Gainera berak guk baino gehiago zekik, esperientziak eta dituen urteek asko erakutsi zioate eta.

—Nik ere ba diakusat etxea altxatu behar dela baina oraingo lan hau etxea behar den bezala egiteko besterik ez lukek, eta gainera hauxe diotsat hiri, ez ote dira orain arte etxerik gabe aitona, ama eta anaiak? Zer bada beste urtebetean berdin egon arren? Etxea egitekotan hobe duk behar bezala egitea, gero ez gaitezen damu, arinegi egiteagatik.

Osabak azkenez hauxe esan zuen:

—Balizko olak burdinarik ez. Hobe dukezue oraintxe bertan saltzen baduzue.

Peruk: Baina... soroa saldu egin zen eta handik jasotako diru murriztekin Iturtzaetako etxe berria eraiki ere bai.

Area- harri horiska harekin oso dotore geratu zenik ezin uka. Ederki pintaturik eta oso apaina ere bai. Hala ere baserri hartako bizimodua lehen bezain premiatsua eta hestua izan zen, Euskal Herriko baserri gehienetako bizimodua bera, lan eta lan, bitzta neketsuan.

Peruk eta Anttonek, izerditan biok, haitzurri zeragoioten jo ta ke. Ondoko sorotik makina haundi haien hots izugarria entzuten zuten. Harria ugari ateratzen zen eta orobat, eta lehenbizian uste zen baino gehiago, urre gorri fin fina. Bi mutilek inbidiaz eta malenkoniak zekusaten guzti hura.

Sarri askotan, gai hura ez aipatzeko, beste gauzetaz mintzatzen ziren, pentsamentua, ordea, berdina ukan arren.

—Baionan izan haiz?

—Bai.

—Ekarri duk ezer?

—Bai, ekarri diat.

—Mila esker, pentsatzen nian tabakoa ahaztu egingen zitzaiala.

—Tabakoa? Nik ez diat horrelakorik esan. Nik zerbait ekarri diat, baina hiretzakorik bat ere.

—Nola esan duk ba «ekarri diat» eta ez didak ezer ekarri?

—Ba zekiat bekatu egiten dudala, ez baitut eskubiderik hau esateko soroa saldu genuenetik baina inork entzuten ez gaituenez gero... zera zerbait ekarri dia baina ez dauat hiri ezer ekarri esan nahi ukan dut, aditzen duk orain?

Aitona ere agertu zitzaizen handik eta berdin galde egin zion:

—Eta niri ezer ekarri ahal didazu?

—Berdin esan behar, aitona, paketea ekarri dizut, baina ez dizut ezer ekarri, zera... hauxe esan nahi dut: paketea ekarri dizut baina ez dautzut zuri ezer ekarri, zure mandatua ahaztu baitzait.

Soro hura erosi zuenak, berriz, laster ikusi zuen Peruk egindako zuloa eta baita urre xatalak ere. Ohi ez bezalako aberastasunak atera ditu hortik eta orain ere ateratzen ditu, diotenetik.

Iturtzaetakoez, berriz, mintzo moldaketa berri bat egiten saiatzen dira orain eta hau premiak bultz eginik, benetan elkar zehazki aditu ahal izateko.

—Beraz ekarri dut eta eman diat esan beharko dugu, bestela gaitz izanen da zer diogun aditzea, ez dea?

\* \* \*

Memento honetan berri txar eta triste bat ailegatu zait Iturtzaetako baserritik. Dirudienez etxe berri hura, presaka egina zela-ta, oholak eta habeak guztiz lehortu gabe zirela-ta, edo biengatik, batek jakin hori, amildua izan da, neguan elurak teilatuan pisu handiegia eginik.

Peru hil dela diote eta Anttonek, osaba Luisi erabaki hura presa gehiegiz harrarazi ziola arpegira bota ondoren, hauzokoen urremeatzan hasi da lanean, alogereko langile bezala.

Patxik eta Betirik, honez gero gazte nagusittoak, maiz galdetzen diote amari ea zergatik ez zuten Anttonek eta osaba Luisek ardura gehiago sorc hura saldu aurretik.

Andre Patxikak ez dakie zer erantzun eta nigarra dario trixterik. Eta bitartean hauzoko makina haundien hotsak Iturtzaetako etxea dardararazten du.

Eta beragana hurbildurik honela erran ziezoten: Magistrua, esplikak iezaguk zer esan nahi den parabola hori, eta berak erran zieren: Bethi erraiten drautzuet parabolaren bitartez, entzunik entzun ezterazuentzat eta ikhusririk itsu zaretentzat.

Matheu, edo Luk, edo Mark, edo Joannes edo beste halako ebanjeliolari baten arauetz, esate baterako: X.X. 4.5. edo VII. 7.

1970'gnekoko Martxoaren 31'ean.

Xabier QUINTANA.



# MAKILLA

Bulanogoeneko aitona Miel Mari'ri, semeak eguras-makilla ekarri zion. Apaña txito. Ederra. Gorosti bikañez egiña.

Gure Miel Mari ez zan asarre. Makilla bai egokia. Batez ere perira yeutxi bear zuenerako.

Bañan, akatsa laister agertu zitzaion. Makillak al zun akatsa? Aitonatxoak al zizun beste zerbait?

Beintzat, Miel Mari auzoko arotzaren etxera yoan zan. Makilla eskuan zeraman. Geitxo astintzen zun.

Atean sarturik:

—Egun on, nagusi!

—Ala ekarri!

—Lanpetua zabilta, noski!

—Ez ba, ainbeste ere! Zer berri degu?

—Semeak makilla erosi zidan...

—Auxe bai opariaren tximena.

Ikusten didatenek alaxe esaten dute. Neretzat luzetxoa...

—Ori oker ttikia degu.

—Ala uste nun.

—Moztea nai al dezu?

Nere neurrira eratuko ba'zenida...

Ta, antxe asi zan lanean. Aizkoratxoa ere arek bai zorrotza! Eta, unerik kaxkarrenetik asi zan kaskaka...

—Adiskide! Ortik ez!

—Zer diozu?

—Eskulekutik da luzeen...

—Miel mari! Zaude isilik! Alde bietatik da luze. Moztu, ordea, apaingarririk ez dun muturra moztuko dizut.

—Izan ere! Lanak egin zaizkigu! Aguretzen asi gera-ta, guztientzat gu parregarri gertatzen...

Formosa, 1969.

ETXEBERRIA, P.S.I.

# MARIBEL, Itsu

Elorrieta zanaren alarguna itsutu egin zan. Bere etxetik ezin irten. Besteren laguntzarik bere buruari ez opa. Eguneroko izatea txito goibeldu zitzaion,.. Ezin etsi. Ez ala oitua izan.

Osalaria bere etxera ekartzea obe zala iduritu, ta ari deitu zion:

—Osalaria yaun! Errukarri ni. Eguzkiaren argia nola zan aztu ere egin zait, ia! Leiotik zelaietara begira asten, eta guztia gau beltza gertatzen. Olakorik!

—Izan ere begiak ain dira eguneroko!!

—Bai, orixe!! Neri, ordea, eguna zer dan asmatzeak lanak ematen.

—Zer nai zenduke?

—Nik uste, nere begiak ikustun biurtu ditzakezula. Ainbeste ikasi eta ikusia zaitugu-ta, nere gogoia beteko didazu, noski! Lengo ikus-indarra nereganatzen ba'det, ez beldur izan, eskatzen didazun guztia emango dizut.

—Guztia gerorako utzi bear al didazu?

—Ikustun gertatzen ez ba'naiz... zure lana osiñean galdu zaizula buruan sartu zenezake. Itundu al gindezke?

—Ongi da! Al dedana gogorik aundinaz egingo dizut.

\* \* \*

Osalaria asteen iru aldiz etortzen zan. Arek alargunari alakoxe ur urdiñez begiak bustitzen zizkion. Oso maiteki iyurtzi, ziotsala:

—Andre Maribel! Betura au. berariz Paris'tik ekarria dizut.

—Alois Mari: eskarrikasko!

Lenengoan eta bigarrengean ez. Geroxeago, ordea, osalariaren begiak txoratu egin'edo ziran. Aretoan dizdizka puxkatxoak zeku-sazkin. Eta, etorri-aldi bakoitzean, arek, longain azpian zerbait eramaten.

\* \* \*

Betura urdin ua, sorgin izan, noski! Alargunaren begiak berriro ikustun izaten asi ziran. Osalariak:



—Andere omengarri! Ona: zure etxera enaiz alperrik etorri izan. Zure begiak neskaxa gaztearenak dirudite.

—Ez nengon oker! Zutaz entzun oi nitunak egi eder izan!

—Agindu zenidana gogoan dezu, noski!

—Alaxe da! Zenbait naiko zenduke?

—Ogei ta amar ontzako urrez. ozta-ozta ordainduko didazu.

—Ez da geiegi! Zillarria bildu arte itxoingo al didazu?

—Nai luke!!

\* \* \*

Ikustun berria txito arriturik zegon. Zer gertatzen zitzaion? Eguzkia len-lengoa. Illargia gauetan txito maitagarri. Izarrak beti izketan. Mendiak eze. Zelaiak musker. Zarautz'en izan zanean, itxasoa urdin eta bare: noizean-noizeango bildotx txuri gabe.

Aldameneko ibaia zikintxoago. Itsutu zanean bertan landola erakitzen asiak ziran. Ango uzkin ta simaurrak lan gaiztoa egin.

Zer arritzen zun?

Etxean zitun, berri txarrak. Aretoko puxkarik onenak izkutatu egin zitazkion. Iñon ez agiri! Zer gertatzen zan? Ohoina nor ziteken?

Maribel ezezka asi zan. Osalariari etziola arditik emango.

Orduan arek:

—Enetxo!! Bion arteko itunbena besterik da. Ez al zenidan esan eskatu ainbat emango zenidala? Orain zaputzetan! Mikeleteei esango diet. Biar bertan, iru edo lau ementxe ikusi al izango dituzu...

\* \* \*

Mikeleteak Maribel beren etxera deitu zuten:

—Zer gabiltza?

—Errua ez da nere...

—Osalariari zer agindu zenion?

—Agindu niona ez det ukatu nai. Ezik, ni ikustun makur biurtu naiz. Len, nere etxean aberastasun asko nekusazkin. Orain, aietako erdirik ezin ditut ikusi. Obeki esan, ez ditut ikusten. Arako kitar politta! Senar zanak ainbeste maite zun arrabita! Batez ere, osaba Mikel'ek Jujuy'tik ekarritako zillarrezko azpillak.

—Alois Mari'k ostu dizkizun susmoa al dezu?

—Ez dakit zer esan. Bañan, osalariak ogeita amaika eskutik egin dula agirian dago.

ETXEBERRIA, P.S.I.

# ADABAKIAK

LIZARRAGA TA MIKELESTORENA.—Idazle bakartzat aipatzen da Naparroan Lizarraga Elkanokoa bere mendean (1748-1835).

Ogei ta amazzpi urte eukozan Lizarragak, Mikelestorena lesakarra il zanean, oker ez bagagoz.

Amazortzigarren gizaldi-gizaldikoa zan Mikelestorena (1719-1785).

Ez eban argitaratu ezer Lizarragak bere denboran. Mikelestorenak bai. Bost argitaraldi daukoz *Cerura Nai Duenac* izeneko liburuak. Danak Iruñiako moldiztegiatan egiñak.

Bakartade osoan zanik Lizarraga, ezin geinke esan ba, beste barik.

Ez dogu ixildu bear Mikelestorena. Lizarraga aundiaren ondoan Mikelestorena apala. Biak naparrak eta mendekoak, Lizarraga baiño Mikelestorena zarragao bada be.

Irigaray-Aingeruk aipatu dau, Iruñiako egunkari batean argitaratu daben lan batean. Konturatu barik izango da, baiña ixiltasun aundian dago oraindik Lesakako abade aipagarria.

M.-B. A.

SEBERO ITURRINO-REN BARRI IDATZI DA EZER?—«*Marksaren Alaba*» bertso-kantaen egillea da Sebero Iturrino Motrikuarra Zenbat ere zenbat bidar argitaratu diran bertso-kantaok!

Baiña zer dakigu egillearen ganean? Nor zan Sebero Iturrino? Zer dakigu bere bizitzeari buruz?

EGAN'en irakurleren batek bai ete daki ezer? Baliteke jakitea. Pozik artuko genduke erantzuna.

M.-B. A.



ALDAZABAL.—Ez da aipatzen euskal literaturaren kondairan XVIII-gko. idazle au. Erderaz idatzi ebazan liburu bi. Euskeraz be bai beste bat. Andra-Mari Iziarkoaren bederatziturren bat da euskerazkoa. 1768-garren urtean egin zan lenengo argitaratzea, baiña onen alerik iñon gordetan danik ez dakigu. 1790-garren urteka da bigarren argitaratzea. Vinsonek emon eban onen barri. Don Antonio Arruek be badauko ale bat. Auxe da azalekoa:

A M A  
VIRGINA SANTISIMA  
Yciarcuaren Bederatzi  
urrena.

DON PEDRO JOSEPH DE  
Aldazaval, y Murguia, Debaco  
Beneficiadu, len Vicario iza  
nac, ateratzen debana  
1768 garren  
urtean.

BEARDAN BEZELA  
1790 urtean.

—  
*Tolosan:* Libruguille D. Fer  
min Huarte, eta Arlegui,  
Preceptorea.

Uts bategaz aipatze ndau Vinsonek: *Alzaval* ipini eban, *Aldazaval-en* ordez, eta ortik dator beste utsezko aipatzeen iturria. Personaje bi balitzakez lez be agertzen da leku batzuetan, eta nere ustez Vinsonegandik dator okerra.

Iruñian argitaratu ebazan Aldazabalek erderazko liburu biak, eta orregaitik aipatzen ditu Aita Goyenak bere bibliografian. Bide batez, ainbat barri emoten dauz, Debako abade txalogarri oneri buruz.

Esnaolak be ugari aipatzen dau gure idazle au *Santa Maria de Itziar* liburuan, batez be 176-garren orrialdeko oar luzean.

Irudi-adieraz, metaforaz, gudari-ezezagunen berpiztaille ari nazela edo olakoren bat esan zidan iritziemoteille batek. Egia da izan be. Gure literaturaren kondaira onak agertzen asi dira. Bide onetik asi be. Saio luzeagoak egingo dirala denbora asko barru, uste dogu. Gure idazleen arteko «Gudari-ezezagutuak» be aipamen bat bear leukee saio aundietan. Aipamen bat bai, besterik ezean. XIX-gko. gizaldiaren erdi-ingururairiñokoak beintzat. Edo gutxienez XVIII-koak ez dagitezala ixillean gelditu.

Aipatzea, eta besterik ez nauke eskatuko.

M.-B. A.

PILOTA JOKOAREN JATORRIAK.—Gaur egun ditugun periodista merkeak maiz ari zaizkigu gai honi buruz, betiko arinkeriaz, inunden astakeriarik handienak esanez, eta oraindik denbora asko ez dala irakurria dugu pilota joko Ameriketatik ekarria dala ere. Baina, danck dakigunez, pilota hain da biribila, hain neurri askotakoa, erarik ugarietan jokatuaz ezagutu da lehengo mendeetatik. Eta Egipto-ko eta Grezia-ko irudietan azaltzen zaizkigunak oso era desberdinak dire gure herrian ezagutu ditugunetatik. Inkak eta Maiak ezagutu zituzten erak ere, irudietatik begiratu behar ba gendu, hauetan ere beste era batzuk aurkituko ditugu. Eta elkarri konparatuaz hasiko ba gina, gaurko Euskal Herrikoa, Induetako Hockey dalakoarekin konparatzea bezala izango litzake. Biak pilota jokoak, baina elkarrekin zer ikusirik gabekoak. Denbora guztietan izan du herri bakoitzak bere pilota joko era. Nork nori hartu dion eta nondik nora etorri dan bila ibiltea alperrikakoa dugu. Ez bait da agiri zehatzik non noiztik edo non nolako joerak izan diren bereizteko.

Rodney Gallop-ek zionez, Euskal Herrian historia aurretik datoirena da pilota joko. Eta huntaz ematen du aski argi eta aski agiri. Gallop-ek berak zionez, euskal herri-kanta zaharretan ere oso zabaldua dala pilotaren berria. «Gure ohitura zaharrak konserba ditzagun», oso zabaldua da Lapurdin, lehengo denboretatik:

*Haurrak ikas-azue eskuaraz mintzatzen  
Ongi pilotan eta oneski dantzaten.*

Bestalde, badakigu noizbait, pilota, artzainen joko zan zela, J. M. Barandiaran eta M. Lekuonak eman dizkiguten zenbait agiriri jarraituaz. Oraindik artzaingoak jarraitzen duen leketan aurkituko ditugu zenbait toki-izen: Aralarren «Pelota soro» eta Oiartzungo Zaladin inguruan «Pillota soro», adibidez.



Baina hala ere, aitortu behar dugu, lehen dokumentu idatzia 1331-koa dugula, Euskal Herriari dagokionez. Nafarroako erregeak pilotan jokatzeko toki bat egin zutenekoa noski. Fr. Fernando de Mendoza-k Nafarroako artxiboan aurkitu zuen agiri hori. Ikusi bere berri «Euskalerrriaren alde» (1916). Beraz, 1331-an izatera, Ameriketatik ekarria ez, baizik Ameriketara eramana izan behar zuan.

Neronek ere, Eibarko Club Deportivo-ak argitaratzen duen boletinean (diciembre, 1961) eman nuen gai honi buruzko lan bat. Baina periodistak enteratu gabe geldituko dira. Enteratu gabe geldituko diran bezala L. de Ubitarte-k «La Voz de España»-n 1964-ko otsailaren 29-an argitara eman zuenaz

J. S. M.

PILOTA JOKOA ETA EUSKAL LITERATURA.—Gure literatura eskolatik irakatsi ezik, ez da harritzekoa ezer ez dugunaren usteak irauin ahal izatea. Eta gure herriko eruditoak ere uste horren menpeko bizi dirala esango nuke.

Pilotarekin ari gera, baina inori pilota egiteko asmorik gabe (erderaz, «sin hacer la pelota» edo). Honegatik, gauzak argi eta garbi jarri nahi ditugu.

Gehienok dakigunez, deporteen bibliografian maixu dugu Joxe Iguaran tolosarra. Eta 1953-an Tolosan izan zen uholdean agiri askoren galera izan ba zuen ere, bere bibliografia artxiboa oso aberatsa da. Hain zuzen, 1965-ean Banco de Tolosa-k argitaratu zuen liburuxka batean «El juego vasco de la Pelota - Autores antiguos y modernos que nos hablan de pelota» lana argitara eman zuen, pilota nolabait aipatzen zuten egileak urtez-urte zerrendan jarriaz. Ez da berriketa, Moisés-engandik hasi eta 1958-ko Lartigue-ra arte.

Zerrenda horretan, konturatzen garanez, erderaz idatzi duten Euskal Herrikoak kontuan izan ditu Iguaranek, eta inoiz euskerazkorik azaltzen ba zaigu, Iztueta edo Zaldubi bezala adibidez, ba dirudi hoin berriak ere erderazko egileengandik edo itzulpenetatik izan dituela. Honegatik, egilearen ondorean ipinten duen urtetik konturatuko gara (liburuaren titulurik ez bai du jartzen) *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira*, itzulpena dala kontuan izan duena, baina ez *Gipuzcoaco provinciaren Condaira*, 1847-an argitaratua. Eta lan honek, bere hirugarren zatiaren seigarren kapituluari pilotari buruzko gauza jakingarriak dakarzki.

Gauza beragatik ez dakar Axular, *Gero* (1643) liburuaren XLIX-gn. kapituluan pilotari buruz jardunarren. Ezta Axular baino lehen pilota aipatu zuten Etxeberri Ziburukoa eta Pouvreau, bere hiztegian honek. Iguaranek, 1853-an aipatzen du Gorosabel, baina ez urte berean *Eskaldunac* poema argitaratu zuen Hiribarren, eta «Pilota Yocoa» izenezko poema hasten du 211-garren orrialdean. Juan Antonio Mogel berak ere, 1800-ean argitaratu zuen *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean Eracasteac* liburuaren 63-garren orrialdean.

Aztertzen jarraituko ba gendu, oraindik euskerazko egileen artean askoz ere izen gehiago aurkituko genituzke pilotaren aipamena egin dutenak eta Iguaranen lerroetan ez daudenak. Penagarria, hainbeste hizkuntzetako egileak aipatzen direlarik, gure herrian bertan, eta eruditoen artean gainera, euskaldun egileak ezagunagoak ez izan beharra.

Hau ez da Iguaran personalki salatzearen, eruditoak orok baizik. Bide batez, urrengorako, hutsa osatzeko bidea ematen dugu.

J. S. M.

ZERGATIK UHIN ETA EZ UHAIN.—Bai, Uhin, Azkuek bere hiztegian hala dakarrelako. Axularrek hala erabili zuelako. Laburdin hala dalako (eta hitz hau oso berena dute lapurditarrek). Uhin, Lhandek zionez, Ziberoan erabiltzen omen da; baina Ziberoak ez du itsasorik eta Lapurdik bai. Beraz, itsas gauzetan, Lapurdirik amor emango nioke, beti ere, eta ez Ziberoari. Bestalde, gure literaturaren klasikoak ba dira nor, eta hiztegiarik hoberena ere ba da zer.

Mitxelena berak, euskera idatziaren batasunerako —behar bada errazoi horiek kontuan harturik—, *Uhin* hautatu zuen. Hau ere bada zerbahit.

J. S. M.

GAZTERIA.—*Gazteria* gaizki dagoela, oraintsu esan digute euskerazko aldizkari batean. *Gaztedi* behar duela izan, esaten digute.

Gauza askok, nondik begiratzen den, hala ikusi. *Gaztedi* bai eta *Gazteria* ez? Bueno, ba, bai: *Gaztedi*, euzkotarrentzat; eta, *Gazteria*, euskaldunontzat. Eta, kitted!

J. S. M.



UGALDE, AMA GAXO DAGO.—Martin Ugalde adiskidea: oraintsu, «La Voz de España»-ren Correo de las Letras sailean (1970-XII-6-koa) dei antzerako bat izan duzu, zure *Las tres caras de Dios*-i aipamena egitean. Erderaz anitz ederrik emateko gauza omen zara, eta bildur dira gure inguruan galduko ote zaran. Erderazko literatoak beti pentsatu dute euskeraz ez dala posible ezer interesanterik ematea. Guk, erderazko idazlerik, euskeratik erderara ondo itzultzeko gauza direnak anitz nahi genituzke, ilunpean dauden (gure artean bakarrik daudelako) lan interesante asko behar bezala itzuli ahal izateko. Orduan konturako lirake euskerazko literatura non dagoen, orduan konturatuko herbestetan hemengo gauzak erderaz ematen dituzteen erdal-idazleetatik aparte ere ba dala zerbahit merezigarri.

Zuk behintzat, hartu duzun bidetik, gauza on asko eskaini ahal duzula iduritzen zaigu. Erdal literaturak zerbahit galduko luke behar bada, baina euskal literaturak ez du ezer galduko. Eta, guk, euskal literatura nahi dugu, herria, Euskal Herria, bere nortasun osoan gordeko ba dugu.

Ez ahaztu antzerki hari eman zenion izenburuakin: *Ama gaxo dago*. Eta lamien deieri ez jaramonik egin.

Erderaz euskeraren alde esaten diren hitzak, gehienetan hitz hutak. Guk exenploa eman bear dugu, Martin.

«Ama gaxo dago». Euskerazko osagarriak behar ditu. Erderazko hiletarik ez.

Juan SAN MARTIN.

PIARRES LAFITTE LUHOSOARRA.—Fitxak erabilten ditugunori, inoiz, sorginkeriak gertatzen zaizkigu. Nork daki nondik, beti sartzen zaigu fitxeroaren morroilo-zilotik sorginen bat, behar ez diren nahasketak sortzeko. Baina siniskerien kontra «ez zeok hamairurik» esanez behin baino gehiagotan altxatu geranok, ezin bota sorgineri errurik. Maiz, konturatu gabe, norberaren buruak oker jokatu dигulako.

Beraz, hau izan da Piarres Lafitte idazle euskalariarekin gertatu zaidana. Nahiago nuen sorginen bati kulpa bota, baina supertizioak ontzat ez ditudala hartzen zenbait neronek aitortu dudanez gero, ez

dut beste erremediorik eta nere buruari bota behar erru guziak.

Lerro hauen bidez, hainbeste aldiz besteeri adabakiak egiten jardun naizen sail honetan, nere hutsa ere publikoki aitortzen dut. Hau da, lehen aldiz *Escritores euskéricos* (1968) kataloguan eta gero *Hegatsez* (1971) izeneko hitz-lauzko bilduman, bietan, Lafitte jauna Frantziako Louhois-en sortua zala jarri nuen, eta ez da horrela. Oker hori zuzentzeko esan beharrean naiz, Piarres Lafitte Ithurrealde jauna Lapurdiko Luhosokoa dala.

Frantziako Louhois-koak ez dute asko sentitu hain gizon ohortsua beren herrikoa ez izateaz, zeren izen hortako herririk ez bait da. Luhosokoei barka eskatzen diet. Eurokin batean, nik ere nahiago nuen gizon handi hau gureagoa izatea, eta hala dala erabakitzea pozgarri zait.

J. S. M.





# KANTUZ ETA ITXAROPENEZ

---

ondo gogoratzen naz  
orain  
larrialdi onetan  
jaioterri lurralde baztarreko  
mendiakaz.

mendi aundiak.  
aundi-aundiak dira.  
karatx-arrizkoak.  
urdiñak.  
urdiñabar zuri-zuriak.  
zidar-kolorezkoak eguzkitan.

ez,  
ez jataz  
aztuko.  
sekula be ez jataz aztuko,  
bizi  
nazen  
artean  
beintzat.

odei

barik

eta

garbi-garbi

ikustea

gura

nik

zerua,

eta

lainoz

beterik

dagoz

goiak

gaur

goizean.

kanpantorre

bat

neretzako

basoko

aritz-tantai

bakoitza.

kanpai-bako

aritz-tantai-kanpantorreak

txori-kantuz

beteta.

ixiltasun

osoan,

ixiltasun

ikaragarrian,

martirien

odol

eta

oiñazetako

sinfonia.

lainu

baltzaren

begiak

itxi

eta

entzungo

dot

negar

au.



suak artu dau  
etxeaurreko  
aritz.

larregi berotu dautzo  
erdiko adar nagusia  
eta  
igertzen asi da.

odol-kolorea  
artu dau.

martirien odol-kolorea.

udabarria danik  
ezin-lei esan  
zugatz gazte au ikusita.

berrogei kurutze dira  
kanposantu barrian.

berrogei ziran. berrogei.

berrogei gizon-gazte  
jausi ziranak.  
kanposantu barriko  
zulora.

ez zan udabarria. ez zan udia. ez da udagoiena be.

etorrita egozan mendietara edurrak

urez beteta kanposantu barriko zulo sakonak

argi bako arratsaldea zan.

tirokaden suak bakarrik egin eben negargarrizko argitasuna.

euria eta edurra. eta berrogei gizon-gazteen odola  
kanposantu barrian,  
neguko gau baltz-baltzean.

berrogei kurutze dira  
kanposantu barrian.

.....  
(kitarrazko  
soiñu barriak  
erriko enparantza zarrían  
erriko jaietan  
gaurko gauberdian).

ez dabee kantetan gaur  
auzoko umeak.

arritzekoa da. arritzeko,  
olgetan ez ikustea  
auzoko txikiak.

nun da eguzkia?

zer gertatu da gaur  
umeen artean?

danak ixilik  
eta  
geldirik umiak.

bizitza bako  
berbaen  
kanposantua?  
kolore bako zerua?  
baltz-utsezko itxasoa?  
nundik eta nora ete-noa!?

aurrera egaz,  
txoriak.

negar ta barre,  
umiak.

idatzi-guran  
nere  
euskaldun-lumiak.

MARKUE.



# OLERKIAK

eri  
deri  
der  
derio  
derrio  
derri  
derion  
der  
derrigorrean  
sartu beharra

gogorra  
legorra  
negarra  
dalako  
gezurra  
ren egurra

egia  
eguna  
argia  
gizatasuna

zuek  
kantatzen duzutena

kantuak

gorriz  
berotzen  
bihotza

egiak

argiz  
piztutzen  
begia

eman zenduten hitzak  
aurkitzen du hor  
oihartzuna

nausikeriaren musua

motza  
heriotza  
lotsa beltza

bere legea

gezurra  
makurra  
lapurra

zetaren leguntasuna,  
altzairuaren

zorrotz

hotza

duela ondoko.

pakearen izenean  
kateak itzalean;

kateen dandaia  
zigorraren pikoan  
anaiaren hiletan jotzeko.

morala  
mendekoen hil-oihala.

mendekoen legea  
indartsuen jostaillua;  
goikoen zigorra  
behekoen kaiolatzeko.

zergatik bestela  
hainbat txoriek  
gure herritan  
ixilean  
komon zulotan  
dute kantatzen...?

HARZABAL.





«Euskalerriko jaki gozoak dastatzen ditugunean, euskaldunen izkuntza zar-berezia ulerterrezagoa iruditzen zaigu».—Dionisio Pérez («Post-Thebussem»).

\* \* \*

Vaticano'ko Bigarren Kontzilioa bukatu ta andik laister, San Pedrok eta Goierriko baserritar batek, Zeruko ateetan, elkarrizketa au izan zuten.

—Egun on. Bedorri izango da San Pedro?

—Bai. Zer gertatzen zaizu?

—Orain ordulaurdentxo bat, etxeko idi aundiak berealdiko ostikoa eman eta il egin nau. Ta emen nator Zeruan baotedagon neretzat tokirik edo...

—Izena nola dezu?

—Bedorrek bezala: Pello.

—Nongoa zaitugu?

—Gipuzkoarra naiz. Goierrikoa.

—Zenbat urte dituzu?

—Berrogei.

—Elizakoak artu al dituzu?

—Ez, jauna. Esan diot bat-batean il naizela, ta ez det ezertarako betarik izan.

—Ezkondua al zera?

—Ez, jauna.

—Orduan mutil zarra zaitugu?

—Bai, jauna.

—Ze, emakumeak gustatzen ez ala?

—Ez geiegi. Emakumeak asko gustatzen baidute. Ta agindu ere bai.

—Eliza'ren mandamentuak betetzen al ziñun?

—Bai, jauna.

—Guziak?

—Bai, jauna; guziak.

—Seigarrena ere bai?

—Bai, jauna.

—Ta zazpigarrena?

—Baita.

—Baita?

—Baita.

—Jan-kontuetan, nola ibilli gera?

—Ni ez naiz egundaño jalea izan.

—Zeintzuk ziran zure jaki arruntak?

—Azak eta babak, patatak, sardiña zarrak, arraultz bat edo beste...

—Zenbat bider jan dituzu angulak?

—Beiñere ez.

—Ta izokia?

—Izokia? Ori zer da?

—Ta edan, asko egiten al zendun?

—Ez, jauna. Ta beti ura bakarrik.

—Ura bakarrik?

—Bai, jauna; ura bakarrik.

—Ardorik ez dezu iñoiz edan?

—Bein edo bein soldaduskan nintzala bai, baño gaiñontzean sekulan ere ez.

—Ta, tabakorik erretzen al zendun?

—Ez, jauna.

—Ederra kontua!

Ta San Pedrok, burua azkatuaz, idiki zuan liburu aundi bat eta berari begiralditxo bat eman ondoren, esan zion Goierriko base-rritar mutilzarrari:



—Barkatu, Pello, baña..., emen zuretzat tokirik ez dadukagu. Zeruko bide au utzi ta or beera Linbora-edo dijoan ori artu bear-ko dezu...

\* \* \*

Ona emen, *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* sukalde liburuaren egille *Julene Azpeitia* euskal-idazle ezagunak, Eguberritako jan-edanez buruz, eta gure atal ontarako, gertu duan lantxo ernagarri bat.

«Don A. A. jaunak, Bilbaon, Euskaltzaindiko batzar batean alkar ikusi genduan, galdetu zidan ea Euskal-Errian, antziñako denboretan, Gabon gabea, apari berarizkoren bat egiteko oiturarik izan ote zen. Eta apari ori nolakoa ote zen, nekian.

Galdera aueri uste det erantzun neikeala, apalki bedere.

Nere errian —ni zumaiarra naiz— ba da esaera zaar bat, asko erabiltzen dana. Aita San Pedro, Aita San Telmo, Gabon gaba ta abar egun ospetsuetako bazkaria edo aparia adierazteko. Esate bate-rako, Eguerri egunean, kalean, andre bik alkar billatzean, bata bes-teakin onela mintzatuko ziran:

—Iñasi, zer moduz, bart arratseko Gabon aparia?

—Ondo, Martiña. Egunari berea eman genion, bai apariakin eta bai kantakin. Errosarioa, berriz, apari aurretik errezatu gendun, gaztaiñak erretzen ari giñala, ta amarretarako oeratu giñan.

—Geu ere ordu orretantxe joan giñan oera. Umeak su ondoan, loak artuta ikusteak ez dit onik egiten, eta gure Joxe Manuel'eri ez, eta zuk esan dezuna, egunari berea eman ezker, zer bear degu bada geiago?

*Egunari berea ematea*, Gabon gabea apari berarizko bat egitea izaten zan, noski. Beste jaietan egiten ez zana, Gabon gabea bakarrik, alegia.

Ara emen, apari onetako jaki zerrenda —erderazko menú— nolakoa zen, nere errian beintzat.

*«Aza-olioak pil-pil  
Bixigua zirt-zart  
Gaztaiña erriak pin-pan!  
Aia goxo-goxo, epel-epel.»*

Gipuzkoan bada beste esaera bat ere aiari dagokiona. Auxe: Aia dala munduko erririk gozoena.

Bizkaian ikasia det bertako Gabon abesti au:

*«Gabon gabian  
Oituten dogu  
Guztiok apari ona;  
Bixigu, lebatz,  
Makallau saltsa;  
Bakotxak berak al dauna.»*

Eta beste, danok dakigun, abesti eder, onela asten dan au:

*«Ator, ator, mutil, etxera,  
Gaztaiña erriak jatera,  
Gabon gaba ospatuzera...»*

Abesti auetan ikusten denez, Bizkaian ere, Gabon aparian, bixigua ta gaztaiña erreak sartzen ziran antziñan, eta gaur ere Gabon aparian, bixigua ordezkorik gabekoa da. Galdetu ea, etxekoandreeri, arrai orrek, Gabon bezperan eta Gabon egunean ze dirutzak balio dituan. Baiña, egunari berea emateko noski, danok erosi oi degu.

Egunari berea emateko apal ondoan abesti eder asko kantatzen dira. Ara bat:

*«Etxetxo txiki onetan jotzen det atea,  
Ireki al baleza amandre neurea;  
Atez, atez, zure billa nabil ni.  
Atoz, guazen, adora dezagun  
Belenen jaió dan aur eder ori.»*

Orain, Gabon gabeko apari berarizko ori nola prestatzen dan esan ber det.

*Aza-olioak pil-pil* nola egiten diran esan bearrik ez dago. Pil-pil itzak berak adierazten dute; irakiten *gilgi ta galg* ez duala jardun bear aza lapikoan, poliki-poliki, emeki-emeki baizik.

Aza mota ona ba da —eta orain aza klase ederrak egiten dira gure errietako baratzetan— ez du ura aidatu bearrik, eta irakiten asten danean, olio gordiñ pixka bat eta gatza bota bear zaizkio, ta noizean bein eragiñ, zurezko kollarakaz.

Egosten danean, saldarik gabe atera aza, ta olioa baratzuri leka batzuekin erre eta bero-beroan bota gaiñera.

*Bixigua zirt-zart* lengo sukaldeetan ez zan izaten zailla egiten.



Oraingoetan ordea gaitzagoa da, ta augatik gauzatxo bat esan bear det. Ez du balio labean erretzeak, ez eta ere txapa gaiñean eta butanogaz dabiltzan suetan, baizik eta egur ikatzagaz egiten dan su bizi, brasa ederren gaiñean, arranparrilla izena duan sukaldeko tresnan.

*Gaztaiña erriak pin-pan!* lengo sukaldeetan danboliñan erretzen ziran, tresna au laratzetik ixekita, batek egurra bota surtara ta beste batek danboliñaren kirtenari birak emanaz.

Berotzen asten ziranean, gaztaiña batzuek ler egiten zuten, eta lertzean, tiroka asten ziran danboliñaren barruan. Augatik esaten zan gaztaiña-erriak pin-pan!

Gaur egunean eta gaurko sukaldeetan, eziña da gaztaiña erreak pin-pan! prestatzea, baiña egunari berea emateagaitik, nik iñoiz erosi dizkiot Arkupean saltzen egoten dan emakumeari ta zapi batean, batu-batu eginda, etxera eramane. Ez dira guk umearoan jaten ginduzen bezelakoak, baiña, egunari berea emateko, balio dute noski.

*Aia goxo-goxo, epel-epel.* Aia, edo nere errian esaten dan bezela, *aia* edo *aja*. Itz auetako «j» izkia Zumaian frantzesez bezela oguztutzen da, ta nik ere emen onela ipintzen det. Aja, esneaz, ogi-iriñaz, azukreaz, kanela zotzaz eta limoi-azalagaz egiten da. Gatz pixka batek oso grazi ona ematen dio. Ogi-iriña, ondo egosi arte, astiro-astiro su txikian irakiten eduki bear da, beti zurezko kollareaz eragiñez, azpian pegatu ez deiten eta erre usaia artu. Ondo egosten danean, surtatik atzeratu, baña ez geiegi, jan bear danean otza egon ez dediñ, epela baizik. Maira ateratzekoan, gaiñetik kanela autsa zabaldu lezaioke. Ontzi zabal batean atera bear da, ta umeeri atsegin izaten zaie kanela autsagaz idatzita ipintea: «GABON!»

\* \* \*

Jakingo dezute noski irakurle guziok, aldizkari onen lengo zenbakia agertu ta laister, Antonio Valverde il zitzaigula. Baña, bear bada, ez, atal onen buruan azkenengo urte auetan agertzen dan marrazki egoki-politaren gillea bera zala.

Beraz, etzerate arrituko noski, baldin gaur Antonio Valverde'ren oroimenez atal ontan bertan biotz osoz errenkada batzuek ezartzen baditugu.

Oroimen apal au ezezik, are aundiagoko ta sakonagoko bat ere merezi bait du pintatzalle trebe, euskal eta erdal-idazle jator, lantegigizon bizkor eta batez ere adiskide on eta prestu arek.

Jaungoikoak eman deizula, izenkide maite, betiko atsedena!

A. A.

## ETXETXIKIKO MIKOLAITZAK

Urkiolako mendietatik berantza datorren erreka ertzean dago etxetxiki, orain iñor be bizi ez dan baserrietxetxo: Zubipuntako Etxetxiki.

Aritz-tantaizko baso aundi baten ertzean dago bera, eta mikolaitzez beteta egoten ei-ziran ango inguruak.

Ezin ei-ebeen bukatu ango zubia mikolaitzak, maistar gogor batzukaitik. Orregaitik egon ei-zan mikolaitzez beteta ainbeste urteetan a inguru ederra, maistar zarrak il arteraiño.

Ekonbarri batzuk artu ei-ebeen gero Etxetxiki, eta zubi barria egiteko baimena emon ei-eutseen mikolatzai.

—*Emengo inguruetan bakie auki daigun, emoten dautzuegu baimena.*

Eta mikolaitzak erantzun:

—*Bai, bakie ta emengo inguruetakoa alabarik ederrena be zauen umetxoa izango da.*

Eta alantxe gertatu be gertatu ei-zan. Ume eder bat euki ei-ebeen andra-gizon gazteak, inguruetan be ederragorik egongo ez zana urteetan eta urteetan.

Gaixotu zanean be, mikolaitzak eurak osatu ei-ebeen neskatotxoa.

Eta ogei urte eukazala ezkondu zanean errian ardizaintzaille ibiltzen zan mutil on bategaz, orduan joan ei-ziran betiko mikolaitzak beste leku batera, an be beste zubi barri bat egiteko asmoagaz.

1970.

## Arantzateko Demoniñuaren Buztana

Arantzate izena daukon etxetorre bat dago Ibarlako ibartxoan, Irundik urrin ez dala.

Eta arri-galdu aundi bat etxetorrearen ondoan dagoan bide-ertzean.

Demoniñu oker bat ibilten ei-zan Arantzateko ume bat galduguran, eta aingeru bat agertu ei-jakon demoniñuari bein batean, andik kentzeko esaten «*Kendu adi emengo inguruetatik. ostantzian auk ikusiko dok*», esan eutson aingeruak.

E'tzala joango andik eta e'tzala joango iñora be andik Arantzateko umetxoa galdu arte, erantzun eutson demoniñutxoak.

Eta Ayako Arritik artzen dau orduan arri aundi bat aingeruak, eta goitik bera bota demoniñu okerrari.

Baiña ariñeketiari emon onek, eta buztana bakarrik arrapau eieutson gixajuari, eta arrantzaka joan ei-zan Napparroaruntza, Aldabeko bideetatik.

Eta arripean gelditu egin ei-zan betiko demoniñotxoaren buztana.

Orain be orixe berori esaten dabee Ibarlakoak, eta infernuko kantak entzuten ei-dira iñoz neguan, aize-egunetako gauberdietan.

1970.

## Gizontxo Mutua

Erreka-ertzeko arriartean ibilten ziran olgetan gure auzoko ume txikiak, eta asarratu egin ziran bein euren artean.

Gizon txiki bat agertu jakeen orduan. Bizar zuri-zuriduna zan gizontxoa, eta silbot aundiduna. Makilla-araki ebagi-barri bat eskuan, eta ezer esan ezbaetzian be, begirakuna gogorra egin eutsoen umeai.

Ixilik eta geldi-geldirik geratu ziran danak, eta bakoitza bere lekura joan arte ez eban ikararik egin gizontxoak.

Agoa zabalik egozan danak, eta barriro be euren lekuan baketsu ikusi ebazanean, bere bidetik jarraitu eban bizarzuridunak. An joan zan, ibai-ertzeko basoaren bidetik

Ume okerrak zigortzeko etorten dan mikolaitza izan ei-zan a gizontxo mutua.

1970.

BITAÑO.



# "50 años de Pintura Vasca"

(1885 - 1935)

San Telmon, 1972'ko urtarrilean eta otsailean izan dugu erakusketa eder hau ikusteko aukera.

Erakusketa zoragarri hau ongi goratu zuen J. Intxaustik otsailaren bateko «Hoja del Lunes»-eko (Donostiakoan) euskarazko orrian, baina hala ere neronek egin nuen bisitatik atera nituen gogoetak laburki emango ditut.

Erakusketa ikusgarria benetan «50 Años de Pintura Vasca» (1885-1935) dalakoa, Donostiako San Telmon jarri zigutena. Urte askoan hainbeste eztabaida sortu zuen «euskal eskola»ren ageri ederra benetan. Baina eskola berezi baten ageri zehatza ote?

San Telmon bildu zituzten mende honen lehen parteko euskal pintoreen lanak, erakusketaren izenbúruak zion bezala. Hala ere, ene ustez, garai berekoak izateak ez du esan nahi eskola berekoak zirenik. Honetarako barne-gogozko kezka berdintsua behar da, eta honetatik sortzen den elkarrekiko ekintzak kideko oinharri batzutatik jakineko helburuetaruntz eramanaz lan egiteak egiten du eskola berezi bat.

Eskola hori bazen, dudarik gabe, gai eta estetika jakin batzuen kezka araberaz. Bere aztertzaile eta kritikoak ere bazituen, Juan de la Encina nagusi zelarik. Eskola horrek inguratzen zuen ardatzcan maixurik berezienak, lehen aldiko Regoyos eta Guiard alde batera utzirik, Arteta, Etxebarria, R. Arrue, Iturrino, Tellaetxe, eta besteren batek girotzen zuen inguru berezia.

Hoiekin batean, zerbait gazteago ziren J. Olasagasti eta J. Aranoa, San Telmon hutsune nabarmena agertzen zutenak (hala ere. salgai jarri zuten katalogoan arkitzen ziran behinipehin, hain ongi erreprezentatuak ez zeuden ere). Vázquez Díaz bera ere ez zen gaizki etorriko erakusketa horretara, zeren hura ere giro honek kutsatu zuenez, geroago bere gisarako geometriazko joeraz pintura planuzko eraz erabiltzeaz hartu zuen berezitasuna eta ospea, noski.

Mendearen lehen partetik Bilbon girotu zen eskolak bere frutu onurakorrek eman zituen. Postinpresionismoan oinharriturik ere, ondorerako giro berezi bat sortu zuen Euskal Herrian. Gaur, oraindik ere, gure plastikaren estetikan itsatsia duguna.

Eta euskal arte honetaz jardutzean ez dut aipatu nahi euskal gaiak soilik pintatzen zituztenak bakarrik, ez; baizik estiluzko joeretan kidetasunak zaindu zituztenak bereziki, era hortako pinturagintzan saiatu zirenak. Hain zuzen, eskola honek, Arteta buru zelarik, etnografia gaiak atzean utzi zituen sozial gaitan gehiago sartzeko. Zeren, San Telmoko erakusketa ikusita, argi dago bi zatitan banantzen zirela: inpresionismoaren ondorenez jabeturik pintatu zutenak, eta hortik aparteko era modernista edo klasiku zaharren bideak jarraitzen zituztenak. Azken hauen arteko, Macztu, A. Arrue, Zuloaga, Salaberria eta abar. Hauk nonbait ez zuten inoiz konprenitu mugimendu berriaren sorketazko grina.

Eskola berriak argi berria eta teknika berezia nabari ditu; maixu nagusiak, Etxebarria bere kolorez eta lehen psikologiku erretratu gintzan, eta Arteta bere gai indartsuen bidez konposizioz eta lerroz ondo horniturik, eta batez ere argien alde-kontrak, alternantziak, Puvís de Chabannes eta Cézanne-ren oroitzak dakarzki. Joera hauek hain bizi erabiltzeaz du Artetak bere nortasun handia. Dohain hauegatik, A. Valverde zenak oso ongi zion: «Arteta dugu gure eskolaren habe sendoena».

Artetak eta Etxebarriak, Regoyos-engandik eta Paris-tik har zituzten beren erroak gure herrian ondo sustraitu zituzten.

Artea maite zuenak, eta euskal eskola zer zen jakin nahi zuenak, bazuen zer ikusi, zer pentsa eta zer dastatu erakusketa bikain haretan.

Juan SAN MARTIN.

# EUSKAL ERTILARIAK

Oar batzuk euskal ertilariei buruz. Oar labur-labur batzuk bakarrik. Montes Iturrioz irundar pintatzaillari artuak. Itzez-itz artuak. Urdanibiko etxezar aundian dauko pintatzeko gela aundi bat Gaxparek. An egoten gara berbetan batzuetan. Pintatzen Gaxpar. Idaz-oarrak artzen ni. Emen doiaz oar batzuk. Batzuk bakarrik. Itzez-itz, nauk euskeratuta. Euskalduna da Montes Iturrioz, baiña erreztasun geiago dauko erderaz berbetan egiteko. Urrengo batean geiago, okerrik ez bada.

\* \* \*

«*Arteta*. Orain-aldiko barritasunak eraginda egoan, baiña bere jaioterriko lurraldearen arima eta kutsu-bidez emon eban bere edertitasuna Artetak. Meunier belgikarragaz etorren bat. euskaldunen liraintasuna eta edertasuna bereganatzen. Gure baserriar bat ikusi ebanean oartu eta egin zan eskultura-egille Meunier. Ormaetan pintatzen ebeenak ziran Aranoa eta Uzelai, eta Arteta be bai. Orregaitik-edo zergaitik eztakit baiña italiarren tankera-zalea zala esaten ebeen Arteta.»

«*Baroja-Errikardo*. Auforta-langintzan, gatzu-garratzakin egiten dan xixelgintzan apaingarriak egiten, onen-onentzat artzen dabee Baroja; Goya lenengo dala, jakiña. Modu askotara izan leike euskaldun. Euskaldun senditzen zan Baroja-Errikardo. Biotzean sartuta euskazan gure oiturak eta gauzak: Umore onagaz ikusten ebazan beti. Erakusketa bat egin naban Madrillen Aranjuezen egon nintzan denboran. Udagciena zan, eta Solanagaz egoan Baroja. «Emen aranjueztar pintatzaillau» esan eustan berak. Umore onean egoan beti Errikardo. «Zalantxoko auzunan edo Donostian erakusketak egitia bardin-bardin



da» esaten eban gerrate-osteko urteetan: Gitxi saltzen zan garai artan; urte gogorrek ziran orduko urteak.»

«*Basiano*. Apaltasunez erakusten eban bere burua, asko ekiana izan-arren Basiano. Kolorez gauza ikusgarriak daukoz. Oso ondo pintatzen eban. Desberdiña zan, baiña gauza jeinutsuak eukazan, erti-indar aundiagaz asmatzen ekiana be bai-zan.»

«*Beobide*. Atsegin egiten jata neri Beobideren lana. Kemen aundiko indarra daukola uste dot. Indarra eta arimea. Zuloagak be baeukan irudigille moduko zerbait pintatzean. Ertiadierazte bizi, argi eta aundi bat eukan Beobidek taillagintzan, zur-langintzan. Bat egiten ebeen Zuloagak eta Beobidek euren ertiaren bidez adieraztasuna emotean.»

«*Berroeta-Bikendi*. Zirrarakor-zaleen urteak ziran orduan, eta Regoyos eta orduko denborako pintatzaille inpresiolarien agiria izenpetu eban Berruetak be. Gazterik il zan irundar au. Gauza onak egiteko trebetasun aundia ekarren berak. Aize-zabalean eta kanpoan pintatzen eban.»

«*Etxebarria-Joan*. Etxebarria da, Prantziako pintura-ertiak ekarri euskun eragitea geien-geien ezagutzen jakona.»

«*Salis*. Lur-kolore barik pintatzen eban Salisek. Barri-etxuratasuna emoten eutson lurralde-laukoei. Haes auki eban maixutzat Salisek. Koloretza aberatsera jo eban. Alderdieder-zale zabaldu zan. Joaquin Mir egiten jakon atsegin. Margo-kolore garbiaren jabe egin zan Irungo lurralde-baztarrak pintatzean. Politasun aundiagaz egiten ebazan erreztasun aundiagaz eta ariñeketa batean urtetan eutsoen pintura-oarrak.»

«*Uranga-Paulo*. Oitura-pintatzaillea zan Uranga. Erreztasun aundia eukan zirri-borroak egiteko. Igidura egokia emoten eutsoen, eta inguruak bereganatzen zan mutil. Ikustekoa da Bilboko Museuan daukon laukoa. Bizitasun aundikoa zan berbetan Uranga. Martuteneko auzunan etxetxo bat egiteko asmoa eukan, eta album batean eginda eukan zirriborrua erakutsi eustan bein.»

«*Vázquez Díaz*. Urdinabar-koloreak ez ebazan ekarri kanpotik Vázquez Diazek. Emen ikusi ebazan. Emen aurkitu. Toledon pintatu ba-eban, esaterako, beste gauza bat izango zan.»

«*Veyrin*. Asko maite eban Euskalerrria Veyrin Philipek. Ramiro Arrueren eragipena, influentziya, dauko lurralde-laukoetan Veyrinek. *Pastel* izenagaz ezagutzen dan teknikaz egiñiko lauко batzuk erosi eustazan berak gure gerrate denberan, Laburdin nengoala.»


«*Zubiaurre anaiak*. Nortasun aundiko pintatze-tankerea daukee. Beste euskal pintatzailleekandik askatuta dagoz gauzak ikusteko. Izan, euskal pintatzailleak dira izan. Ez dabee ikusten Arteta, edo Tellae-txe, edo Etxebarria ta euren denborako besteen moduan. Zubiaurre-tarrak auren burutasun berezi bat erakutsi dabee.»

«*Zuloaga*. Tajuz, gu baiño gaztelarragoa zan Zuloaga. Joan dan gizaldiaren azkenaldian Prantziak emon euskun pintatzeko barrita-sunaren bitartez eraginda gengoan gure aroko euskal-ertilariak. Gure jaiote-alderdiak emon euskun gure bidea guri, Zuloagari Gaztelaniak emon eutson moduan.»

\* \* \*

Urrengo batean geiago, okerriz ez bada. Ordurarte, Montes Iturrioz lagun dala.

OZERINJAUREGUI.



# Euskal Herriko Liburutegia

Jakina denez, munduko erresuma aurreratu guzietan biblioteka handi bat antolatu ohi dute, ikasle eta irakasle eta gainerako jendeak irakurtzeko era eta aukerarik ukan dezaten. Aspaldidanik horrelaxe egin da, Assurbanipal-en Ninibetik hasita, Ejipto-ko papirotegietatik jarraituaz, Alejandriako *liburutegiraino*. Erromatar eta arabiarrek beste hainbeste egin zuten, eta XV mendeaz gero ugariagotzen eta aberasten joan zaizkigu ekialdean liburutegiok.

Eta gaurregun edozein gizarte aurreratuk aitortzen du biblioteka hauen beharra. Honegatik, agintariek lege bereziz babesten dituzten gizarte osoaren zerbitzurako sortzen diren jakinbide-eraketa hauk. Gu ere honelako zerbaiten premiatan garela errazki ikus daiteke.

Hain zuzen azken hilabete hauetan Catalunya aldean kezka bera agertu da, nahiz eta han beste arrazoiengatik izan. Izan ere, hogeitahamar urteren buruan, *Catalunyako Bibliotekak* zuzendari aldaketa bat du, eta 60 bat urtetan bigarren aldaketa bakarrik: Mateu Llopis-ek erretiroa hartzean, gizon berri baten bila ibiliak dira Barcelona-ko liburutegi nagusi horri zuzendaria emateko. Hau dela-ta, *La Vanguardia*-k Xavier Fort i Bufill-en artikulua pare bat argitaratu du.

Biblioteka hura, 1907-an jaio zen Institut d'Estudis Catalans delakoaren babespean, eta Prat de la Riba-k eraginda. Best hilabete barru, 20.000 liburu zituen, eta hasiera batetan historiara zuzendua baldin bazen ere, 1911-z gero jakintza orori zabaltzen du bere betekizuna. Liburutegiaren asmoak honelatsu labur daitezke: Catalunya-ko historiaren taupadak jascaz, zientzia modernuatarako jakinbideak eskaini, Catalunya-ko herrialde guzien berri jakiteko erraztasun guziak eman eta inbestigakizun denetarako tresnak eskutaratu, honela zientzien aurrerakuntzan Catalunya-k ere eskuhar dezan.

1914-ez gero baditu 50.000 liburu eta 1.000 aldizkari-sorta, eta 300 bat kultur erakunderekin ditu harremanak. Institut aipatuaren,



sortu berria zen Mancomunitat-aren, Barcelona-ko Udalaren eta Estaduaren laguntzekin burutzen du bere zeregina, 1915-ean eman zaion Patronatupean. 1925-ean delako Directorio Militar-ak Mancomunitat hura desegin zuenean, Barcelona-ko Aldundiaren eskuetara dator Catalunya-ko Biblioteka: 150.000 liburuki ditu eta 900 eskuidazki eta Espainia-ko bigarrena zen bere aberastasun eta irakurlez. 1931-az gero Generalitat de Catalunya sortu berriaren agintepean jartzen da liburutegia eta gudatea amaitzean 400.000 liburuki eta 1.500 eskuidazki ditu eta gaur duen bizitokira etorria da: Hospital General de la Santa Creu.

Gerratekoan, zuzendari eta bertako arduradunei esker, liburutegian diren ondasun guztiak oso-oso salbatzen dira. Jordi Rubió i Balaguer-ek zuzendaritza utzi ondoren, hamahiru hilabete barru Mateu i Llopis-ek hartzen du etxearen lema bere eskuetan. 1940-eko otsailean irekitzen da berriz ere liburutegia: *Biblioteca Central* deituko zaio orain eta berriz ere Barcelonako Aldundiaren agintepean gelditzen da. Aurrera doa orain ere: 1951-n, 500.000 liburuki gordetzen ditu; 1960-n, 700.000 dira eta 200.000-tik gora kontsulta egiten zaizkio.

Hauk denak jakingarriak izanik ere, itzul gaitezen gurera. Euskal Herriak ere behar luke bere biblioteka bat, gure gainerako aurrerakuntzei dagokien pareko liburutegi aberats eta modernu bat. Eta asmo honen balio frogatzeko ez zaizkigu arrazoiak falta. Garai batetan —orain gutira arte— Euskal Herria goi mailako Irakaskintzatik urrun bizi izan baldin bada, eta guzión kalterako noski, gaur milaka goikaslak ditugu; sortu dira han hemen Goi-Ikastetxeak (Fakultade eta Goi-Eskolak). Gure hiriburu guzietan ditugu ehundaka unibertsitario eta denak dira biblioteka handi eta egoki baten beharretan. Eta gure inbestigatzaile gazteak zer esanik ez. Premia gorri hau asezteko, ikastetxe bakoitzak sortu nahiko du bere liburutegia; baina, hau beharrezkoa izanik ere, ez da aski izanen, komeni litzakeen neurrian biblioteka oso bat egiteko. Bai kultura orokor batek eta baita norberaren espezialidadeak ere ez lukete jasango gure banakako ahalengin alferrik.

Catalunya-k bezalatsu, eta ez gutiago, gure Euskal Herriak kultur premia bereziak ditu, eta beharrian hauei erantzun egoki bat eman beharretan gara. Hiriburu bakoitzari lehenen mailako biblioteka bat eman ez dezaikegunez, guzientzat baliagarri eta premiako dugun hori, nonbait eta guzientzat egin beharra dago. Eta Euskal Herriko liburutegia aipatzean, jakin dezagun horrekin zer esan nahi den. Ez noski Euskal Herriari buruz bakarri eratuko den liburutegi oso bat. Hori ongi legoke, baina askozaz ere aintzinoan joan behar da. Kul-

tura orokor batean bidelagun izango dugun liburutegia osatzeraino, alegia: edozein giza-jakintzatan eta zientzian lagungarri izan daki-gukeena. Euskal Herriaren historia eta gaurko gizartea argitzeko liburutegia ere hor barnean ukanen genuke; baina beste gai guzien jakitateaz jantziko gaituzten liburuekin batean. Edozein herrik eta gizarte aurreratuk nahi lukeen biblioteka oso eta ireki bat nahi genuke Euskal Herrian ere.

Pentsa daitekeenez, honelako asmo bat mamitzeko, ez da aski bakoitzak —Ikastetxe, Diputazio, etab.— bere bidetik ekitea, ez bait lirake nahi litzakeen liburutegi horretaraino sekula helduko, izan ere badakigu liburutegi bat ez dela inoiz burutzen eta berehalako batean zahartzen dela, egunean egunean, eta behar diren gastu guziekin, berritzen ez baldin bada Honelako biblioteka haren gogoak buruhauste hainitz ditu, eta gastu asko, bakarka lan honi ekiteko. Aipatu dudan Catalunya-ko liburutegiak 20.000 liburuki berri sartzen ditu urtero. Eta, hala ere, biblioteka harek bere arazoak ditu...


Batere optimista izan gabe ere, gure Aldundiei, *elkarturik*, zerbait egin dezatela eskatuko genieke. Zein izango da gure Goi-Ikastetxeen etorkizuna, edozein inbestigakizun aurrera eramateko kanpora joan behar baldin badugu. Badakit, honelakorik nonahi gertatzen dena; baina ez noski guri gertatuko zaigun neurrian. Probintzia bakoitzak bide honetatik egin dezakeena ez dut uste urrutiegi joango denik, eta gure Diputazioek —beste zeregin askotarako bezalaxe— elkarturik eman beharko liokete aurpegi biblioteka modernu haren arazoari. Bestelakoriz ez da pentsagarri ere. Eta Aldundiek erantzuterik ez balute, oraindik pesimistago ere izan beharko genuke.

Gure herriaren kulturgintzarako erabat premiazkoa dugun liburutegi hau ez dezakegu bazter inola ere, geroz eta zailago gertatuko bait da asmoa aurrera eramatea. Euskal Herrian Goi-Ikastetxe horiek nahi baldin baditugu, era berean sortu behar da haien osagarri bazterrezina den biblioteka handi bat. Asmatuko ahal da gure beharrian hau ikusi eta asetzen.

Joseba INTXAUSTI.







# LIBURVAK

A. APAT-ECHEBARNE. *Noticias y viejos textos de la «Lingua Navarrorum»*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia, 1971.

Gure artean esan beharrik ez dugu «Apat-Echebarne»ren izenpean Aingeru Irigaray euskaltzaina gordetzen dela. Liburu hau taxuz egina da. Julio Caro Barojaren hitzaurrea daroa.

Lau zatitan partitua: «Textos euskéricos de siglos pasados», «Aspectos y documentos de nuestra historia», «Juegos y leyendas. Mitología» eta «Miscelánea». Beraz, liburua erdaraz egonarren euskal literaturaren inguruan ari da gehienbat. Joanden mendean Compostelarat joaten ziren euskal erromes edo pelegrienen kantak lehen aldiz agertzen dira bertan. Bestalde, Nafarroako kanta zaharren adar berriak ematen ditu: Ursca, Atarratze jauregia, Yoyak...; lehendik ezagutzen genituenen eraskin gehigarriak. Ahozko literaturarako pitxi baliosak noski.

Gure historiarako atal eta kimu askoren berri ematen du liburuaren bigarren partean. Eta hirugarrenean haur-jolas, ipuin eta misterioz beteriko zenbait siniskeria. Azken partea, bilinguismoari buruz. Hemen, Galesen egoeraren berri asko ematen dizkigu eta guretzat ezagunagoak diren katalanen jokabideena, jokabide zuhurra (hauek Josep Meliá-ren *Informe sobre la Lengua Catalana* liburu bikainean oinharriturik).



Liburua irakurtzen, aspaldiko oroitzapenik ere aski ekarri digu. Esate baterako, direla hogeita bost bat urbe, edo zerbait gehiago behar bada, Antonio «Juanagorri» ezagutu nuen —Santiagoren anaia—, Aralargo Hormazaharretako sarioian. Bertako artzaiak gizon misterioitsu bezala jotzen zuten, baina ez dut uste haiek jaramon gehiegirik egiten ziotenik. Hori bai, aparteko gizon harrigarritzat zuten, baina oso arrarotzat. «Juanagorri» anaia hau (Antonio Igarabide) 1953ko maiatzean hil zen. Heriotza ondorean, J. Ormazabalek, bere fotografia eder bat argitaratu zuen urte bereko «Pyrenaica» mendizale aldizkariaren 68garren orrialdean.

208/209 orrialdeetan sorginkerieri buruzko ageriak oso ondo ekarriak ditu. J. Caro Barojarekin ados datozenak. Bertan salatzen da inkisizioaren joku makurra bezain iluna. Alonso de Salazar y Frias inkisidore zentzunduna eta zintzoa izan zen. Gaurko inkisidore bokaziodun askok badute beragandik zer ikasi, alde guzietan fantasmak ikusten jarraitu gabe.

«Ecos de las campanas»ek bere gisara egin nuen lantxo bat dakar nere oroimenera, «Euzko-gogoa»n argitaratu nuen «Ore kanpaia», nere euskarazko lehen lanetariko bat izan zena. Geroago eta nekezagoa izango da kanpai hotsen esan nahiak biltzea; hain urritu dire ohitura hoiek.

«Adivinanzas de Bəztán», 240 orrialdean, zer dala ta zer dala horren bigarren bertsoaren antzerakoa dut gure ama abadiñoarrai jasoa. Burutu, jartzen du azken ahapaldian, maiatzean heldua dela aditzera emanez:

*Txikixa banintzan*  
*Haundixa banintzan,*  
*Maiatzean burua nintzan.*  
Garia.

Era honelako desberdintasunak ugari aurkitu genezazke liburua-  
ren orrialdeak barna. Jakina, herriz herri beti ere zerbait aldatzen  
bai dira esaerak, kontraerak, kantak, doinuak eta abar, euskalkiak  
bezala, naiz enbor batetik sortuak izan. Eta herri bakoitzeko bereiz-  
kuntzak behar ditugu jaso, gauza bakoitzaren gorputzaren huna bila-  
tu ahal izateko.


Baita ere, bi kanta zaharretan beste fenomeno hauek arkitzen  
ditugu: «Atarratze Jauregian» kantaren ahapaldien azken zatian,

36garren orrialdean dakarrena «Berterretxen khantoria»ren bertsoetariko baten kidekoa da. «Berterretxen khantoria» era askotara jasoa da, eta inoiz bertsoen ordenamenduak biltzaile batetik bestera aldatzen dira. Honegatik, iturririk seguruen a dugin Sallaberry maulearrarena har dezagun konparazio baterako —gainera, biltzaile hau delarik, nik dakidanez, XV.mendeko kanta honen doinua lehen aldiz argitaratu eman zuena—. *Chants populaires du Pays Basque* (Baiona, 1870) liburuaren 211/217 orrialdeetan ikus genezazke doinua, letra eta itzulpena. Eta konturatuko gara, Irigaray jasotzen duen azken bertso horrek eta Sallaberryren bigarrenak badutela elkarrekin zer ikusia. Jakina, aitortu beharra dago, koblararitza eta bertsoaritza, maiz, ofiziozko bertsoegileak direnean berezkoa dutela horrelako kideko diren klitxe antzerakoak ohituraz erabiltzea, eta baliozkotzat hartuaz. Baina, behar bada, kasu honetan klitxe huts bat baino gehiago da, zeren zati hori, hain puskatua bada ere, ez dirudi «Atarratze Jauregian»ekin neurritz bat datorrenik.

«Un romance del valle de Salazar»en argi dago, koblakaria «Berterretxe khantoria»ren zazpigarren bertsoarekin baliatu zela (Sallaberry, 214 orr.) bere bigarren bertsoan, Irigaray berak ongi salatzen duen bezala.

Liburu atsegina dugu, berri, xehetasun eta gehigarri askoren txokoa. Zorionak! Irigaray adiskideari. Baina egile honek era honetako ageri asko ditu eta benetan pozuko ginake honela argitara emanez joange balitz.

J. SAN MARTIN.



# LURRUNPEAN

(Jarraimena)

## IX

IZAR eta PELI

PELI.—(*Sartuaz.*) Izar!

IZAR.—Ez dot nai ezer jakin.

PELI.—Izar!

IZAR.—Laga egidazu. Negar egiten laga egidazu.

PELI.—Zer daukazu?

IZAR.—Zoaz! Zoaz! Ingurutik zoaz!

PELI.—Sentiduten dot.

IZAR.—Nik eztakit nun dagon miña. Nik eztakit nun dagon zauria. Baiña gure zauria osatuko dabenik ez dago. Bein eteten da bat, bein eten... eta bein usteldu!

PELI.—Ez dakit zer diñozun, Izar. Zure beraldi eta depresioiak ez nau arrituten.

IZAR.—Galoiak zoratuten zaitue ta gizonkerian arrotu. Zoaz! Ez zaitut nai. Ez nabil zure aragi zimelaren billa. Jakin egizu.

PELI.—Izar... Nik... Nik...

IZAR.—(*Konturatuaz.*) Peli zara? Peli! (*Jaikiaz.*) Laga egidazu laztan bero bero bat emoten.

PELI.—Parkatu. Nik ez dakit laztan orde mesederik egiten.

IZAR.—Ez zaitez guzurti. Gizon guztiak guzurti zarie. Musurik ez yatzu atsegin? Bekokian emongo dautzut edo matraillean.

PELI.—Zure borondate orrekin ordaindua nago.

IZAR.—Zimelegi naz, ez? Benetan. Kapi:anak be ori esan dausta gordin gordin. Kontzientziko eskrupuloak daukazan kapitanak be, zimela naizela arpegira botateko begirapenik ez dau artu. Gordiñago nitzanean bear ba da... kontzientziaren eskrupuloak ogerleko batzukin kenduko zituzan. Errazoi daukazu. Zer daukagu guk gizartean egiteko? Zer? Kotxe zaar bat apurtzen ba da, bia-



ramonean konponduta ibilliko da. Neska bat jausten ba da... gizarteak, eskua luzatu barik, sakonago jaustera zirikatuko dau, ta sakonago ta lizunago ta salduago ta gaixoago beeratuko dau, griñaetan moskortu eragiñaz, ondatu arte, eten arte, zoratu eragin arte. Eta gizon zuzenen seme-esnearen iltokia dan emakume salduaren auroe edo sabelean, esne galduen artean, bizi-miña daukanen bat agertuko da nozbaiten. Eta neska galduak bizi-miñari odola ta sabela eskiñiko dautsoz eskrupuluz edo maitasunez... eta aitatasunik emoten ez da iñor agertuko... beste semien lotsa ta izen ona-ohorea-zaintzearren.

PELI.—Izar! Barētu zaitez lenengoz. Zetan dator zure illeta ori?

IZAR.—Peli! Ba dakizu alaba bat izan nebala.

PELI.—Bere billa gabiltz.

IZAR.—Ez dakizu norena zan.

PELI.—Zurea.

IZAR.—Oraindik ez da sortu andrerik bere berez semerik egin dabenik. Baiña ez dautzut esango. Zelan esan, ni-neuk be ez ba dakit, ezin ba naiz konturatu? Nirea zan. Ori. Nirea. Nirea... ta edozeiñena. Ez lotsatu. Gizarte galduarena. Nun da nire alaba?

PELI.—Ez dakit.

IZAR.—Zeiñek artu eban nire alaba? Zeiñek?

PELI.—Ori... ba dakit.

IZAR.—Benetan? Esaidazu! Esaidazu! Zeiñek? Nun dago? Nun? Zeiñek euki lei eskutatuta, edo ostuta? Nire biotzaren zatia nun egon lei? Esan! Ekatzu laztan bat. Ez ukatu. (PELI bere artean artzen dau IZAR'ek, eta laztanak edo musuak emon nairik ibilliko da, PELI lotsaz eta igeskor igarten dala.) Ez ukatu. Ez. Ez ixildu. Esaidazu laster. Esan, mesedez. Nun dago, nun? Ez eskutatatu dakizunik!

## X

IZAR, PELI, KAPI eta TOBA

(KAPI eta TOBA ate aurrean agertzen dira.)

KAPI.—Peli!

PELI.—(Lotsakor.) Deitu bear zendun.

KAPI.—Kafetetxe baten zagcz.

PELI.—Egia. Parkatu.

KAPI.—Ba dakizu etzi urten bear dogula?

PELI.—Ez.

KAPI.—Agurtzen ez zarie ibilli?

TOBA.—(Burlaz.) Barkuko lesiñoiak barriztazen.

PELI.—Ez barkoan eta ez kalean ez naiz oraindik saldu. Ez daukat ukatzeko.

IZAR.—(Garratz.) Eta nik ezin nei ori esan. (KAPI'ri.) Eta segurutik zuk be ez. (TOBA'ri.) Eta zuk gitxiago. Besterik agertzen ausartuten zarie? Ukatuten ausartu? Peli! Zelan bizi ziñei gizarte onetan? Esaidazu. Ez lotsatu. Itz egin egidazu. Nun da nire alaba?

PELI.—Ez dakit.

IZAR.—Ez ukatu. Nok artu eban nire alaba?

PELI.—Ori laster jakingo dot.

IZAR.—Maitien dozunarren! Jakin eta agertu lenbailen.

PELI.—Agertuko dautzut. Baiña aurrez ziur jakin bear dot.

IZAR.—Esan! Zer dakizu? Dakizuna erakutsi, mesedez!

PELI.—Gizarteko pekatua da berba erdika bat entzun orduko, biritze biltzea ta zabaltzea.

KAPI.—Ortik libre dagona...

PELI.—Ez nauke nai guzurrik zabaldu gai onetan.

IZAR.—Keixu nago, Peli. Ainbat ariñen. Mesedez!

PELI.—Zuretzako mesedea izan lei besteren kaltez. Ziatz jakitean esango dautzut.

IZAR.—Benetan, Peli? Esperantzatan zagoz?

PELI.—Aaztu baiño len. Telegrama bat daukat zuretzat. Kapi.

IZAR.—Telegrama bat orain be?

PELI.—Kapitanarentzat.

IZAR.—Telegrama bat... Ez egidazu gogoratu. Ez! Ez! Zegaitik dator ori? Zer esan eta agertu nai orrekin? Barkoan... telegramea...! Alaba il da! Ori da gogoratu nai dozun telegrama?

PELI.—Ez alperrik estutu ta negarrik egin. Gaur artu dot bat kapitanarentzat. Kapitanarentzat.

IZAR.—Baiña niretzat, telegramea... (Negarrez.) Zegaitik ezin zeinkean izan nire alaba il zana?

## OYALA

### III EKITALDIA

#### I

#### KAPI eta IZAR

(Itxasontzi andi baten «puentearen» inguruan, jarrileku luze bat dago, esku-bandarako bitarte bat utziaz. Kapitana, bere jan-



*tzi ta kapelakin, batetik bestera dabil, tarterik tarte, inguruei begira. IZAR. esku bandan dago, itxasora begira.)*

IZAR.—(KAPI *agertu orduko.*) Bilbo begien aurretik kentzeko garretan nago.

KAPI.—Len etorteko keixu ziñan.

IZAR.—Miña barritzea besterik ez dot lortu.

KAPI.—Ezin giñei urten oraindik.

IZAR.—Zeri itxaroten dautsagu? Barakaldoko keien lurrunak ezta-rria urratuten dauste.

KAPI.—Beste aldean, itxas zabalera begira, bularrak otzituko yatzuz.

IZAR.—Eztula datorkit emen.

KAPI.—Itxasoan ez dau iñor amorrasi ta molestaten ez tul batek. (*Eskutaten da.*)

IZAR.—Asi gara! Itxasoa ez dau ezek eteten! Itxasoa ez dau iñok gelditzen! Itxasoak ez dauka iñoren lotsarik! Itxasoak gizonak gizondu egiten ditu! Itxasoa ez dau ez tul batek jaikiko. Zorioneko itxasoa! Baiña itxasoan be negar egiten da. Itxasoan be kez-  
kak sortuten dira. Itxasoa be gordiña da. Itxasoa be lapurra da. Itxasoak... ez dauka odolik! (KAPI *agertzen da.*)

IZAR.—Itxasoaren aurka nebillen oraintxe.

KAPI.—Bildurtien zeregiña da. Txindurriak be mendian aurka ibilten ei dira.

IZAR.—Eta saguak be mendiak arrakalatu ei dituez iñoiz. Baiña ni ez nitzan gogoratzen bildurrarekin.

KAPI.—Bildurrarekin ez da gogoratzen. Bildurra bizi egiten da. Bildurra. Igarri barik, albotik kendu ezin dan emazte prakadun txatxalea izaten da.

IZAR.—Edo adurra dariola dabillen mutil lizuna, ez?

KAPI.—Nik esan dodana ziurrago. (*Eskutaten da.*)

IZAR.—Orra! Nik eztakit zek egiten daben. Baiña gizonak, kapela jantzi orduko, asmakizun eta idea laburragoak eukiten ditu. Ez dakit zegaitik. Aizea falta, nasaitasuna falta... Kapelea txonil bat lez da. Presiñoia egiten daben maillu bat lez. Kapelearen idea sartu bear nai ta ez. Bakoitzan garaun eta gogoaren izatea estutu egiten dabela dirudi. Ta zer da kapitan bat kapeleagaz? (*Destain-tsu, kapitan batek emon leikezan aginduen izekaz.*) Aurrera! Atzera! Ezkerrera! Baborrera! Eskumara! Estriborrera! Kontuz koastarekin! Amure txikotari! Arlankea bota!... Beti bardin! Robot bat! Irribarrerik ez daukan robot bat! Biotzik ez daukan robot bat. Aizeagaz batera dabillen txorimalu bat! (KAPI *agertzen da.*)

IZAR.—Barriro zatoz?

KAPI.—Ba nabil.



IZAR.—Zeren billa?

KAPI.—Ziur ez dakit. Egalei begira. Gure zeregiña da.

IZAR.—(KAPI'ri *kapela kenduaz.*) Izerdi larregi batzen dautzu kapela onek.

KAPI.—Ekatzu.

IZAR.—Itxaron.

KAPI.—Ezin nei.

IZAR.—Gatz eta grazi guztia galtzen dozue kapelarekin. Eztaukazu begi onik, ez dakizu ozkiritik eragiten, ez daustazu nortasunik, ez daukazu edertasunaren garrik...

KAPI.—Edan egin dozu?

IZAR.—Itxastarrak baiño whisky geiago iñok ez dau edaten.

KAPI.—Baiña itxasoaren gatzak urtu egiten dau alkoolaren espiritua, iñok igarri barik.

IZAR.—Itz egin daigun. Euskaldun kapitan arlote ta erromantikuen erara. Zegaitik da Bilboko ibaia ain zatarra?

KAPI.—Ez dozu esan Barakaldotik botaten dautselako kedarra?

IZAR.—Barakaldon artu neban nik bizitzaren giarra

KAPI.—Eta Bilbon galdu nortasunaren izarra.

IZAR.—Nik baiño leenago bota eban besteren batek lotsaren ondarra.

KAPI.—Ekatzu. Keixu nabil. Otz daukat kaskarra.

IZAR.—Zoaz. Gaur oker dabiltzu adarra. (KAPI *juaten da.*) Asmo bat. Idea bat. Bertsolariak zelan jokatuko ete leuke uniforme ta kapela jantzita? Akerra... okerra... ederra... igerra... Gatzik eukiko ete leuke ta bertsorik osotu? Eta zeinek entzun?

## II

### IZAR eta PELI

PELI.—(Agertuaz.) Kapitana ikusi?

IZAR.—Noiz guaz, Peli?

PELI.—Segurutik gaur ez.

IZAR.—Zegaitik ez?

PELI.—Jaubien agindua zan len. Polizikoen agindua da orain.

IZAR.—Politikako gauzaren bat?

PELI.—Ez jakin. Kontrabandoren baten susmoa egon lei.

IZAR.—Ze kontrabando? Legea bera ez al da kontrabandoa sarritan?

PELI.—Edo drogak.

IZAR.—Nungo drogak Bilbon? Otxandianoko kerixakin egiñak? Edo Somorrostroko burdiñaren izerdiarekin?

PELI.—Ez jakin. Edo batez. Askotan salakuntza bat, edo kezka bat, edo oker nai bat sortuzen da, eta denpora galdu eragin. Kapitana?

- ZAR.—Garratz dabil.  
 ELI.—Urtekeretan, beti. Nora joan da?  
 ZAR.—Urrunera ez. Ibilli dabil, atzetik aurrera. Gaur ez dauka andre atsegin barriak billatzeko begi solirik.  
 ELI.—Kapitanesiak puentetik begirik ez dauka galduko-ta.  
 ZAR.—Barruan dator?  
 ELI.—A barruan datorrenetan, gauzak garratz eta mingots ikusten dira. Gaixorik etorten da.  
 ZAR.—Zein, kapitana?  
 KAPI.—Bata ta bestea.  
 ZAR.—Zer dauka kapitanak?  
 ELI.—Amorrua. Itsutasuna, edo... jaubetasunik eza.  
 ZAR.—Pentsaten neban gaiztorik etorri dala. Eta emazteak?  
 ELI.—Andren gaixoa. Andra-miñak. Zeloak.  
 ZAR.—Asko ikasi dozu. Ez dozu gelditu nai unetxo baten?  
 ELI.—Emen? Zetan?  
 ZAR.—Gau giro ederra dago.  
 ELI.—Parkatu. Kapitana ikusi bear dot.  
 ZAR.—Ta geroago?  
 ELI.—Lemia zaindu bearco dot.  
 ZAR.—Barkua geldi dagola?  
 ELI.—Aginduak artzen lotu bearco naiz.  
 ZAR.—Guzurra dirudi. Beti zagoz lotu.  
 ELI.—Galoi geiago artu arte, keixu.  
 ZAR.—Baiña galoiak ez dautzue emongo andrerik.  
 ELI.—Txarrago al da galoi asko ta bakarrik?  
 ZAR.—Nik ez dakit zegaitik, baiña triste nago. Itzal. Sekula ez lako utsune bat igarten dot inguruan. Ez bildurtu. Ez da zuk pentsatu zeinken utsunea. Ez dakit zelan esan be. Baiña... Peli, maitasun premiñan nago.

### III

#### IZAR, PELI eta KAPI

- PI.—(Agertuaz zatera.) Puentea ez dago emen, pilotoa.  
 ELI.—Kapitana be ez dago puentean.  
 PI.—Arrotu egiten zarie danok emakumien aurrean.  
 ELI.—Parkatu. Poliziaren agindu bat dago.  
 PI.—Emen ez dago beste poliziarik ni baiño.  
 ZAR.—Ori be izan lei emakume aurreko gangarkeria.  
 PI.—Barruko nortasunari buruz nabil.  
 ZAR.—Emakume atsegiñen aurrean.



KAPI.—Ba! Zer nai dau poliziak?

PELI.—Poliziarren guraririk eta asmorik iñok ez dau jakiten.

IZAR.—Emakume atsegiñak bai, iñoiz.

KAPI.—Zer jakin lei emakume saldu batek?

IZAR.—Zer gorde lei odola bero ta kaskarra itsu, diruz eta lotsaz salduta, emakumiekaz batzen dan gizon batek?

KAPI.—Ta berak? Emakumeak?

IZAR.—Zer gorde lei, berak gorde bear leukena eskintzen datorren gizonak?

KAPI.—Betikoa! Andrak, ikutu eziñak. Martiriak. Garbiak! Gizonak: ostikolariak. Diabruak. Baltzak! Peli! Zer egingo zenduke zuk emakume... alai batek zirikatuko ba zinduz?

PELI.—Kapitana, puentean polizi bat dago.

KAPI.—Nire baimen barik polizirik ezin lei sartu puentean.

PELI.—Kapitana, puentean dagon poliziak zure baimenik ez ba dau be, artu egiten dau.

KAPI.—Itxasoetako legearen aurka dabil. Kanpora jaurtiko dot.

IZAR.—(*Burlaz.*) Kukurruku!

PELI.—Kapitanen andrak beti sartu izan dira puentean, iñori baime-  
nik eskatu barik. Eta sartuko.

IZAR.—Ekatzu bosteko ori.

KAPI.—Ilgora ala ilbera da gaur? Argi itz egin daigun. Zeiñen agin-  
dua dago? Nire emaztearena ala poliziarena?

IZAR.—Zure emaztea polizia da seguritik. Zurea beintzat.

KAPI.—Baiña polizia ez da nire emaztea. Jakin? Esan, zeñen agindua?

PELI.—Poliziarena.

KAPI.—Zer diño?

PELI.—Agindu barri arte ez urteteko.

KAPI.—Orrek esan nai dau zerbait dagola barruan. Umekeriren bat bear ba da. Libertadea dagola? Nun, zetan eta zetako? Bildurra dago emen, eta besterik ez. Itxasoa igaro bear leukie danak, zerbait ikasteko. Biziten beintzat eta iñori jaraminik ez egiten. Peli, ezer igarri dozu? Begiratu lenbailen polizoirik ba ete datorren. Edo kontrabandorik.

IZAR.—Zer da kontrabandoa gaur?

KAPI.—Onena, andre atsegiña. Ez zenkien?

IZAR.—Kapela orren biserak ez dautzu eder asko ikusten lagaten.

KAPI.—(PELI'ri.) Guazen, guazen lenbailen.



## IZAR eta TOBA

TOBA.—(Agertuaz.) Kapitana nun dabil?

IZAR.—Zein? Zure senarra?

TOBA.—Kapitana. Kapitana bat izaten da.

IZAR.—Jantziz bai. Ba nekien emendik zebizana. Puentetik ez al da ondo ikusi eta zainduten esku-banda onetako jarrileku au? Barakaldoko keiak eta lurrinak likindu eta itsutu egiten al dautzue leyoetako kristala?

TOBA.—Ez daukazu itzik ziri bakorik.

IZAR.—Itzak aizeak eruaten ditu.

TOBA.—Betikoa zara!

IZAR.—A! Betikoa! Ezagutzen ninduzun aurretik? Poztuten naz. Nun ezagutu ete giñan lenengoz? Gogoratzen?

TOBA.—Laga lengoari. Lengoa joan zan. Nora joan da kapitana?

IZAR.—Atsegin artuko neuke jakitearekin. Zu «Klabeliñak» kafetexean ez ziñan geratzen? Ta gero «Potxoletara» alfatu ziñan. Ez ete zan antxe lenengoz ezagutu giñarean? Ez estutu. Itxaso zabala da. Itxasoan ez dago oyartzunik, ekorik. Zure senarrak esaten daki, itxaso ez dabela eztul baten zurbilduten.

TOBA.—Nire gizonak itz geiegi egiten dau sarritan, eta ez bear dabenaekin.

IZAR.—Ez illundu eta galdu zeloetan. Eta ain zuzen be. Zetan geratu zan Kety? Nora joan zan?

TOBA.—Zein Kety?

IZAR.—Ez ba zenki lez! Oraindik gogoan daukat Potxoletako kantua. Adarra joaz, ziri-zirika abestuten euskuen gazteak: Izar, kolko betebizar. Kety, zeloetan beti; Toba, danak baiño oba. Gogoratzen ez? Alaxe ziñan, gaur ez ba zara be.

TOBA.—Ez dot nai entzun be lengorik. Geiegi agertuko genduke.

IZAR.—Beraz ba dakizu asko agertu zeinkena. Ezagutzen dozunean be! Nik benetan gorrotatzen dot lengoa. Bizitzako txirristada larri ta lotsagarri bat euki gendula ba dakit. Argalkeria. Itsutasuna. Salduta be irabazteko garra.

TOBA.—Ala dala, ixil gaitzezan.

IZAR.—Baiña itz egin ondoren. Suertea euki zendun Barcelonara juatean Artxandako kondeak dirua bialduten jarraituten dautzu?

TOBA.—Niri? Zegaitik?

IZAR.—Beragandik euki zendun semeagaitik.

TOBA.—Zer nai dozu? Zeren billa zabiltz?

- IZAR.—Min asko eroan eta sufridu zendun orduan. Il ez ziñanean be.
- TOBA.—Zer dakizu zuk? Ao zitalen berba guzurtiak besterik, zer dakizu?
- IZAR.—Negar egiten gendun guk, gure aal eziñean, zuri lagunduten. Etziñaldi bateko alogera zuretzako lagaten gendula aaztu dozu? Gogoan daukat osagilleak esan euskula geiago ez zendula ume arriskurik izango, amatasunaren urratz guztiak kendu eutzuzealako. Jakin eban ori ezkontzeko lortu zendun senarrak?
- TOBA.—Zetan dator au? Zeren eske zabilt? Zegaitik nai dozu nire bakea eten?
- IZAR.—Ez. Ez zaitut mindu nai. Sasoi bateko konfiantzatan itandu dautzut. Ba dakizu zegaitik gagozan geldi, urten barik?
- TOBA.—Sarri egoten dira olako aginduak.
- IZAR.—Zenbat gatoz orain, barkoan?
- TOBA.—Ez dakit.
- IZAR.—Kapitanaren emazteak nortzuk datozan ez jakitea, arrigarri da.
- TOBA.—Ez naiz sekulan ikusmin eta jakin miña izan.
- IZAR.—Ni bai, edozein andre lez.
- TOBA.—Izar! Nik ez dakit zer dabiltzun. Nik ez dakit zer nai dozun. Ikusi orduko zirikatuten asi zara, min emoten, akulari.
- IZAR.—Ez. Itz egin nairik.
- TOBA.—Itxasoan, itz egin amesetz ibilten diranak, sakon sakonean billatzen dituez jardun-lagunak: sirenak. Sangada bat eta naiku izaten da. Ikasi dozu?
- IZAR.—Toba!
- TOBA.—Kezka eta buruauste asko da daukazuz, laster amaitzen dira or. Entzun? Jakin? (*Arrokiro joaten da.*)

## V

### IZAR bakarrik

- IZAR.—(*Deiezka.*) Toba! Toba! Zer esan nai dozu orrekin? Egia itto egin bear dodala? Gaurko gizartearen errazoietan zu be? Indarraren errazoiarekin? Zer? Zer adierazi nai dozu? Lengoa bastertu, lengoa estaldu ta etorkizuna ezetsi, etorkizuna guzurretan agurtu bear dodala, odol eta sentzun bako momia bat ba nitzaken antzera? Eta mututu bear nazala, ez onez, indarrez baiño? Eta nire biotzaren odola sikatu bear dodala, eta nire izatea bera urdindu bear dodala, eta baltza zuri ikusi eta agertu bear dodala? Ez dozu lortuko. Ezegaitik be ez dozu lortuko! Gosetan biziten ikasi neban eta negarretan kantaten. Lizunean zimeldu nintzan, baiña ba dakit ederra nun dagon. Griñetan moskortu nintzan, baiña



ba dakit nortasuna zer dan. Eta itxasoak, sakon sakona izan da be, ez nau mututuko. Eta itxasoak, iruntsiko ba ninduke be, olatuen orruak zure belarrietan min egingo leukie sakada bakoitzean, eta olatuen apar zuria bera, zuretzat, odol gorridun zauri mintsu biurtuko litzake; ta olatuen lurruna bera, zuretzat, ittoko zendu-kezan arnasa larri ta estu. Ez dozu lortuko. Ez! Ez!! (*Zutik geldi-tzen da, arro, itsutasunaren eta barruko berotasunaren garrez.*)

## VI

### IZAR, KAPI eta PELI

KAPI.—Zutik eta lo?

IZAR.—Zutik eta pentsaten.

KAPI.—(*Burlaz.*) Maitemiñetan.

IZAR.—(*Bero.*) Kapeladun agure berde eta lizunen maite-miñetan, orbela jausi ondoren!

KAPI.—Ba!

PELI.—Urrungaitzez?

KAPI.—Ittotasuna nasaitu nairik?

IZAR.—Ez. Pentsaten. Ez maitemiñetan, ez urrungaitzez. Asarrez nago! Irakiten!

KAPI.—Ez lertu.

IZAR.—Lertu ez, baiña eten bai. Ixilla eten bai, goiak bera etorrita be. Nasaitu bai... itxasoak iruntsita be!

KAPI.—Peli, baretzekorik, kalmanterik ba daukazu barruan?

PELI.—Zetarako alperrik?

IZAR.—(*Bizi.*) Drogak daukadaz! Ez zenkien? Kontrabandoko drogak! Zegaitik uste dozue poliziak deitu dabela? Zetarako daukazue kapela zar ori? Kaskarra illunduteko? Peli, orain ogetabi urte zer ziñan zu?

PELI.—Orain ogetabi urte jayoteko nenguan.

IZAR.—Baiña zure biziaren sustraia nunbaiten egongo zan. Amatasuna osotu egingo da il batzuen buruan, baiña aitasuna gizonak beragan ekarriko du, gizondu ondorendik. Ez?

PELI.—Itxastarrak biologi gitxi ikasten dogu.

IZAR.—Bizitzeak nai ta ez erakusten dau ori.

KAPI.—Ta zer? Zetan dator ori?

IZAR.—Peli, Artxandako kondearen barririk ba dakizu?

PELI.—Ez dakit.

IZAR.—Zezena lako zan.

KAPI.—Esperientzi asko daukazu.

IZAR.—Zure emazteak geiago.



- KAPI.—Baketan dago. (PELI'ri.) Guazen.
- IZAR.—Oraindik ez. Nasaitu bear naiz, barruan daroadan ittotasuna kenduz.
- KAPI.—Barakaldoko lurrinak ez dautzue orain eztarririk urratuten?
- PELI.—Min andi batek txikiago bat aztu eragiten dau. Ez al da ala?
- KAPI.—Edo bi bizi eragin.
- IZAR.—Artxandako kondeak eundak langille eukazan. Ez zenkien?
- KAPI.—Eta kapellau bat. Ez dakit zetarako.
- IZAR.—Espirituaren gauzak aparteko bear dira, nai ta beti santu santuak izan ez.
- KAPI.—Bear ba da or be zerbait jakin ziñei.
- IZAR.—Nik dakidana da emengoen espiritua gorputzaren barruan eta menpean dagoa.
- PELI.—Orrela dala, aragia zelako espiritua alako?
- IZAR.—Nik, orretan, neure esperientzia daukat.
- KAPI.—Esperientzi bizia beintzat.
- IZAR.—Lengora. Bilboren sakoneko burdin meatzak kondearenak ziran.
- KAPI.—Eta barku onetako aziñorik geienak be bai.
- IZAR.—Baiña bere langillerik ez eban ezagutzen. Euskaldun base-rritarrak bularretik ipiñi ondoren, Castilletatik ekarri zitun makutodun errukarriak, soñean soñekoak eta gosez arrakalatuta. Danak bardiñak ei zirean miseriaren menpean eta iñor ezagutzen ez zan alegindu. Baiña ez egoan Bilbon andre ederrik eta alairik, Madalena deitu edo ez, arek ezagutu ta ikutuko ez ebanik.
- KAPI.—Kontu baltzak eta gordiñak goizaldean obe dira, illuntzean baiño. Ta Ekuador'eko izerdi likiñetan obe, Euskalerra «santuko» gau otzetan baiño. Goazen, goazen, Peli.
- IZAR.—Ez. Kapitanen «kortesia» zenbatekoa dan igarri nai neuke, kapitanesen arrokeria ta zitaltasuna ikusi ondoren.
- KAPI.—Aker biurtu nai?
- IZAR.—Ta batez be gizona zer dan erakutsi nai neuke, andre baten aurrean... itsututen danean.
- KAPI.—Peli, txarto ikasi aurretik. guazen.
- IZAR.—Entzun, zuen erriko kondea aitatu dautzuet len.
- PELI.—Alako ba zan, obeto dago kanposantuan.
- KAPI.—Langilleak izerdi gitxiago botako dabe aloger barik.
- IZAR.—Ta Madalenak esne galdu gitxiago irutsi ta zikinkeri gitxiago egin. Baiña entzun.
- KAPI.—Zuk esan eta guk erantzun.
- IZAR.—Ez da olgetako. Negar egin bearko dozue biok. Biok. Ez zenkien? Ezin nei ixildu. Lotsaz nago... amorruez aiña. Ezin dot... ezin. Baiña ixildu be ez.

PELI.—Zenbat eta lenago nasaitu, ariñago bizitu.

IZAR.—Alaxe da. Peli... minduko zaitut. Ba dakit negar eragin bear dautzudana. Ba dakit, bear ba da.

PELI.—Zer? Esan.

IZAR.—Ba zenkien zure aita Artxandako kondea zana?

PELI.—Zoro zagoz?

KAPI.—Zelan esan ziñei ori? Nundik atarata?

IZAR.—Eta zure ama... Toba dana?

KAPI.—(*Bero.*) Eta ez zenkien amesetan diarduzunik? Eta ez zenkien larregi esan dozunik, amesetan be? Peli, zer falta dogu ikusteko ta entzuteko?

IZAR.—Bai! Bai!! (*KAPI eta PELI juaten dira asarre antzera.*) Ez igesi. Esango dautzuet. Argiago esango dautzuet. Nai dozuen aiña zertzelada emongo dautzuedaz. Sinistu egidazue. Argitasun gutiekin agertuko dautzuet...!! (*Joaten da.*)

## VII

### TOBA bakarrik

TOBA.—(*Beterik urtenda dator. Minduta, barru barrutik minduta.*) Zikin! Azpi jantzalle!! Saldu...!!, besterik ez esateagaitik. Itxaroten neban. Nire senarra ezagutu zendunetik, ba nekien zetan amaituko zendun. Biotzik bako andre negargarri! Ofizioko lagun bat baiño okerragorik ez dago iñor nastatzeko. Saldu nau! Zelotan ebillan. Igarten neutsan. Ezin nindun ikusi... ta saldu nau! Nire izakera guztia jakingo da. Nire bizitza baltza... gordin gordin agertuko da. (*Itxasoari begira asiko da, bere bostean, ixiltzu, bidegabeko erabagien bat artu nai ba leuken eran.*) Itxaso...!! Itxaso sakona...!! Ez...!! Ez...!! Kobardiegi naz. Itxaso ez da kobardeen iltokia. Itxaso kapitan andien misteriozko eta ohorezko gorde-lekua da ta ez bizitzeaz lotsatu diranena! Ez...!! (*Barru, lengo antzera.*) Itxaso...! Itxaso zabala!! Leenago be ikusi zindudazan, oraintxe lez... Ta ez nitzan ausartu. Ta biziari begiratu neutsan... tatarrez ibillita be. Itxaso...!! Barcelonan be ikusi zindudazan; goseti ta gaixo nebillela zure egalera urreratu nitzan... ta bizia maiteago izan neban. Ta jaso nitzan. Itxaso...! Ez...!! Ez!!! Nirea al da bizia? Eta izarrik ez al da goietan... gora begiratzeko? Eta biotzik ez ete da munduan, gizon antzera agertzeko... edozer, edozer eta edozein izan da be...!



## TOBA eta KAPI

KAPI.—(Agertuaz, garratz.) Toba! Itz egin bear dogu.

TOBA.—Ez.

KAPI.—Zegaitik ez?

TOBA.—Izar'ek itz egin dautzu.

KAPI.—Ta?

TOBA.—Esan geinkena ba dakizu.

KAPI.—Zer? Benetan? Egia? Ez da guzurra?

TOBA.—Mingain gaiztoak benenoa eukiten dabe mingañaren puntan, estututa aurkituten diranean botateko.

KAPI.—Baiña, esan egidazu...

TOBA.—Ba dakizu.

KAPI.—Zer dakit?

TOBA.—Entzun dozuna.

KAPI.—Entzun dodana? Dana?

TOBA.—Edozér ba da be, bai!

KAPI.—Ezin lei. Ezin lei. Ezin nei sinistu.

TOBA.—Sinistu egizu.

KAPI.—Toba! Ni zirikatzen zabiltz. Ni tentatzen diarduzu. Nire urteerak eta nire erreaziñoiak ikusi nai dozuz.

TOBA.—Ez. Egia da.

KAPI.—Zer da egia?

TOBA.—Gauza onetan... norbere bizi modua eruan daben batek bakarrik jakin leikeana.

KAPI.—Ogetalau urte daroaguz alkarrekin. Sekula itz erdika bat ez daustazu esan... Ezin lei. Ez nitzake senarra, sinistuko ba neu... ez nitzake gizon be.

TOBA.—Ez nagizu larritu. Ez zaitetz orrela jardun. Itz egizu, nasaitu zaitetz... asarratu, garratzu, sutu...; urten nai ba dozu zeuretik eta esan edozer, edozer, esan edo egin... baiña nigandik urrun. Ba dakit eskubiderik ez daukadala. Ba dakit.

KAPI.—Zegaitik ez zendun sasoz agertu?

TOBA.—Noiz?

KAPI.—Asi giñanean.

TOBA.—Itsuegi zengozan. Igarten neutzun. Esan da be... ez ninduzun bastertuko... parkatu egingo zendun. Ba dakit. Ziur nago. Eta orain besterik ez esan.

KAPI.—Ta? Orain jakinda be...

TOBA.—Jakin ba zendu... emakume galdu bat izango nitzan bizi



guztirako zuretzat. Nortasunik ez neban eukiko bizitzan. Zu be keixu ibilliko ziñan beti, beti kezka orrekin.

KAPI.—Zure ustea da ori.

TOBA.—Ez dago gizonik barruan bein arra sartu ezkeru botaten dakanik. Barruan eruaten ez dabenik.

KAPI.—Ez nazu ezagutzen. Ta txarrena, nik be ez zaitut ezagutu.

TOBA.—Kapitan batek ibillaldi bat egin ondoren, osterako liburua sarratuta lagaten dau betiko.

KAPI.—Laga kapitanen kontuei.

TOBA.—Barcelonara juan nitzanean...

KAPI.—Nun zendun semea, nik libre ezagutu ba zindudazan beti? Nun?

TOBA.—Ara juan nitzanean, semearen maitasunez joan nitzan.

KAPI.—Semea lagata.

TOBA.—Ba nekien Bilbon barriro jausiko nitzala, emengo girora egiña negolako, ezagun geiegi neukalako ta barriro zirikatuko ninduelako.

KAPI.—Ta ez zendun ezer esan. Zegaitik? Atzipetu ninduzun, engañatu, salduta erosi!

TOBA.—Esan eta ukatu ba ninduzun... barriro jausteko posibilitade bat igarri neban. Barriro kalean asteko bildurra neukan; barriro zikin tokietara joateko arriskuan ikusten nitzan... ta... (*Negarrez.*) ezin dot... Laga nagizu!

KAPI.—Zer? Len egin bear zendun negar. Esan. Jarrai.

TOBA.—Ni galduta negoan. Barriro lengo bidera jo eskero, ez ninduen bildurtzen biziodun gizonak. Ez ninduen bildurtzen familiei traziñoia eginda bizi diran gizon galduak, gaixoak. Oraindik garbi diran gazteak bildurtzen ninduen. Nundik jokatu ez dakien gazte barriak atzeratzen ninduen. Ta... naiago izan neban bat bakarri lotu.

KAPI.—Bat izorratu.

TOBA.—Ori ez. Ez zan ori nire asmoa. Zorioneko egiteko asmo eta garretan ninduzun.

KAPI.—Engañutik ez dator zorionik. Sekula be ez. Egiak, garratz izan da be, egiak bakarrik dakar zoriona. Nik ez nekiala, seme bat euki zendun. Gizon galdu baten semea. Ta aitatasunik ez eutzun emon. Eta diruz mututu ziñan. Bere langille erukarrien izerdiak biziotarako eta putatarako zitun gizon nasai bateri, diru apur batzuekaitik, beste askoren antzera segurutik, izenik ez zeuntsan loitu izan nai. Eta niri... zuri bakarrik eskiñi nitzan oneri...

TOBA.—Ba dakit. Esan zeinkena ba dakit. Ez jarraitu. Ixil, ixil zaite, mesedez!!

KAPI.—Ni... ixil...! (*Makurtuz.*) Ixil bear... ittotasunez!

## TOBA, KAPI eta PELI

- PELI.—(*Agertuaz, itzal, baiña bere-berean.*) Kapitana! Kapitana!
- KAPI.—Ez niri itzik zuzendu. Ez zaitetz nigana etorri.
- PELI.—Barkuan ez da ezer igarten.
- KAPI.—Ta zer?
- PELI.—Mariñelak betikuak dira.
- KAPI.—Ta zer?
- PELI.—Iñok ez dau gauza barririk oartu.
- KAPI.—Ta zer?
- PELI.—Osterea egiten datozen ogetamar kanpoko lagunak, zuzen dagoz.
- KAPI.—Zuzen!
- PELI.—Polizoirik ez da inun igarten.
- KAPI.—Ez!
- PELI.—Tarterik ez dogu laga ikusi barik. Ta bizirik beintzat ez dator inor.
- KAPI.—Ez!
- PELI.—Maletetan ez dago sospetxarrik eta berezirik zabaltzen dabenik.
- KAPI.—Kontrabandoak maleta zaarretan egiten dira. Ez zenkien? Normaletan. Betikoetan.
- PELI.—Etxeko telegrama bat dago ainbat lasterren erantzuteko zer billatu dogun, erabagi bat artu al izateko.
- KAPI.—Pekaturik andienak andre normalak egiten ditue. Ez zenkien?
- TOBA.—Ixil zaite.
- KAPI.—Zure semeak jakin bear eban. Ez da zure semea?
- PELI.—Kapitana! Lanean nago. Serbizioan. Telegrameari erantzun bear dauzagu.
- KAPI.—Peli, biotzik ez daukazu? Odolik ez daukazu?
- PELI.—Kapitana, nire zeregiñaren ardura daukat une onetan.
- TOBA.—Gorrotatzen nazu. Ba dakit. Ba dakit. Zitalkeriz erakusten daustazu, zitalkeri otzez, zitalkeri garratzez!
- KAPI.—Peli, itz egin daigun, gizonik-gizon.
- PELI.—Nire ardurak amaitu ondoren, nire serbiziotik gero itz egingo dogu, premiña ba da biotzik-biotz. Zer erantzungo dot?
- KAPI.—Eztakit. Erantzun nai dozuna.



## TOBA, KAPI, PELI eta IZAR

IZAR.—(Agertuaz.) Garratza da bizitza.

KAPI.—Zer dakartzu?

IZAR.—Bizitzea barriztuten asteko gogua. Lizunak kentzeko garra. Kateak eteteko premiña. Sustrai-sustraitik. Adoretsu sentiduten naz.

TOBA.—Joan zaite emendik, pizti zatarroi.

IZAR.—Bizitzako problemak ez dira argitzen bildurrez eta lotsaz bas-terrean lagata.

TOBA.—Ez dira argituko be bakea etenda. Ez zaitut nai ikusi. Zoaz!

IZAR.—Kapitana. esku-banda onetan egoteko eskubiderik ba daukat?

Bestean ezin lei egon. Andre moskor bat dago lurrean etzanda.

KAPI.—Peli, begiratu nor dan eta zaindu egizu.

IZAR.—Itxaron. Andra ori ezagunegi da niretzat eta zure emaztea-  
rentzat.

TOBA.—Beste maltzurkeri bat?

IZAR.—Beste argitasun bat geiago oraindik.

KAPI.—Zer? Beste seme bat?

IZAR.—Edo alaba bat. Zegaitik ez?

TOBA.—Agiñak atarako dautzudaz! Zetan lagaten dautsazue jarrai-  
tzen?

IZAR.—Orain, nire eskubidez. Nire zerbait agertu bear dodalako. Nire  
soñari ta nire biotzari ta nire izateari ikututen dautsanadalako.

Kapi, zuk ba dakizu zure emateak seme bat izan ebalá. Iruntsita  
zagoz

KAPI.—Jakín bai, ta sinistu...

IZAR.—Iruntsita zagoz. Ez ukatu. Beraz ba dakizu zure emaztea ama  
izateko kapaz zala.

TOBA.—Nora zoaz? Ez dozu azpikeririk amaitu? Zer nai dozu orain?

KAPI.—Geldi!

IZAR.—Baiña ba zenkien zure alabea... zurea ez danik?

KAPI.—Zoro dagoz? Edo zoro nagolakotan diarduzu?

IZAR.—Gogoratu... Peli, zenbat urte daukazuz?

PELI.—Ogetabi egiteko.

IZAR.—Zure amak berrogetasei, nik baiño bat geiago.

KAPI.—Ta zer?

IZAR.—Peli, edozein egunetan zure jaiotzaren agiria eskatu ziñei Bil-  
boko Amatasun etxean.

PELI.—Zetarako?



IZAR.—Anai arrebarik euki ezin zeinkela konturatuko zara fitxa aretan.

TOBA.—Zelan esan ziñei ori? Nundik atarata?

KAPI.—Orretara, ta zoratzen ez ba nazue, nik ekarritako alaba ez da nirea? Peli, lemia ondo dago?

PELI.—Ustez, bai.

KAPI.—Makiñak be bai?

PELI.—Ez dago kontrakorik.

KAPI.—Ur gaiñean gagoz?

PELI.—Barkuan egon ezkerero...

KAPI.—Beraz, ez gagoz zoroetxe baten.

IZAR.—Ta ni be ez. Ni be ez! Zure emazteak ume garra agertuko eutzun oi dan lez.

KAPI.—Barruko bizitzari, gure arteko bizitza ixillari ez ikutu, mesedez.

IZAR.—Ezin dabenak gar geiago eukiten dabe ta ezkontzea justifikatzeko premiña geiago. Kapi. Zure aitatasunaren lenengo barriak, ezkontzetako barri pozgarriak, etxean artu zenduzan?

TOBA.—Edozein andre txatxalari gure barruko izatea agertu bear al dauzagu? Goazen, Kapi. Ezin nei geiago. Edozer izan ba naiz be, ezin nei!

IZAR.—Mesedez! Laster joango zarie. Parkatu, Kapi. Gogoratu.

KAPI.—Ainbesteko jakin naia ba dozú, barku onetantxe, Pillipinas'etatik gentozala.

IZAR.—Eta zure emazteak ba ekian barriro joateko ziñala?

KAPI.—Urte birako. Ba ekian.

IZAR.—Eta bera ez zan zeurekin joan.

KAPI.—Amatasunik ez galtzearren.

IZAR.—Zer galdu? Sinistu; ez eukan ama izateko gairik. Ez eukan sein lekurik, ez eukan bizi barririk indartzeko aalik, mamiñik ez muiñik. Ez zenkien? Peli jaio zanean ebagi ta kendu eutzezan.

KAPI.—Ori egia ba da... Ori egia dalako... bere amatasuna Bilboko Casa Cunan iñoren odoleko neska bat artuta billatu eban. Toba!!

TOBA.—(Burua makur, erantzunik ez.)

KAPI.—Toba! Au be egia da? Esan! Egia da?

TOBA.—Bai.

KAPI.—Zegaitik egin zendun? Zegaitik?

TOBA.—Zeugaitik.

KAPI.—Nigaitik? Zegaitik?

TOBA.—Zuri poz emotarren. Zuri bizi barri bat eskintzearren.

KAPI.—Baiña atzipetu, engañatu ninduzun.

TOBA.—Bestera eukiko ez zendun bizi barri bat sortu neutzun. Ez ukatu. Ez ukatu orain itxaropen barri bat sortu neutzunik. Ez

ukatu gizontasun barri bat emon neutzunik. Ez ukatu... amesez eta kezka eta maitasunez biziteko indarra eta gogoia emon neutzuzanik.

KAPI.—Ta orain? Orain? Ez nazu ikusten danen lotsari, salduta, minduta, etenda?

IZAR.—Eta alaba ori... nirea zan. Nire alaba zan.

KAPI.—Peli, benetan be ondo gagoz?

PELI.—Ekaitz baltza da au, kapitana.

IZAR.—Nire alaba zan, bai! Argalkeri baten alaba. Mundu gaizto baten alaba. Baiña nirea!

KAPI.—Nundik dakizu?

IZAR.—Peli, Bilboko Casa Cunan zeñek artu eban nire alaba?

PELI.—Kapitana, Bilboko Casa Cunan eta gure barkuan klabe bardiña dago ixillekuak gordeteko.

KAPI.—Zelan dakizu? Nundik?

PELI.—Ni Casa Cuna orretan anditu nitzalako, aitatasun eta amatasun barik. Bilboko Casa Cunan, orain amabi urteko Mayatzaren bostean dagon fitxan, klabean, auxe esaten da: Neska. Sopelanako Aboitiz kapitanaren emazteak beretzakotua.

IZAR.—Nirea zan. Ba ekian Tobak.

KAPI.—Peli! Itxaso zabala da. Itxaso luzea da. Itxaso sakona da. Baiña itxasoan be gizontasuna bear da. Itxasoan be kontzientzia bear da. Itxasoan be amesa bear da. Ta biziteko arnas garbia. (*Galoiak besotatik kenduaz.*) Peli...! Zu joan ziñei aurrera. Ni ez! Ni, oraintxe bertan, liorreratuko naz. Eta Sopelanako baster baten eskutatuko naz.

IZAR.—Sopelanara ni joan bear naz zure aurretik.

TOBA.—Guzur barriak agertzen?

IZAR.—Nire alaba billatzen. Nire alabari laztan bero bero bat emoten.

KAPI.—Zoritxarrez, il zan alaba.

IZAR.—Zorionez bizi da alaba.

TOBA.—Ez daustazu kenduko! Ez daustazu ostuko! Eskubiderik ez daukazu! Urteak laga dozuz eskatu barik! Eskubideak galdu dozuz!

KAPI.—Zein alaba? Besteren bat? Nik ez dakien bat aurreragotik?

IZAR.—Yone.

KAPI.—Yone? Kanposantutik be atara nai dozue? Joan zaitze danok emendik! Peli! Arlankak jasoteko agindu.

PELI.—Ezin giñei etxearen eta poliziaren aginduen aurka joan.

KAPI.—Ez jaramonik iñori. Ni naz kapitana. Makiñak ibilten ipiñi ta urten daigan. Bira osorik lemiari. Guazen aurrera.

PELI.—Ezin giñei.

KAPI.—Ez al naiz iñor?



PELI.—Zeuk galdu dozu nortasuna.

KAPI.—Galoiak falta dodazalako? Itxurei begira? (*Asarre, bizi-bizi.*)

Barrabillak falta yataz. Dana jo ta apurtu, dana eten eta ebagi-  
teko kobardegi naizalako.

IZAR.—Oraindik... oraindik ez.

KAPI.—Oraindik ezetz? Ez.

IZAR.—Zure alaba nirea da. Ba dakit eskubiderik ez dodala, odola-  
rena ezik. Laga egin neban. Bizi premiñan. Nire bizitzatik urten  
nai nebalako nik be ta berari bizitza zatarrik ez erakusteagaitik.  
Ala ta be, nirea da. Ezin ukatu. Ezin ziñei. Edo bestela... oraindik  
ama izateko gai naz. Ezin nei bakartadean bizi. Ezin nei espe-  
rantza barik bizi. Ezin nei Kety gure adizkide galdua lez, mos-  
korrean eta drogaetan bizi.

PELI.—Zeñek moskortu eta drogatu dau Kety?

KAPI.—Zein Kety?

IZAR.—Zure emazteari erantzuna eskatu.

PELI.—Poliziak billatzen daben emakumea Kety da.

KAPI.—Ontzian ez dator iñor Kety izenekorik.

IZAR.—Igone Dongaitz, listakoa, Kety da.

KAPI.—Nok daki ori?

IZAR.—«Klabeliñetan» eta «Potxoletan», gure sasoiari, Toba, Kety  
eta Izar giñan entzutetsuenak.

KAPI.—Eta ni... irurokin batu naz zimeldu naizenean.

IZAR.—Peli, ekarri bear zenduke gure aurrera.

TOBA.—Zetan ekarri? Gaixo bat da. Galdu bat. Bere jaube ez dan bat.

IZAR.—Egia esaten dakian gaixoa. Ta zuk, nai dozuna eragiten jakin  
dautsazun gaixoa. Ona nentorrela, Ameriketatik netorrela, bera-  
gandik artu zendun albistea. Eta zoratu ziñan, nire alaba zendu-  
la ba zenkialako. Eta zure zeloak iruditu eragin eutzuen zure  
senarra, barkuan, emakume atsegiñen atzetik ibilliko zala, eta  
jakiña, nire inguruan. Eta telegrama bi bialdu zenduzan, Bilbora  
eldu aurretik, eskutatu zendun alaba il zala niri sinistu eragitea-  
rren, bere billa ibilli ez nedin.

KAPI.—Toba! Ez dago geiagorik? Nun da gizonaren eskubidea eta  
senarraren izatea? Nun alkarri eskiñi geuntsan alkartasun eta kon-  
fiantza? Nun da billatu nai zendun zorion bidea?

PELI.—Yone izan lei bidea.

IZAR.—Yone nirea da.

KAPI.—Yone gurea da. Yone gurea da! Nik sortua ez ba da be gurea  
da. Ta bear ba da... nik sortua. (*Bizi.*) Galoiak galduko dodaz,  
entzutea zikinduko dot, osasuna bera minduko yat betiko... bai-  
ña Yone gurea da.

IZAR.—Odolez ez!

KAPI.—Eskubidez bai!

IZAR.—Eskubidea zurea dala uste ba dozu, nik be eskubidea daukat, alaba emon neutzun orreri, niretzako beste alaba bat zugandik eskatuteko.

TOBA.—(Garratz.) Kapi!

IZAR.—(Bigun.) Toba! (Alkarri begira, buruekin, ezetzak egiten ditue.)

PELI.—Kapitana, zer egin bear dogu orain?

KAPI.—Ez dakit.

IZAR.—Sopelanara jo.

PELI.—Etxeari zer bait erantzuteko ordua da. Polizia be zai dago.

KAPI.—Erantzun.

PELI.—Zer?

IZAR.—Ontzian sua dagola ta ezin leikela osterarik egin.

KAPI.—Aboitiz kapitana bere jaube ez dala.

PELI.—Ori ez da egia.

KAPI.—Nik ez dakit zer dan egia bizitzan.

IZAR.—Nik ba dakit zer dan egia bizitzan.

KAPI.—Zeri itxaroten? Ez dozu erantzun nai? Onez ez ba da, aginduz. Esan argi: Aboitik kapitana andre atsegiñak zoratu dabela, beretik atara dabela. Andre atsegiñak itsutu dabela.

PELI.—Ta poliziar?

KAPI.—Emengo drogak andre atsegiñetan dagozala.

PELI.—Kapitana!

KAPI.—Zer?

PELI.—Ekatzuz galoiak.

KAPI.—Zetarako?

PELI.—Arrisku ta guzti, ontzia Sopelanako aurrera eruango dot, Yone'ren aurrean, ezer ez dakian Yone garbiaren aurrean, bizia ames eta gogo barriz asi daigun. Bilboko ibaiaren lurruna astu-negi da bizia argi ikusteko!

## AMAYA





## BIBLIOGRAFIA

# 1970 eta 1971 ko Euskarazko Liburuak

1963tik hasiera eman genion zerrendari jarraituko diogu. 1963-1969 urteetako en berri jakin nahi duenak, EGANen 1969ko 4-6 zenbakiaren 158/168 eta 1970eko 1-3 zenbakiaren 133/136 orrialdeetan aurkituko ditu.

Zenbait liburu atzeratua ateraenez, ondoko urteetan osatuaz joan gara, eta oraingo honetan ere 1969ko zerrendari gehigarri hau egin beharra dugu, urte horrekin argitaratu ziren liburuenak:

**Errialde guzien historia**, Werner Watson (J. Gokoetxeak itzulia). "Margo Ederdun Enzikloedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.

**Jesus**, Domingo Soubelet. Baiona.

**Obrak mintzo**, J. B. Etcheberry. Imprimerie des Cordeliers. Baiona.

bertan nabarienez, euskararen batasunaren alderako giroa geroago eta bizkorrago doala bere bidean aurrera.

Lehenago esan bezala, 1963an lehen aldiz lortu zen hilean bi liburu argitaratzea, 1966tik hirura heldu zen eta 1970ean laura. Beraz, azken bi urte hauetan, batz-beste, asteroko liburu batera heltzen da euskarazko liburuaren produzioa. 1970ean 55 liburu argitaratu ziren eta 1971an 56.

1972a, Nazio-arteko Liburu Urtetzat UNESCO-k jarri digunez, euskarazko liburuetan, gutxienez, heldu den mailari eutsiko diogun esperantza dugu. Hala bedi.

Beste gabe, hara azken bi urte huetako en zerrenda:

- Afrikar iraultzaren alde**, Frantz Fanon (Arantza Urretavizcaya eta Ibon Sarasolak euskaratua). Lur Editoriala. Donostia.
- Alkain aita-semeak**, Iñaki Alkain - Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Ardo eta ogi Martxelin**, José María Sánchez-Silva (J. M. Satrustegik euskaratua). Gómez Argitaldaria. Iruña.
- Argi bat iluntasunean**, Xabier Gereño. Lur. Donostia.
- Arrotza**, Albert Camus (J. M. Agirrek euskaratua). Irakur sail. Donostia.
- Atano ta Estrada bertsolariak**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Athea gaitzeko oihartzunak** (erderazko itzulpenakin), J. B. Daskonagerre. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S. A. Donostia.
- Azkoitia'ko zenbait bertsolari**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Baserriko irabazbideak**, Zabalegi Nekazari-eskola. Donostiako Aurrezki Kutzak argitaratua. Donostia.
- Batasunaren kutxa**, Euskal Idazleen Elkarteak L. Mitxelenaren agintaritzapean hartutako erabakien gainean G. Arestik eta X. Kintanak moldatutako liburua. Lur. Donostia.
- Bertrand Russellen azken iritziak**, Eiharalarrek euskaraz emana. Irakur sail. Donostia.
- Bertso mordoxka**, Manuel Lasarte. Auspoa. Tolosa.
- Biblia-ikasketa**. Catequesis bíblica (Euskera-erdera), Anastasio Albisu eta Donato Arrinda. Gasteiz.
- Bidasa aldeko bost bertsolari**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Bidean gora** (olerkiak), Munaitegi'tar Sabin. Bilbao.
- Biotz begietan**, X. Lizardi. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Bizi garratza - Mendu zaharrak** (bi antzerki), Agustin Zubikarai. Irakur sail. Donostia.
- Bizkaiko dantzak** (Euskera-erdera), Jose Luis Etxebarriak Sabin Larrea-ren laguntzarekin. La Editorial Vizcaína. Bilbao.
- Bizkaiko euskal idazleak**, Mikel Zarate. Bilbao.
- Eguberri abestiak** (bilduma). Edili. Donostia.
- Eguberri kantak** (bilduma). "Jaunaren deia", Lazkano.
- Euskal alorretik** (bilduma). Ika. Baiona.
- Españi'ko olerkariak euskeraz** (II eta III aleak), Etxebarria'tar Juan Anjel-ek euskeratuak. Bilbao.
- Estelas funerarias del País Vasco** (Erdera-euskera), José Miguel de Barandiarán. Txertoa. Donostia.
- Euskal esku-langintza** (I eta II tomoak, euskeraz eta erderaz), Garmendia ta Larrañaga'tar Jon. Editorial Añamendi. Donostia.
- Euskal kantak** (bilduma), argitaratzailearen izenik gabe. 1970-eko Maiatza.
- Euskal protestantismoa zer zen**, Joannes Leizarraga. Lur. Donostia.
- Giza soñia**, Goikoetxea'tar Iñaki. Euskerazaleak. Bilbao.



- Goierriko lorak**, Inozentzio Olea. Auspoa. Tolosa.
- Goiznabar** (Olerki bilduma, 1929-1950), Alta Onaindia. Bilbao.
- Gonzalve edo Ostatu betea**, Elémir Bourgos - P. Lafitte. Collection "Gure Herria". Baiona.
- Gure Lur osoaren Lutelestia**, E. J. Werner (N. Etxanizek euskaratua), "Margo Ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Gure Urretxindorra**, Enbeita'tar Kepa. Ekin Euskal Argitaldaria. Buenos Aires.
- Harrizko herri hau**, Gabriel Aresti. Lur. Donostia.
- Haur besoetakoa**, Jon Mirande. Lur. Donostia.
- H gabeko umoria**, Iñaki Linazasoro. "Kuliska Sorta". Itxaropena. Zarautz.
- Hunik arrats artean**, Anjel Lertxundi. Lur. Donostia.
- Ibar ixillean**, Antonio Valverde "Ayalde". S.G.E.P., S. A. Donostia.
- Ibiltze azkarraren mundua**, C. Dollfus (José Luis Ansorenak euskaratua). "Margo Ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Itxura-aldaketa**, Franz Kafka (Xabier Kintanak euskaratua), Arantxa Urretavizcayaren hitzaurreaz). Lur. Donostia.
- Izartegia**, R. Guillot (L. Dorronsorok euskeratua). "Margo Ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Literatura eta Kritika**, Patri Urkizu. Lur. Donostia.
- Liturji goratzarreak**, II (Etxebarria'tar Juan Anjel-ek latineratik euskeratua). Bilbao.
- Loiola'ko Iñigo** (antzerkia), Arrizabalaga'tar K. M. (Massana eta Odriozola-ren doinuz). Zarautz.
- Lurraren kondaira**, Salvador Garmendia. Irakur sail. Donostia.
- Mendebaleko ekonomiaren historia (Merkantilismotik 1914-ra arte)**, R. Saizarbitoria, I. Sarasola eta A. Urretavizcaya. Lur. Donostia.
- Meza barria**, José Domingo Ugartetxea. Markifiako Karmeldarrak.
- Noelak eta berze kanta espiritual berriak**, Joannes Etcheberri. S.G.E.P., S. A. Donostia.
- Peru Abarka**, J. A. Mogel (Euskaraz eta erdarazko itzulpenez). Editorial "La Gran Enciclopedia Vasca". Bilbao.
- Pierre Topet-Etxaun** (Barkoxe kobleriaren bizitzea laburki), P. Lafitte. Editions "Herria". Baiona.
- Salvatore Mitxelena** (bilduma), San Martín, Azurmendi, Txillardegi, Villasanté, Torrealday, Etxaniz, Agirretxe, Lekuona, Schwob. "Jakín sorta". Arantzazu - Oñati.
- "Semeno de Lazkano"**, A. Arrinda Albisu "Anes Lazkauko". Zarautz.
- Soziologiaren hastapenak**, Andoni Sagarna. Lur. Donostia.
- Sustrai bila**, Larresoro. Irakur sail. Donostia.
- Xomorroen mundua**, F. Lacroix (M. Iturbek euskaratua). "Mardo Ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Zubeltzu ta Saikola bertsolariak**, Antonio Zavala. Auspoa. Tolosa.

- Ahal dena, Mattin Treku. Auspoa. Tolosa.
- Ajea du Urturik, Anjel Lertxundi. Etor. Bilbao.
- Amazonetako indioak, Lur Editoriala. Donostia.
- Animalien bizitza izkutua, Giuseppe Zanini (Jokin Apalategik euskaratua).
- Col. Walt Disney, Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Antxitxarburu-ko buhamiak, Jean Barbier. Collection Ikas. Baiona.
- Atsotitzak eta Neurtitzak, Oihenarte. Irakur sail. Donostia.
- Bai mundu berria, Aldous Huxley (X. Amurizak euskaratua). Lur. Donostia.
- Balearen arrantza, Lur Editoriala. Donostia.
- Breve guía montañera - Menditar artezari laburra, Josu Altuna "Basa-jaun". Bilbao.
- Cuentos del Bidasoa - Bidasoako kondairak, Luis de Uranzu (Hernandorena eta Irigarayk euskaratua). Donostia.
- Egaztien mundua, J. Dorst (J. M. Aranaldek euskaratua). "Margo Ederdun Enziklopedia". Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Ekai-arauketa dialektikorrari buruz, Iulen Madariaga. Herbestean.
- Euskaldunac, J. M. Hiribarren (Bigarren argitalpena). Auñamendi. Donostia.
- Euskal aditza. Batua? ...baturakoa, Patxi Altuna. Etor. Bilbao.
- Euskal erria eta ikastola, José Lasa Apalategi. Donostia.
- Euskal Herriaren Historia, Federico Zabala ("Jakin" taldeak euskaratua J. Intxaustiren zuzendaritzapean). Jakin eta Etor. Bilbao.
- Euskalerrriaren Yakintza (IV tomoaren bigarren argitalpena), R. M. Azkue. Espasa-Calpe, S. A. Madrid.
- Euskal Herriko Ekonomiaz (1955-1967), Gurutz Ansola. Etor. Bilbao.
- Euskal Herriko Historiaren laburpena, F. Zabala eta J. A. Iglesias. Donostia.
- Euskal idazleak - Juan de Tartas, J. A. Etxebarria. Zarautz.
- Euskal Kulturaren Historia, Lasalletarrak. Bilbao.
- Euskal Literaturaren Historia, Ibon Sarasola. Lur. Donostia.
- Euskara gaur, Gaur, S.C.I. Lur. Donostia.
- Hegatsez (Hitz-lauzko bilduma), S. Basauri eta J. San Martín. "Kuliska Sorta". Itxaropena. Zarautz.
- Hitz berdeak, Joxe Azurmendi. Editorial Franciscana. Aránzazu - Oñate.
- Hizkuntza, etnia eta marxismoa, Joxe Azurmendi. Euskal Elkargoa. Baiona.
- Industriaketa aundiak, Espezialista askoren artean egina (L. Dorronsorok euskaratua). "Margo Ederdun Enziklopedia". Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Isolotoko katekima. Etor. Bilbao.
- Itsasoko gauza harrigarriak, Frank de Graaf (Gexan Lantzirik euskaratua).



- Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Izatearen malura**, Xabier Azurmendi. Etor. Bilbao.
- Jainkoaren billa**, Nikolas Ormaetxea "Orixe". Etor. Bilbao.
- Jendeak eta bizilekuak**, Jane Werner Watson (Larresorok euskaratua).
- Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Kaniko eta Beltxitina**, Jakes Oihenarte. Lur. Donostia.
- Kristoren Eliza**, Aita J. A. Goiria. Bilbao.
- Kultura eta Fedea**, P. Agirrebaltzategi, P. M. Zabaleta, A. Sagarna, J. M. Torrealday, I. Bereziartua, J. M. Diez-Alegria. Jakin. Oñati.
- Lan alokatua eta kapitala. Alokairua, prezioa eta irabazia**, Karl Marx X. Kintanak euskaratua). Lur. Donostia.
- Langileria historian zehar**, Mikel Ugalde. Etor. Bilbao.
- Lau gartzelak**, Nazim Hikmet (G. Arestik euskaratua). Lur. Donostia.
- Larre gorrian**, Obras Musicales del Padre Donostia. Archivo P. Donostia. Lekaroz.
- Lehen gizarteak**, Benantxio Otaegi. Etor. Bilbao.
- Lehen urratsak. Euskaldunen alfabetatzea - I.** Lur. Donostia.
- Linguistika orain arte**, Xabier Kintana. Lur. Donostia.
- Marxen marxismoa**, Gotzon M. Garate. Etor. Bilbao.
- Marx eta erlijioa**, Imanol Pagola. Irakur sail. Donostia.
- Mendi-gañetik**, José Ignacio Etxeberria. Auspoa. Tolosa.
- Mintzaira, aurpegia: Gizon!**, Jean Hiriart-Urruty. Jakin. Oñati.
- Oihaneko gauza harrigarriak**, Georges Sherman (F. Mendizabalek euskaratua). Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Pastor Izuela (1780-1837) - Eskioko ta Segurako itxuak**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Perretxikoak - Setas**, Iñaki Linazasoro. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Pro-bintzialak. Zarautz-Donostia.
- Poema bilduma**, Mikel Lasa eta Amaia Lasa. Irakur sail. Donostia.
- Rikardo Arregi**, R. Arregi, Alfabetatzen batzordea, Joseba Arregi, Joan M.<sup>a</sup> Torrealday. Jakin sorta. Arantzazu-Oñati.
- Seksu-ezibidea**, Sergio Bigatello (J. Gaztañaga eta J. Goikoetxeak euskaratua). Etor. Bilbao.
- Sozialismoaren frogantzak**, Maurice Dobb (A. Urretavizcayak itzulia). Lur. Donostia.
- Txirritaren bertsoak (I eta II tomoak)**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- "Umeen deia"**, Aita Felipe Murietaren bilduma. Iruña.
- Xabiartxo**, López-Mendizabal (A. Onaindiak bizkaieratua). Amorebieta.
- Zepai bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.

Juan SAN MARTIN.







PUBLICACIONES  
DE LA  
REAL SOCIEDAD VASCONGADA  
DE AMIGOS DEL PAIS  
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



- MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORENDA, por Gregorio de Altube.  
LA EPOPEYA DEL MAR. por M. Ciriquiain-Galzarro. (Agotado).  
PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Areilza.  
HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churruca.  
ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquin de Yrizar.  
BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.  
LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

- BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.  
Ejemplar suelto: 50 Ptas.  
Suscripción anual (España) 200 »  
» » (Extranjero) 250 »  
EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.  
Suscripción anual: 90 »  
MUNIBE.—Revista de Ciencias Naturales  
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



